Osakidetza



SEGURTASUNEKO ETA HIGIENEKO PREBENTZIOKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

GALDERAK

1. **Osalanen Egitura eta Jarduerarako Araudia onartzen duen uztailaren 30eko 191/2002 Dekretuaren arabera, zein da Osalanek norberaren kontura lan egiten duten langileei dagokienez duen jarduera-eremua?**

   a) Aurretiaz lan-harremana badago soilik jarduten du.
   b) Laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko jarduerak egiten ditu.
   c) Industria-jardueretan soilik esku hartzen du.
   d) EZ du eskumenik langile autonomoekin.

2. **Osalanen Egitura eta Jarduerarako Araudia onartzen duen uztailaren 30eko 191/2002 Dekretuaren arabera, zein da Osalanen partaidetza- eta kontrol-organoa?**

   a) Zuzendaritza Batzordea.
   b) Kontseilu Nagusia.
   c) Zuzendariordetza Teknikoa.
   d) Zuzendaritza Nagusia.

3. **Osalanen Egitura eta Jarduerarako Araudia onartzen duen uztailaren 30eko 191/2002 Dekretuaren arabera, zein da Osalanen izaera juridikoa?**

   a) Administrazio-erakunde autonomoa, nortasun juridiko propioa duena.
   b) Enpresa-erakunde publikoa.
   c) Nortasun juridikorik gabeko administrazio-zerbitzua.
   d) Izaera pribatua duen erakunde autonomoa.

4. **Osalanen Egitura eta Jarduerarako Araudia onartzen duen uztailaren 30eko 191/2002 Dekretuaren arabera, zer sartzen da “langile” kontzeptuaren barruan?**

   a) Besteren kontura lan egiten duten pertsona langileak, Euskal Autonomia Erkidegoko funtzionarioak, eta kooperatibetako bazkide langileak edo lan-bazkideak.
   b) Besteren kontura lan egiten duten pertsona langileak eta enplegatu publikoak soilik.
   c) Funtzionarioak soilik.
   d) Enplegatu publikoak bakarrik.

5. **Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionalaren egitura eta eskumenei buruzko martxoaren 17ko 577/1982 Errege Dekretuaren arabera, ondoko funtzio hauetatik zeintzuk dagozkio Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionalari (egungo LSOIN / INSST)?**

   a) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko ezagutzak eta praktikak zabaltzea eta hedatzea enpresen eta langileen artean.



b) Prebentzio- eta babes-ekipoen eta bitarteko teknikoen homologazioa egiaztatzea eta horri buruzko irizpena ematea, horretarako emandako arauen arabera.
c) Segurtasun eta higieneko teknikarientzako prestakuntza-, hobekuntza- eta eguneratze-planak eta ikastaroak programatu, antolatu eta garatzea.
d) a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

6. Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionalaren egitura eta eskumenei buruzko martxoaren 17ko 577/1982 Errege Dekretuaren arabera, organo hauetako zein EZ da Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionalekoa?

a) Institutuko Kontseilu Nagusia.
b) Laneko Segurtasun eta Higienerako Zentro Nazionalak.
c) Osalan.
d) Ikerketa eta laguntza teknikoko zentroak.

7. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza Sistema antolatzen duen uztailaren 21eko 23/2015 Legearen arabera, zer eskubide aitortzen zaie Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza Sistemako langileei beren eginkizunak betetzean?

a) Kanpoko langileei beren eginkizunak eskuordetzeko aukera.
b) Edozein prozedura judizialen aurrean erabateko inmunitatea.
c) Indarkeria, hertsapen, mehatxu edo eragin desegoki ororen aurkako babesa.
d) Prozeduraren beharrik gabe zehatzeko ahalmena.

8. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza Sistema antolatzen duen uztailaren 21eko 23/2015 Legearen arabera, zer ahalmen aitortzen zaie lan-ikuskatzaileei ikuskapen-bisitetan?

a) Lanaldian soilik sartzea eta aldez aurreko jakinarazpenarekin.
b) Edozein unetan eta aldez aurreko abisurik gabe lantokietara joan ahal izatea.
c) Enpresak idatziz baimentzen badu soilik sartzea.
d) Ikuskapenak sindikatuetako ordezkarien aurrean soilik egitea.

9. Gizarte Segurantzako Lan Istripu eta Lanbide Gaixotasunen Mutuen Elkarlanari buruzko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 7ko 1993/1995 Errege Dekretuaren arabera, zein da mutuen funtsezko izaera juridikoa?

a) Lan Ministerioan integratutako erakunde publikoak dira.
b) Gizarte Segurantzarekin lankidetzan jarduteko baimena duten enpresa-elkarteak dira.
c) Kuotekiko erantzukizunik gabeko merkataritza-sozietateak dira.
d) Estatuak diruz lagundutako fundazio pribatuak dira.

10. Zein organok osatzen dute Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) egitura iraunkorra, haren Konstituzioaren 2. artikuluaren arabera?

a) Konferentzia Orokorra, Idazkaritza Teknikoa eta Lanaren Nazioarteko Auzitegia.
b) Kontseilu Ekonomikoa, Konferentzia Orokorra eta Lanaren Nazioarteko Bulegoa.



c) Konferentzia Orokorra, Kontseilu Soziala eta Lanaren Nazioarteko Bulegoa.
d) Konferentzia Orokorra, Administrazio Kontseilua eta Lanaren Nazioarteko Bulegoa.

11. Zer ondorio izan dezake, Lanaren Nazioarteko Erakundearen Konstituzioaren 19. artikuluaren arabera, lehendik daudenak baino hobeak diren lan-baldintzei buruzko hitzarmen bat onartzeak?

a) Automatikoki ordezkatzen ditu.
b) Aldi baterako eteten ditu.
c) Ezin ditu kaltetu.
d) Derrigorrezko harmonizazioa eskatzen du.

12. 2019/126 (EB) Erregelamenduaren arabera, zein da Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziaren (EU-OSHA) helburua?

a) Laneko segurtasun- eta osasun-baldintzen hobekuntza sustatzea, bereziki prestakuntza-, informazio- eta sentsibilizazio-ekintzei laguntza emanez.
b) Langileen osasuna babestea ikuspuntu asistentzial, prebentibo eta konpontzailetik.
c) Informazio teknikoa, zientifikoa eta ekonomikoa ematea, bai eta lan-ingurunea hobetzeko ezagutza espezializatuak ere, langileen segurtasuna eta osasuna babesteari dagokionez.
d) Laneko segurtasun- eta osasun-politika publikoak koordinatzea, eta Estatuko Administrazio Orokorraren, autonomia-erkidegoen eta gizarte-eragileen arteko partaidetzarako foroa izatea.

13. 2019/126 (EB) Erregelamenduaren arabera, zer kanpaina bultzatzen ditu aldizka Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak (EU-OSHA)?

a) Lan-ikuskaritzako kanpainak.
b) Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko sentsibilizazio-kanpainak.
c) Enpresa-ziurtapeneko kanpainak.
d) Istripu larriak kontrolatzeko kanpainak.

14. 2019/126 (EB) Erregelamenduaren arabera, zein kolektibok dute ordezkaritza Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziaren (EU-OSHA) Administrazio Kontseiluan?

a) Gobernuak, enpresa-erakundeak eta langileak ordezkatzen dituzten erakundeak.
b) Administrazio publikoak, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutuak eta unibertsitateak.
c) Enpresak, bezeroak eta hornitzaileak.
d) Teknikariak, ikuskatzaileak eta justizia-arloko langileak.

15. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer dokumentuk jaso behar ditu prebentzio-sistemaren antolaketa-egitura, erantzukizunak, eginkizunak eta baliabideak?

a) Jardueren urteko memoria.



b) Laneko arriskuen prebentziorako plana.
c) Urteko prestakuntza-plangintza.
d) Osasun-zaintzaren programa.

16. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, printzipio hauetako zein da prebentzio-jardueraren parte?

a) Babes indibiduala lehenestea babes kolektiboaren aurretik.
b) Istripua gertatu ondoren soilik jardutea.
c) Saihestu ezin diren arriskuak ebaluatzea.
d) Prebentzioa prestakuntzan eta informazioan soilik oinarritzea.

17. Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, nork ziurtatu behar du lanak eragindako kalteak ikertzen direla?

a) Enpresako zerbitzu medikoak soilik.
b) Lankidetzan diharduen mutualitateak.
c) Enpresaburuak.
d) Prebentzio-ordezkariek.

18. Zer adierazten du urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duenak, prebentzio-plangintzari buruz?

a) Ez da beharrezkoa arriskua hutsala bada.
b) Lehentasunak ezarri behar dira, adibidez, arriskuaren tamainaren arabera.
c) 250 langiletik gorako enpresetan soilik planifikatzen da.
d) Plangintza aukerakoa da, prebentzio-zerbitzu propioetarako soilik.

19. Zer baldintza ezartzen du Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak, arreta galtze edo zuhurtziagabekeria EZ ausartegiei dagokienez?

a) Prebentzio-neurrien eraginkortasunak aurreikusi egin behar ditu.
b) Langilearen erantzukizun esklusibotzat hartu behar dira.
c) Ez dira kontuan hartu behar prebentzio-neurrietan.
d) Hutsegite larritzat zigortu behar dira.

20. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer betebehar du enpresak hainbat erakundek lantoki bera partekatzen dutenean,?

a) Enpresa bakoitzari jarduera-lizentzia eskatzea.
b) Informazioa soilik idatziz trukatzea.
c) Prebentzio-araudia aplikatzean elkarlanean aritzea.
d) Koordinazio guztia lan-agintaritzaren esku uztea.



21. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer egin behar du enpresaburuak jarduera hasi aurretik, iraupen mugatuko edo aldi baterako kontratua duten langileak hartzen baditu?

a) Hasierako prebentzio-prestakuntzatik salbuestea, enpresan aldi baterako egongo direlako.
b) Arriskuei eta prebentzio-neurriei buruzko informazioa ematea.
c) Arriskurik gabeko lanak esleitzea.
d) Sei hilabeteko derrigorrezko probaldia egitea.

22. Zer ezaugarri du osasun-zaintzak, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera?

a) Kasu guztietan baimenik gabe egin behar da.
b) Osasun-kalteren bat detektatzen denean egiten da.
c) Mutualitatearen erantzukizuna da.
d) Azterketek edo probek arriskuarekiko proportzionalak izan behar dute.

23. Zer adierazten du urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duenak, arriskuen ebaluazioan eskumena duten langileen esku-hartzeari buruz?

a) Kanpoko prebentzio-zerbitzuko langileek soilik egin dezakete.
b) Mutualitateak bakarrik egin behar du.
c) Ebaluazioa 39/1997 Errege Dekretuaren VI. kapituluan zehaztutako langile eskudunek egin behar dute.
d) Enpresak erdi-mailako edozein agintariren esku utz dezaake.

24. Ondoko adierazpen hauetatik zein EZ da zuzena, prebentzio-zerbitzu propioei dagokionez, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak ezartzen duenaren arabera?

a) Lan-administrazioak egiaztatu behar ditu.
b) Instalazioak eta beharrezko giza baliabideak izan behar dituzte.
c) Kideek enpresan modu esklusiboan jardungo dute prebentzio-zerbitzu propioaren xedeetarako.
d) Prebentzio-zerbitzu propioaren bidez bere gain hartzen ez diren jarduerak kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin edo gehiagorekin hitzartu behar dira.

25. Zein baldintza bete behar dituzte kanpoko prebentzio-zerbitzu gisa jarduten duten erakundeek, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Administrazio-langileak baino ez izatea.
b) Prebentzio-diziplina guztiak eta dagokien langile kualifikatuak izatea.
c) Instalazio propiorik ez izatea.
d) Bezero diren enpresekin merkataritza-harremanak izatea.

26. Zer betebehar ezartzen du urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duenak, lantokian teknologia berriak sartzen direnean?

a) Teknologiaren hornitzaileak arriskuen ebaluazioa egin duela egiaztatzea eta baliozkotzat hartzea.
b) Eragindako lanpostuetako arriskuak berriro ebaluatu beharko dira.
c) Aldez aurretik informatikako langileei kontsulta egitea.
d) Osasunerako kalte posible baten zain egotea.

27. Zer jaso behar du prebentzio-plangintzak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren arabera, epea urtebetetik gorakoa denean?

a) Beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak.
b) Baliabide ekonomikoen esleipena.
c) Osasun-zaintza.
d) a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

28. Zer bermatu behar du Prebentzio Zerbitzuak osasun-informazioari dagokionez, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Lan-osasuneko gastuen urteko txosten ekonomikoak bidaltzea.
b) Osasun arloko agintariekin lankidetzan aritzea Laneko Osasunari buruzko Osasun-informazio Sistema hornitzeko.
c) Ez dago zehaztuta; datuak mutualitateari soilik bidaltzen zaizkio.
d) Istripu larria gertatzen denean soilik informatu.

29. Zein da auditoretzaren helburua, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Prebentzio-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea eta gabeziak antzematea.
b) Prebentzio-kostuak soilik aztertzea.
c) Arriskuen ebaluazioa ordezkatzea.
d) Dokumentuak bete diren bakarrik baloratzea.

30. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, nori dagokio prebentzio-neurrien kostua ordaintzea?

a) Langileei.
b) Administrazio publiko eskudunari.
c) Gizarte Segurantzarekin lankidetzan aritzen diren mutualitateei.
d) Enpresari, langileengan inolako ondoriorik izan gabe.



31. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, noiz jakinarazi behar zaizkio osasun-kalteak lan-agintaritzari?

a) Heriotza eragiten duten istripuak direnean bakarrik.
b) Baja hiru egunetik gorakoa denean.
c) Lana dela-eta gertatu direnean.
d) Lan-ikuskaritzak hala eskatzen duenean bakarrik.

32. Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren arabera, zertarako balio du arriskuen ebaluazioak?

a) Langileek lan-arauak betetzen ez dituztela atzemateko.
b) Saihestu ezin izan diren arriskuen garrantzia maila balioesteko eta prebentzio-neurriak hartzeko.
c) Prebentzio-kudeaketaren eraginkortasuna ebaluatzeko.
d) Laneko arriskuen prebentzioan legea betetzen dela justifikatzeko.

33. Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren arabera, zein alderdi hartu behar da nahitaez kontuan hasierako ebaluazioan?

a) Errentagarritasun ekonomikoa.
b) Enpresaren antzinatasuna.
c) Lanpostua betetzen duten langileen sentikortasun berezia.
d) Lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen mutuaren irizpide profesionala.

34. Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren arabera, nork ezar dezake prebentzio-baliabideak egoteko betebeharra?

a) Lankidetzan diharduen mutualitateak.
b) Enpresa-batzordeak.
c) Osasun-agintaritzak.
d) Lan Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak.

35. Zein eskubide dago jasota babes eraginkorrerako eskubidean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera?

a) Barne-sustapenerako eskubidea.
b) Lan-bizitza uztartzeko eskubidea.
c) Prebentzioari buruzko informazioa eta prestakuntza jasotzeko eskubidea.
d) Arrisku-egoeretan pizgarri ekonomikoak jasotzeko eskubidea.

36. Zein eskubide dago arrisku larri eta berehalakoaren aurrean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera?

a) Konpentsazio ekonomikoa.
b) Jarduera etetea eta lantokia uztea.



c) Lanpostuz berehala aldatzea.
d) Kanpoko balorazio bat eskatzea.

37. Zein elementuren ezarpenaren eta aplikazioaren bidez integratu behar da prebentzioa enpresan, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduak onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Kanpo-auditoretza.
b) Laneko arriskuen prebentziorako plana.
c) Urteko memoria.
d) Prebentzio-modalitatea ezartzea.

38. Zer EZ du islatu behar ebaluazio-dokumentazioak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Ebaluatzeko irizpideak eta prozedurak.
b) Dauden arriskuak eta kaltetutako langileen zerrenda.
c) Ebaluazioaren emaitza eta aplikatu beharreko prebentzio-neurriak.
d) Pertsonen osasun-egoerari buruzko datu mediko indibidualak.

39. Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren arabera, prebentzio-baliabideen presentzia honako hau da:

a) Zehapen-neurria.
b) Prebentzio-neurri osagarria.
c) Diziplina-neurria.
d) Administrazio-neurria.

40. Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren arabera, Osakidetzak prebentzio zerbitzu propioaren modalitatea aukeratu eta antolamendu-unitate bakarra osatu zuen. Unitate horretan, laneko arriskuen prebentzioaren arloan funtzio espezifikoak dituzten giza baliabide guztiak integratzen dira, eta bi deszentralizazio-maila ditu. Adierazi zeintzuk diren:

a) Prebentzio Zerbitzu Korporatiboa eta Oinarrizko Osasun Unitateak (OOU).
b) Prebentzio Zerbitzua Korporatiboa eta Prebentzioko Oinarrizko Unitateak (POU).
c) Prebentzio Zerbitzu Nagusia eta Oinarrizko Osasun Unitateak (OOU).
d) Prebentzio Zerbitzu Nagusia eta Prebentzioko Oinarrizko Unitateak (POU).

41. Osakidetzako Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren arabera, prebentzioko oinarrizko unitateei honako erantzukizun eta eginkizun hauek dagozkie (adierazi erantzun zuzena):

a) Sortutako prebentzioari buruzko dokumentazioa erregistratzea eta zaintzea.
b) Bere ardurapean dauden langileei beren jarduera modu seguruan egiteko aukera ematen dieten segurtasun-elementu guztiak ematea (babes kolektiboko ekipamenduak, norbera babesteko ekipamenduak etab.), eta horiek une oro erabil ditzaten exijitzea.

c) Hornitzaileei eskatuko diete arauei, ziurtagiriei, homologazioei eta prebentziorako interesgarriak diren bestelako dokumentuei buruzko dokumentazioa, baldin eta material berrien erosketan eragina badute edo izan badezakete.
d) Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko betebeharrak betetzen direla zaintzea.

42. Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburua"-ren 2008ko 2. berrikuspenaren arabera, non kokatzen da Prebentzio Zerbitzu korporatiboa?

a) Zerbitzu-erakunde bakoitzean, Prebentzioko Oinarrizko Unitatearen buru gisa.
b) Ordezkaritza duten erakunde sindikaletan.
c) Korporazioaren antolakunde zentralean.
d) Lan-agintaritza eskudunean.

43. Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren 2008ko 2. Berrikuspenaren arabera, zein da Prebentzio Zerbitzuko koordinazio orokorraren eginkizun espezifiko bat?

a) Batzorde bakoitzaren funtzionamendurako barne-erregelamendua ezartzea.
b) Etorkizuneko kontratazioetarako hornitzaileen ez-betetze errepikatuak erregistratzea.
c) Prebentzioko Oinarrizko Unitateen koordinazio-bilerak deitzea planen eta programen jarraipena egiteko.
d) Eskuliburuaren banaketa kudeatzea posta elektroniko bidez, jasotzearen berrespena eskatuz.

44. Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren 2008ko 2. berrikuspenaren arabera, zein da Prebentzio Zerbitzu korporatiboaren eginkizun orokor bat?

a) Prebentzio integraturako prestakuntza-planak definitzea eta martxan jartzea.
b) Segurtasun eta Osasun Batzordearen osaera parekidea zehaztea.
c) Eskuliburuaren berrikuspenak onartzea, eranskinetatik aparte.
d) "Osasun Pertsonalaren Erregistroa" fitxategia eta haren erreferentzia ezartzea.

45. Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren 2008ko 2. berrikuspenaren arabera, zein jarduera sartzen da Prebentzioko Oinarrizko Unitateen jarduera-eremu nagusien artean, lan-osasunari dagokionez?

a) Osasunaren zaintza, osasun-azterketak, prebentziozko txertaketa-programak eta lanpostuen egokitzapena barne.
b) Giza Baliabideen Zuzendaritzak eta Zuzendaritza Nagusiak eskuliburua egitea eta onartzea.
c) Kanpo-komunikazio garrantzitsuen harrera, dokumentazioa eta erantzuna.
d) Plangintzarako beharrezkoak diren kanpoko jatorria duten dokumentuak identifikatu eta kontrolatzea.

46. Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren 2008ko 2. berrikuspenaren arabera, Prebentzio Batzordea honako maiztasunarekin bilduko da:

a) Urtean behin.
b) Urtean bi aldiz.
c) Urtean hiru aldiz.
d) Urtean lau aldiz.

47. Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren 2008ko 2. berrikuspenaren arabera, honako eginkizun hauetatik zein EZ dagokio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari?

a) Laneko arriskuen prebentzioaren arloko helburu estrategikoak ezartzea.
b) Osakidetzako prebentzio-antolaketa ezartzea eta garatzea.
c) Prebentzio-helburuen berrikuspenean etengabeko hobekuntza-elementuak txertatzea.
d) Eskuliburu honetan aginte-lerro osoari esleitutako erantzukizunak betetzea exijitzea.

48. Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren 2008ko 2. berrikuspenaren arabera, zer dagokie Dibisioetako Zuzendaritzei?

a) Laneko arriskuen prebentzioan lidergo-erantzukizuna izatea.
b) Politikaren helburuak lortzeko inplikazioa.
c) Beharrezko segurtasun eta osasun neurriak beren jarduketa-programetan txertatzea.
d) a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

49. Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren arabera, zer jarduketa dagokio zerbitzu-erakundeetako Zuzendaritza Medikoari istripu edo gertakarien aurrean?

a) Segurtasun eta Osasun Batzordeari soilik informazioa ematea.
b) Jarduteko protokolo korporatiboak egitea.
c) Arloko arduradunak kausen ikerketan inplikatzea.
d) Prebentzio-plangintza korporatiboa koordinatzea.

50. Zenbat osasun-eremutan banatzen da Euskadi, Osakidetzako Prebentzio Planaren arabera?

a) Bi.
b) Hiru.
c) Lau.
d) Bost.

51. Zer egin dezakete Zuzendaritza Gerentziek Laneko Arriskuen Prebentziorako Politika Orokorrari dagokionez, Osakidetzaren Prebentzio Planaren arabera?

a) Beren antolaketara egokitzea.



b) Beste politika osagarri propio batez ordezkatzea.
c) Dokumentu propio batean berrestea.
d) Ez dago deskribatuta.

52. Zein da, Osakidetzako Prebentzio Planaren arabera, Laneko Arriskuen Prebentzioko helburuen jarraipena egiteko gutxieneko maiztasuna?

a) Urterokoa.
b) Seihilekokoa.
c) Hiruhilekokoa.
d) Lauhilekokoa.

53. Osakidetzako Prebentzio Planaren arabera, nork egiten eta zaintzen ditu Laneko Arriskuen Prebentzioko helburuen urteko planak?

a) Prebentzio Zerbitzu Korporatiboak.
b) Zerbitzu-erakundeetako zuzendaritzek.
c) Osasun Sailak.
d) Administrazio Kontseiluak.

54. Zer elementu jaso behar dute zerbitzu-erakundeetako Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko helburuen urteko planek, Osakidetzako Prebentzio Planaren arabera?

a) Prestakuntza-ekintzak soilik.
b) Ekintzak eta jarraipen-adierazleak.
c) Kostuen ebaluazio ekonomikoak.
d) Kudeaketa-sistemaren prozesuak deskribatzea.

55. Osakidetzako Prebentzio Planaren arabera, zer inplikazio du antolaketari dagokionez Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuak antolaketa-unitate bakarra osatzeak?

a) Laneko Arriskuen Prebentzioan eginkizun espezifikoak dituzten giza baliabide guztiak integratzea.
b) Bere gain hartu ez dituen prebentzio-espezialitateak kanpora ateratzea.
c) Zerbitzu-erakunde bakoitzak erabateko prebentzio-autonomia izatea.
d) Prebentzio-jarduera esparru korporatibora mugatzea.

56. Osakidetzako Prebentzio Planaren arabera, zer harreman dago Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren protokoloen eta prozeduren artean?

a) Protokoloek prozedurei lotutako jarduera espezifikoak garatzen dituzte.
b) Protokoloek prozedurak ordezkatzen dituzte.
c) Prozedurek jarduera klinikoak garatzen dituzte.
d) Biek dokumentu-irismen bera dute.

57. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalaren Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratzeko Gida Teknikoaren arabera, zer irizpideren arabera baloratu daiteke prebentzioa enpresaren kudeaketa-sisteman integratuta dagoen?

a) Edozein jarduera kudeaketa bakarraren xede dela.
b) Bere funtzioa gauzatzeko idatzizko prozedurak izatea.
c) Prebentzio Zerbitzuko langileak bere egituran barne hartzea.
d) Prebentzio Zerbitzuak erabaki guztietan esku hartzea.

58. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalaren Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratzeko Gida Teknikoaren arabera, zer alde dago prebentzioaren integrazio-beharraren eta integrazio-mailaren artean?

a) Integrazio-beharra prestakuntzaren menpe dago, eta integrazio maila hierarkiaren araberakoa da.
b) Integrazio-beharrak izaera uniformea du, eta integrazio-maila arriskuaren araberakoa da.
c) Bi adierazpenak baliokideak dira.
d) Integrazio-beharrak inpaktu prebentiboaren menpe dago, eta integrazio-maila, berriz, unitatearen autonomia-mailaren menpe.

59. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalaren Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratzeko Gida Teknikoaren arabera, zein da Prebentzio Zerbitzuaren funtsezko zeregina?

a) Jarduera prebentibo espezializatu guztiak gauzatzea.
b) Prebentzioaren arloan kudeaketa-unitateak ordezkatzea.
c) Lanaren exekuzioa etengabe gainbegiratzea.
d) Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sisteman prebentzioaren integrazioa baloratzea eta sustatzea.

60. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalaren Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratzeko Gida Teknikoaren arabera, zer baldintza da ezinbestekoa prebentzioa enpresako Zuzendaritzan eraginkortasunez integratzeko?

a) Prebentzio Zerbitzuak segurtasuna eta osasuna bermatzen dituela ziurtatzea.
b) Kudeaketa sistemak ziurtatzeko baliabideak jartzea.
c) Prebentzioaren arloko erantzukizun orokorra bere gain hartzea.
d) Idatzizko prozedurak egotea.

61. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalaren Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratzeko Gida Teknikoaren arabera, zer da unitate batek prebentzio-arloan duen autonomia-maila?

a) Bere eginkizunak garatzeko gaitasuna, Prebentzio Zerbitzuaren etengabeko lankidetza behar izan gabe.
b) Jarduerak gainbegiratze hierarkikorik gabe gauzatzeko gaitasuna.
c) Bere lana egiteko baliabide materialak izatea.
d) Langileen espezializazio teknikoaren maila.

62. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalaren Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratzeko Gida Teknikoaren arabera, nolako lankidetza eskaini behar die Prebentzio Zerbitzuak antolaketa-unitateei?

a) Esku-hartze etengabea erabaki guztietan.
b) Dokumentazioaren gainbegiratze sakona.
c) Unitateak modu autonomoan jardun ahal izateko beharrezkoa dena.
d) Produkzio-zereginen exekuzio zuzena.

63. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalaren Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratzeko Gida Teknikoaren arabera, zein kasutan da bereziki beharrezkoa prebentzioa sartzea arriskutsuak izan daitezkeen jardueretan?

a) Arriskuaren magnitudea langilearen jokabideak baldintzatzen duenean.
b) Arriskuaren kontrola neurri teknikoen bidez egiten denean.
c) Lana errutinazkoa denean.
d) Ekipamendu automatizatuak daudenean.

64. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalaren Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratzeko Gida Teknikoaren arabera, zein egoeratan da ezinbestekoa prebentzioaren integrazio-maila handia izatea aldaketen kudeaketan?

a) Aldaketak salbuespenezkoak direnean.
b) Aldaketak maiz eta modu deszentralizatuan gertatzen direnean.
c) Lan-baldintzetan eragin txikia duten antolamendu-alderdiei buruzkoak ez direnean.
d) Aldaketek lan-baldintzetan eragin garrantzitsua dutenean, baina noizean behin egiten direnean.

65. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalaren Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratzeko Gida Teknikoaren arabera, zein helburu du aldaketen kudeaketan prebentzioa integratzeak?

a) Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren prozedurak egokitzea.
b) Hasierako arrisku-ebaluazioa ordezkatzea.



c) Aldaketek kontrolik gabeko arrisku berriak sortzea saihestea.
d) Laneko Arriskuen Prebentzioaren baldintzen ondorengo gainbegiratzea saihestea.

66. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalaren Laneko Arriskuen Prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratzeko Gida Teknikoaren arabera, zer lortzen da aldaketen kudeaketa deszentralizatua denean eta prebentzioaren integrazio-maila handia dagoenean?

a) Prebentzio Zerbitzuaren eskakizun handiagoa.
b) Prebentzioari dagokionez erantzun azkarragoa eta eraginkorragoa.
c) Prebentzio-plangintza ezabatzea.
d) Ziurgabetasuna areagotzea, ezin delako ziurtatu legea beteko dela.

67. Zein erantzukizun hartzen du zuzendaritza-taldeak prebentzioaren arloan, Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren arabera?

a) Prozedura prebentiboak lantzea.
b) Prebentzioa soilik zerbitzu espezializatuari delegatzea.
c) Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan alderdi zehatzak lantzeko lan-taldeak sortzea sustatzea.
d) Prebentzioaren helburu estrategiko orokorrak onartzea.

68. Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren arabera, zer betebehar du Giza Baliabideen Zuzendaritzak bere erakundeko Prebentzioko Oinarrizko Unitateari dagokionez?

a) Beharrezkoa denean, haren desegitea proposatzea.
b) Funtzionamendua erabat eskuordetzea.
c) Kanpoko baliabideekin bakarrik koordinatzea.
d) Bere jardueren ezarpena eta jarraipena egitea.

69. Zein erantzukizun du zerbitzu-erakundeetako zuzendaritza medikoak istripu eta gorabeheren arloan, Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren arabera?

a) Kasuak Zerbitzu Juridikoari soilik bideratzea.
b) Arloetako arduradunak kausen ikerketan inplikatzea.
c) Ikerketa tekniko osoa bere gain hartzea.
d) Jarduera administrazio-jakinarazpenera mugatzea.

70. Zer betebehar du Kudeaketa Ekonomikoko Zuzendaritzak eskuratutako materialei dagokienez, Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren arabera?

a) Aurretiazko egiaztapenik gabe biltegiratzea.
b) Haien kontrola hornitzaileen esku uztea.
c) Langileei kontrolatu gabeko arriskurik ez dakarkiela bermatzea.

d) Erabili ondoren soilik ebaluatzea.

71. Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren arabera, erantzukizun hauetatik zein EZ da Zerbitzu Orokorren eta Mantentze-lanen arlokoa?

a) Zentroko seinaleztapena egoera ezin hobean jartzea eta mantentzea.
b) Kanpoko enpresek egindako jardueren jarraipena eta kontrola egitea.
c) Suteei aurre egiteko jardueretan parte hartzea.
d) Eskuratutako edozein materialek langileentzat kontrolik gabeko arriskurik ez dakarrela bermatzea.

72. Zein eskubide-eginkizun dute prebentzioko ordezkariek, Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren arabera?

a) Lanpostuen arrisku-ebaluazioa egitea.
b) Araudiaren betekizunaren zaintza eta kontrola gauzatzea.
c) Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko zehapen-proposamenak egitea.
d) Langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea.

73. ISO 45001:2018 arauak planteatzen duen Laneko Segurtasuna eta Osasunaren Kudeaketa Sistemaren ikuspegiaren PHVA zikloaren kontzeptuari dagokionez (planifikatu, egin, egiaztatu eta zuzendu, euskaraz), lau elementuetako zeinetan sartzen dira barne-auditoretzak?

a) P.
b) H.
c) V.
d) A.

74. ISO 45001:2018 arauaren arabera, laneko segurtasun eta osasunerako eta kudeaketa-sistemarako aukerei dagokienez:

a) Laneko arriskuen ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta bakarrik identifikatu behar dira.
b) Lantokian dauden arriskuak ezabatzearekin lotuta daudenetara mugatzen dira.
c) Ohiko tranpa da: aukerak ez dira arriskuaren mende bakarrik egoten.
d) Antolaketan, jardueretan, prozesuetan edo laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sisteman bertan izandako aldaketen ondorio izan daitezke.

75. Zertarako berrikusi behar du Zuzendaritzak Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketa Sistema, ISO 45001:2018 baldintzaren arabera?

a) Jardueraren jarraipena egiteko eta, ez-betetzerik izanez gero, erantzukizunak ezartzeko.
b) Komenigarria, egokia eta eraginkorra dela ziurtatzeko.
c) Prebentzioaren arloan indarrean dagoen legeriak ezartzen duelako.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

76. Zehaztuta al dago laneko segurtasun eta osasunaren arloko parte-hartzea ISO 45001:2018 baldintzen barruan?

a) Ez dago zehaztuta, baina zeharka sartzen da, legezko baldintza delako.
b) Bai, erabakia hartu aurretik iritziak bilatzeko modu gisa txertatzen da.
c) Bai, erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko ekintza eta ondorio gisa txertatzen da.
d) Ez da baldintza; gomendioa baino ez da, arrakastaren gakoa lidergoan baitago.

77. Faktore hauetatik, zein EZ da arrakasta-faktore bat ISO 45001:2018 arauaren arabera Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketa Sistema bat ezartzeko?

a) Zuzendaritza gorenaren lidergoa.
b) Laneko Segurtasun eta Osasunaren politikak, antolaketatik bereizitako orientazio estrategikoarekin definituak.
c) Beharrezko baliabideen esleipena.
d) Zuzendaritza gorenaren kontuak ematea.

78. Honako hauetatik zein EZ da Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketa Sistema baten helburua ISO 45001:2018 arauaren arabera?

a) Lesioak eta osasunaren narriadura prebenitzea.
b) Lan-ingurune seguruak eta osasungarriak eskaintzea.
c) Laneko segurtasunaren eta osasunaren errendimendua maila konstantean finkatzea.
d) Laneko segurtasun eta osasunerako arriskuak kudeatzeko erreferentzia-esparru bat eskaintzea.

79. ISO 45001:2018 arauaren arabera, zer da lesioa eta osasunaren narriadura?

a) Laneko arriskuekiko esposizio luzearen ondorio den eta legez aitortuta dagoen edozein gaixotasun profesional.
b) Lanaldian gertatutako lan-istripu baten ondorio zuzen gisa sortutako kalte fisikoak.
c) Osasun-egoeraren alterazioak, klinikoki diagnostikatuak eta agintaritza eskudunak kontingentzia profesional gisa erregistratuak.
d) Pertsona baten egoera fisikoan, mentalean edo kognitiboan sortzen diren ondorio kaltegarriak, lanarekin lotutako gaixotasun edo istripuetatik eratorritakoak barne.

80. ISO 45001:2018 arauaren arabera, funtzio eta erantzukizunekin lotutako zein alderdi da ezinbestekoa Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketa Sistemaren eraginkorra izan dadin?

a) Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloko erantzukizunak sistemaren eskuliburuan dokumentatuta egotea.
b) Laneko Segurtasun eta Osasuneko agintaritza prebentzio-zerbitzuari ematea.
c) Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan funtzio garrantzitsuak dituzten pertsonek sistemaren baldintzak betetzearen gaineko kontu-ematea beren gain hartzea.
d) Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloko erantzukizunak barne-auditorietan soilik berrikustea.

81. Zer betebehar ezartzen du ISO 45001:2018 arauak Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketa Sistemaren irismenaren eskuragarritasunari dagokionez?

a) Zuzendaritza gorenari soilik jakinarazi behar zaio.
b) Urtero berrikusi behar da.
c) Webgune korporatiboan argitaratu behar da.
d) Informazio dokumentatu gisa eskuragarri egon behar du.

82. ISO 45001:2018 arauaren arabera, Laneko Segurtasun eta Osasunaren politikak honako konpromisoa jaso behar du:

a) Laneko Segurtasun eta Osasunerako arriskuak desagerraraztea eta murriztea.
b) Dauden arrisku guztiak ezabatzea.
c) Arrisku-ebaluazioa kontrol operatiboekin ordezkatzea.
d) Prebentzioa kanpoko zerbitzuetan delegatzea.

83. ISO 45001:2018 arauaren arabera, kontrata bateko langileen beharrizan edo itxaropen bat erakunde baten Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketa Sistemaren betekizun bihur liteke?

a) Kontrata horrekin sinatutako kontratuan ezarrita badago bakarrik.
b) Ez.
c) Bai.
d) Enpresa-jarduerak koordinatzeagatik nahitaezko baldintza denean bakarrik.

84. Nola definitzen du “gertakaria” ISO 45001:2018k?

a) Lesioak eta osasunaren narriadura eragin ditzakeen gertakaria.
b) Lesioak eta osasunaren narriadura izan ditzakeen edo duen gertakaria.
c) Lesiorik gabeko istripuak, istripu materiala.
d) Adostasun-ezaren ondorioz gertatzen den gertakaria.

85. ISO 45001:2018 arauaren arabera, erakundeak honako hauei buruzko informazio dokumentatua gorde behar du:

a) Lortutako emaitzak soilik.
b) Errendimendu-adierazleak bakarrik.
c) Laneko Segurtasun eta Osasunaren helburuak eta horiek lortzeko planak.
d) Esleitutako baliabideak soilik.

86. ISO 45001:2018 arauaren 8.1.2 atalari jarraituz, zein da arriskuak ezabatzeko eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako arriskuak murrizteko kontrolen hierarkiaren azken maila?

a) Kontrol administratiboak, prestakuntza barne.
b) Horren arriskutsuak ez diren prozesu edo eragiketengatik ordezkatzea.
c) Ingeniaritzako kontrolak eta lanaren berrantolaketa.
d) Norbera babesteko ekipamendu egokiak erabiltzea.



87. ISO 45001:2018 arauaren 8.1.3 atalaren arabera, zer egin behar du erakundeak aurreikusi GABEKO aldaketen aurrean?

a) Aldaketa erregistratu eta bestelako ekintzarik gabe jarraitu.
b) Aldaketa kanpoko interes-taldeei soilik jakinarazi.
c) Ondorioak berrikusi eta, behar izanez gero, ondorio kaltegarriak arintzeko ekintzak hartu.
d) Zuzendaritzaren hurrengo berrikuspenaren zain egon, jarduteko.

88. ISO 45001:2018 arauaren 9.1.1 atalaren arabera, zer jarraipen eta neurketa egin behar den zehaztean, erakundeak honako hau barne hartu behar du:

a) Laneko Segurtasun eta Osasunetik eratorritako finantza-arriskuak bakarrik.
b) Bezeroen gogobetetzea soilik.
c) Mantentze prebentiboko gorabeherak soilik.
d) Erakundeko laneko segurtasunaren eta osasunaren helburuak lortzen aurrera egitea.

89. ISO 45001:2018 arauaren 9.1.1 atalaren arabera, zer ezarri behar du erakundeak bere Laneko Segurtasun eta Osasunaren errendimendua ebaluatzeko?

a) Erakundeak bere Laneko Segurtasun eta Osasunaren errendimendua ebaluatzeko erabiliko dituen irizpideak.
b) Laneko Segurtasun eta Osasunaren helburu estrategikoak soilik.
c) Laneko Segurtasun eta Osasunaren jarduna soilik ebaluatzea, erregistratutako ezbehar-tasaren indizeetatik abiatuta.
d) Segurtasunari eta osasunari buruzko urteko memoria egitea.

90. ISO 45001:2018 arauaren 9.1.1 atalaren arabera, zer ziurtatu behar du erakundeak jarraipen- eta neurketa-taldeari dagokienez?

a) Akatsik ez duten bitartean erabiltzea, erosi edo konpondu ondoren bakarrik kalibratzea.
b) Gertakari bakoitzaren ondoren ordezkatzen direla.
c) Kalibratu edo egiaztatu egiten dela, aplikatu daitekeenaren arabera.
d) Erosketa-faktura soilik gordetzen dela.

91. ISO 45001:2018 arauaren 9.2.1 atalaren arabera, barne-auditoretzak honela egin behar dira:

a) Desadostasun larriak gertatzen direnean.
b) Kanpoko auditoreek bakarrik eginda.
c) Urte natural bakoitzaren amaieran.
d) Aurreikusitako tarteetan.

92. ISO 45001:2018 arauaren 10.1 atalaren arabera, erakundeak hobekuntza-aukerak zehaztu eta beharrezkoak diren ekintzak inplementatu behar ditu, honako hauetarako:

a) Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketa Sisteman aurreikusitako emaitzak lortzeko.
b) Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketa Sistema kontrol administratiboekin ordezkatzeko.
c) Ziurtagiria mantentzea.
d) Errendimendu-ebaluazioa kontuan hartu gabe betetzea bermatzeko.

93. Osakidetzako P-PRL07 Erregistroen Kudeaketa Prozeduraren arabera, zenbat denboran gordetzen dira Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren erregistroak?

a) Bost urte, salbuespenik gabe.
b) Sortu zirenetik hamar urtera.
c) Dagokion auditoretza amaitu arte.
d) Indarrean dagoen legeriak eta FP-PRL07-01 formatuak zehazten duten denboran.

94. Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren arabera, laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako prestakuntza-beharrak nork identifika ditzake?

a) Zuzendaritzako langileak soilik.
b) Kontratek soilik.
c) Kanpoko bisitek soilik.
d) Prebentzio-zerbitzuak, haren oinarrizko unitateek, eta prebentzioarekin lotutako beste edozein eragilek.

95. Zein organok onartzen ditu behin betiko Osakidetzako Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren prozedurak?

a) Prebentzio Zerbitzu Korporatiboak.
b) Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak.
c) Zerbitzu-erakundeek.
d) Segurtasun eta osasun batzordeek.

96. Noiz berrikus daiteke laneko arriskuen prebentziorako kudeaketa-sistemaren dokumentazioa, Osakidetzako Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Dokumentazioaren Kudeaketa Prozeduraren arabera? Adierazi zein den erantzun OKERRA:

a) Lege-aldaketak daudenean.
b) Antolamendu- edo teknika-aldaketak daudenean.
c) Akats nabarmenak zuzentzeko.
d) Bost urtean behin, nahitaez.

97. Osakidetzako Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren erregistroen kontrol-prozeduraren arabera, zaintza-denboren eranskinean "Laneko Arriskuen Prebentzioaren kudeaketa-sisteman sortutako beste erregistro batzuentzat" ezarritako zaintza-denbora zein da?

a) Esposizioa amaitu eta 10 urtera.
b) Esposizioa amaitu eta 40 urtera.
c) Pertsona kaltetuak 65 urte bete arte, eta inoiz ez 30 urte baino gutxiago.
d) 5 urte.

98. Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren Eskuliburuaren arabera, erakundeak honen eraginkortasuna ebaluatzen du:

a) Larrialdi-protokoloak soilik.
b) Prestakuntza-ekintzak edo hartutako ekintzak.
c) Kanpoko alderdi interesdunekiko komunikazioa soilik.
d) Segurtasun-ikuskapenak bakarrik.

99. Zein da laneko arriskuen prebentziorako politikaren helburua, Osalanek Enpresan Laneko Arriskuen Prebentziorako plan bat ezartzeko eskuliburuaren arabera?

a) Ez-betetzeen aurrean jarduteko prozedura ezartzea.
b) Enpresako zuzendaritzaren prebentzio-konpromisoak zehaztea.
c) Prebentzio-kudeaketako sistematikak definitzea.
d) Laneko arriskuen prebentzioaren arloko lege-araua da.

100. Osalanen Enpresan Laneko Arriskuen Prebentziorako plan bat ezartzeko eskuliburuaren arabera, zein lehentasun jarraitu behar da prebentzio-neurriak ezartzerako?

a) Banakako babesa, taldekoa baino lehen.
b) Prestakuntza, neurri teknikoen aurretik.
c) Neurri finantzarioak neurri teknikoen aurrean.
d) Jatorrian hartutako neurriak beste aukeren aurretik.

101. Osalanen Enpresan Laneko Arriskuen Prebentziorako plan bat ezartzeko eskuliburuaren arabera, zer dira jarraibide operatiboak?

a) Laneko Segurtasun eta Osasunaren politika eta helburuak definitzen dituzten dokumentuak.
b) Egindako prebentzio-jardueren erregistroak.
c) Jarduera bat nola egin behar den xeheki azaltzen duten dokumentuak.
d) Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketa Sistemaren jardueren sekuentzia, erantzukizunak eta kontrol-irizpideak deskribatzen dituzten dokumentuak.



102. Osalanen Enpresan Laneko Arriskuen Prebentziorako plan bat ezartzeko eskuliburuaren arabera, zein da laneko segurtasunari eta osasunari dagokionez lan-baimen baten helburua?

a) Zeregin jakin batzuk egin behar direnean, arrisku berezia dutelako. Arrisku handiagoko jardueretan.
b) Arrisku espezifikoak dituzten eremuetan langile propioen edo kanpokoen presentzia erregistratzea.
c) Erakundearen barruan ohikoak ez diren lanak egiteko administrazio-baimena ematea.
d) Arriskuen ebaluazioa ordezkatzea Laneko Segurtasun eta Osasuneko arduradunaren baimen puntual baten bidez.

103. Osalanen Enpresan Laneko Arriskuen Prebentziorako plan bat ezartzeko eskuliburuaren arabera, zer EZ dago langile berri bat sartzeko harrera-planaren barruan?

a) Enpresaren arrisku orokorrak eta prebentzio-neurriak.
b) Enpresaren prebentzio-politika.
c) Erakundearen ordainsarien eta pizgarrien politika.
d) Larrialdi-plana.

104. Osakidetzako erregistroak kontrolatzeko prozeduraren arabera, hauetako zein EZ da erregistro gisa definitzen?

a) Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketa Sistemako prozedurak.
b) Osakidetzako Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren formatuetatik sortzen den dokumentua.
c) Lortutako emaitzen ebidentziak ematen dituen kanpo-jatorriko dokumentua.
d) Egindako jarduerak egiaztatzen dituen dokumentua.

105. Osakidetzako Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren dokumentazioa kudeatzeko prozeduraren arabera, baieztapen hauetatik zein EZ da zuzena?

a) Prozedurak Giza Baliabideen Zuzendaritzak prestatzen ditu eta Zuzendaritza Nagusiak onartzen ditu.
b) Sistemaren eskuliburua Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzua koordinatzen duen pertsonak prestatzen du eta Zuzendaritza Nagusiak onartzen du.
c) Protokoloak Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzua koordinatzen duen pertsonak prestatzen ditu eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak onartzen ditu.
d) Laneko Arriskuen Prebentziorako Politika Zuzendaritza Nagusiak prestatzen du eta Zuzendaritza Nagusiak onartzen du.

106. Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuaren arabera, zer elementu sartzen da “lantokien” kontzeptuaren barruan?

a) Higiene-zerbitzuak, atseden-lokalak, lehen sorospenetarako lokalak eta jantokiak.
b) Eraikitako espazioak soilik, kanpoko eremuak baztertuta.



c) Ekoizpen-postuak bakarrik, eremu komunak baztertuta.
d) Bulegoak bakarrik, tailerrak eta biltegiak baztertuta.

107. Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuaren arabera, elektrizitate estatikoagatiko arriskua dagoen lantokietan, airearen hezetasun erlatiboa honako hauen artean egongo da:

a) % 20 eta % 30.
b) % 30 eta % 70.
c) % 30 eta % 50.
d) % 50 eta % 100.

108. Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuaren arabera, bulegoko lan sedentarioak edo antzekoak egiten diren lokal batean tenperatura honako hau izango da:

a) 17 eta 27 ºC-koa.
b) 19 eta 26 ºC-koa.
c) 14 eta 25 ºC-koa.
d) 16 eta 26 ºC-koa.

109. Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuaren arabera, lantokien gutxieneko neurriei dagokienez, adierazi zein den konbinazio zuzena:

a) 3 m-ko altuera (2,5 m bulegoetan), langile bakoitzeko 2 m²-ko azalera librea eta langile bakoitzeko okupatu GABEKO 10 m³.
b) Kasu guztietan 2,5 m-ko altuera eta 8 m³ langile bakoitzeko.
c) 3 m-ko altuera eta 1 m²-ko azalera librea langile bakoitzeko.
d) 2 m-ko altuera eta 12 m³ langile bakoitzeko.

110. Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuaren arabera, zein da 12 metroko luzera duen arrapala baten gehieneko malda onartua?

a) Ehuneko 12.
b) Ehuneko 10.
c) Ehuneko 8.
d) Ehuneko 6.

111. Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuan, zerbitzukoak EZ diren eskaileren kasuan, zer maila-neurri eskatzen dira?

a) Mailagaina 23 eta 36 cm artekoa; kontramaila 13 eta 20 cm artekoa.
b) Mailagaina gutxienez 15 cm; kontramaila gehienez 25 cm.



c) Mailagaina 18 eta 28 cm artekoa; kontramaila 10 eta 18 cm artekoa.
d) Mailagaina askea; kontramaila EZ aplikagarria.

112. Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuaren arabera, eskaileretan, eskailera-mailetatik neurtutako altuera libre bertikala EZ da honako hau baino txikiagoa izango:

a) 2,0 metro.
b) 2,2 metro.
c) 2,4 metro.
d) 2,6 metro.

113. Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen 486/1997 Errege Dekretuaren II. eranskineko ordenari, garbitasunari eta mantentze-lanei buruzko baieztapen hauetatik, zein da OKERRA?

a) Pasabideak, irteerak eta zirkulazio-bideak oztoporik gabe egongo dira.
b) Lantokiak, zerbitzu-lokalak eta ekipamenduak eta instalazioak barne, egunero garbitu beharko dira.
c) Garbiketa-lanak ez dira, berez, langileentzako arrisku-iturri izan behar.
d) Aireztapen-instalazioak funtzionamendu-egoera onean mantendu beharko dira.

114. Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen 486/1997 Errege Dekretuaren arabera, ate eta atari mekanikoei dagokienez, adierazi aukera zuzena:

a) Arriskurik gabe funtzionatu behar dute, larrialdiko gelditze-gailu identifikagarri eta irisgarriekin, eta eskuz ireki ahal izango dira, matxura batean automatikoki ireki ezean.
b) Ez dute larrialdiko gelditze-gailurik behar fotozelulak badituzte.
c) Baliteke eskuz ez irekitzea, mantentze-lanetarako langileak badaude lanean.
d) Ez da beharrezkoa gelditze-gailuak identifikatzea.

115. Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen 486/1997 Errege Dekretuaren arabera, ohiko erabilera duten eremu edo lokaletako gutxieneko argiztapen-mailak, erorikoak edo talkak gertatzeko arrisku nabarmenak daudenean, honako hauek dira:

a) 25 lux-ekoak.
b) 50 lux-ekoak.
c) 100 lux-ekoak.
d) 200 lux-ekoak.

116. Laneko segurtasun- eta osasun-seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 485/1997 Errege Dekretuaren definizioen arabera, zer ulertzen da abisu-seinaletzat?

a) Arrisku batez ohartarazten duen seinale bat.
b) Ekipo edo instalazio bat segurtasunez erabiltzeko jarraibideak ezartzen dituen seinalea.
c) Jokabide jakin bat derrigortzen duen seinalea.
d) Arriskua eragin dezakeen jokabide bat debekatzen duen seinalea.

117. Laneko segurtasun- eta osasun-seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 485/1997 Errege Dekretuaren arabera, aukera hauetako zeinek deskribatzen du zuzen argi-seinale bat?

a) Giza ahotsaren esku-hartzerik gabeko seinale akustiko kodifikatua.
b) Panela duen seinale batean erabilitako egoera bat deskribatzen duen irudia.
c) Atzetik edo barrutik argiztatutako material garden edo erdi-gardenak dituen gailu batek igorritako seinalea.
d) Maniobra arriskutsuak gidatzeko beso edo eskuen mugimendu kodifikatua.

118. Laneko segurtasun- eta osasun-seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 485/1997 Errege Dekretuaren 4. artikuluaren arabera, honako egoeretatik zeinek behartzen du segurtasun- eta osasun-seinaleak erabiltzera?

a) Langileen prestakuntza nahikoa denean arrisku guztiak ezabatzeko.
b) Babesteko edo ebakuatzeko premiazko neurriak eskatzen dituen larrialdi-egoera baten aurrean langileak ohartarazi behar direnean.
c) Seinalizazioak babes kolektiboko neurriak ordezka ditzakeenean.
d) Segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusirik ez duten mezu informatiboak transmititu nahi direnean.

119. Laneko segurtasun- eta osasun-seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 485/1997 Errege Dekretuaren arabera, seinaleztapenaren ordezko izaerari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Seinalizazioak antolamendu-neurriak ordezka ditzake, neurri horiek bideragarriak ez direnean.
b) Seinalizazioak langileen prestakuntza eta informazioa ordezka ditzake, argia bada.
c) Seinalizazioa erabili behar da, nahiz eta arriskuak erabat ezabatu.
d) Seinaleztapena ez da babes kolektiborako neurri teknikoen edo antolaketa-neurrien ordezkotzat hartu behar, ezta prestakuntzaren eta informazioaren ordezkotzat ere.



120. Laneko segurtasun- eta osasun-seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 485/1997 Errege Dekretuaren VII. eranskinaren arabera, langileak eurentzat edo hirugarrenentzat arriskutsuak izan daitezkeen maniobretan orientatzea edo gidatzea xede duen seinaleztapena honela egingo da (adierazi erantzun zuzena):

a) Keinu-seinaleak edo ahozko komunikazioak.
b) Panel formako seinaleak..
c) Segurtasun-koloreak.
d) Seinale akustikoak.

121. Laneko segurtasun- eta osasun-seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 485/1997 Errege Dekretuan, segurtasun-seinalizazioan, zein da kolore horiaren (edo hori laranjatuaren) esanahi orokorra?

a) Betebeharra.
b) Debekua.
c) Abisua: arreta edo zuhurtzia.
d) Babesa edo segurtasun-egoera.

122. Laneko segurtasun eta osasun-seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 485/1997 Errege Dekretuaren arabera, panel formako debeku-seinaleetan, azaleraren zer ehuneko izan behar da gutxienez kolore gorriak?

a) % 50.
b) % 35.
c) % 25.
d) % 75.

123. Laneko segurtasun eta osasun-seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 485/1997 Errege Dekretuaren arabera, zein da argi-seinale keinukarien eta jarraituen erabiltzeari dagokionez arau zuzena?

a) Seinale jarraituak keinukariak baino premia handiagoa adierazten du.
b) Nahasmena eragin dezaketen bi argi-seinale aldi berean erabili daitezke.
c) Keinukariak arrisku-maila handiagoa edo eskatutako ekintzaren premia handiagoa adierazten du.
d) Distiren maiztasunak seinale jarraituekin nahastea ahalbidetu behar du.

124. Zein da "norbera babesteko ekipamenduaren" definizioa, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Lanpostuan dauden arriskuak zaintzeko eta seinaleztatzeko gailua.
b) Langilearen segurtasuna edo osasuna arriskuan jar dezakeen arrisku batetik edo batzuetatik babesteko langileak eraman edo eusten duen edozein ekipamendu, bai eta xede horretarako erabiltzen den edozein osagarri edo gehigarri ere.



c) Makinetan edo lantokietan instalatutako babes kolektiboen multzoa.
d) Langileak begiz identifikatzeko janzkera korporatiboa.

125. Norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuan, norbera babesteko ekipamenduaren definiziotik zein elementu BAZTERTZEN da?

a) Talken aurkako aurpegiko babesak.
b) Elektrizitatearen aurkako eskularru isolatzaileak.
c) Laneko arropa arrunta eta langilearen osasuna edo osotasun fisikoa berariaz babesteko ez diren uniformeak.
d) Objektuen erorketetatik babesteko kaskoak.

126. Norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren 2.2 artikuluaren arabera, adierazi zein materialek EZ duen norbera babesteko ekipamenduaren izaera:

a) Arnasa babesteko ekipamendu iragazleak.
b) Soldadura-pantailak.
c) Babes kimikoko arropa.
d) Arriskuak eta eragozpen-faktoreak detektatu eta seinaleztatzeko gailu eramangarriak.

127. Norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren arabera, adierazi zein kasutan den egokia norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea:

a) Antolaketa-neurrien bidez erabat ezaba daitezkeen arriskuak daudenean.
b) Babes kolektiboko bitartekoen bidez edo lana antolatzeko neurri, metodo edo prozeduren bidez behar bezala saihestu edo mugatu ezin izan diren arriskuak daudenean.
c) Langileak eskatzen duen bakoitzean, arriskuen ebaluazioa kontuan hartu gabe.
d) III. eranskineko jardueretan soilik, modu automatiko eta iraunkorrean.

128. Norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren 4. artikuluaren arabera, non jaso behar dira norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea justifikatzen duten inguruabarrak?

a) Urteko prestakuntza-planean.
b) Mantentze-lanetako barne-eskuliburuan.
c) Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 23. artikuluan aurreikusitako dokumentazioan.
d) Erantzukizun sozial korporatiboaren memorian.



129. Hainbat arriskuk norbera babesteko ekipamendu bat baino gehiago aldi berean erabiltzea eskatzen dutenean, zein baldintza ezartzen du norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuak?

a) Ekipamenduek elkarrekin bateragarriak izan behar dute eta dagozkien arriskuen aurrean duten eraginkortasuna mantendu.
b) Nahikoa da norbera babesteko ekipamendu bakoitzak bere produktu-araudia banaka betetzea.
c) Babes-maila handieneko norbera babesteko ekipamendua lehenesten da, nahiz eta gainerakoak baliogabetu.
d) Ezin dira bi norbera babesteko ekipamendu baino gehiago aldi berean erabili.

130. Norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren arabera, noiz berrikusi behar da Osakidetzak zehaztutako norbera babesteko ekipamenduen ezaugarrien zehaztapena?

a) Norbera babesteko ekipamenduen hornitzailea aldatzen denean soilik.
b) Bost urtean behin, lan-baldintzetan aldaketarik ez badago ere.
c) Hautaketa eragin zuten egoeretan eta baldintzetan aldaketak daudenean, norbera babesteko ekipamenduen bilakaera teknikoa eta antolamendukoa eta prestazio funtzionalak kontuan hartuta.
d) Baja eragin duen istripu baten ondoren soilik.

131. Adierazi norbera babesteko ekipamenduen erabilerari eta mantentzeari buruzko arau orokorra, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren 7.1 artikuluaren arabera:

a) Aurreikusi gabeko erabileretarako erabil daitezke, agintea duen pertsonak horretarako baimena ematen badu.
b) Nahikoa da erabiltzaileak aurretik duen esperientzia jarraitzea.
c) Fabrikatzailearen jarraibideen arabera erabili behar dira; salbuespenezko kasu berezietan izan ezik, aurreikusitako erabileretarako baino ezin izango dira erabili.
d) Enpresaburuak ekipamendua alda dezake zereginera egokitzeko.

132. Norbera babesteko ekipamenduen xedeari dagokionez, zer ezartzen du norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren 7.3 artikuluak?

a) Nahitaez kolektiboak izan behar dute.
b) Neurri osagarririk gabe erabiltzaileen artean libreki parteka daitezke.
c) Erabilera bakoitzaren ondoren baztergarriak izan behar dute.
d) Printzipioz, erabilera pertsonalerako dira; pertsona batek baino gehiagok erabiltzen baditu, osasun- edo higiene-arazoak saihesteko neurriak hartuko dira.

133. Zein kasutan antolatu behar ditu enpresaburuak norbera babesteko ekipamenduen erabilerarako entrenamendu-saioak, Norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren 8.3 artikuluaren arabera?

a) Norbera babesteko ekipamendu berria erosten denean soilik.
b) Langileek gehiengoz eskatzen dutenean.
c) Bereziki, norbera babesteko ekipamendu bat baino gehiago aldi berean erabili behar direnean, eta horien konplexutasun bereziak hala eskatzen duenean.
d) Istripu baten jakinarazpenaren ondoren soilik.

134. Zein da langilearen berariazko betebeharra norbera babesteko ekipamenduei dagokienez, Norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren 10. artikuluaren arabera?

a) Bere babes-eraginkortasunari eragin diezaioketen akatsen edo kalteen berri berehala ematea.
b) Anomaliak hautematen dituenean bere kabuz konpontzea.
c) Galerak saihesteko etxean gordetzea.
d) Beharrezkoa denean norbera babesteko ekipamendua hirugarrenei uztea.

135. Norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren II. eranskinean aipatzen diren krema eta barrera-lozioei dagokienez, adierazi zein den baieztapen zuzena:

a) Ez dira norbera babesteko ekipamendutzat hartzen inolaz ere.
b) Egoera jakin batzuetan norbera babesteko ekipamendutzat har daitezke 89/656/EEE Zuzentarauaren esparruan osagarri edo gehigarri gisa, baina ez dira norbera babesteko ekipamendutzat hartzen (EB) 2016/425 Erregelamenduaren 3.1 artikuluaren arabera.
c) Kanpoan egiten diren lan guztietan derrigorrezko norbera babesteko ekipamenduak dira.
d) Arrisku mekanikoen aurka soilik babesten dute.

136. Lan-ekipoak erabiltzeari buruzko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren arabera, zein aginduk du lehentasuna pertsona batek osasun-zentro bateko lan-ekipo baten aginteak eragiten dituenean?

a) Lan-ekipoa gelditzeko aginduak lehentasuna du abiarazteko aginduen aurrean.
b) Abiarazteko aginduak lehentasuna du gelditzeko aginduaren aurrean.
c) Bi aginduek lehentasun bera dute.
d) Lehentasuna fabrikatzailearen araberakoa da, eta ez arau-esparruaren araberakoa.

137. Lan-ekipoak erabiltzeari buruzko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren arabera, noiz da nahitaezkoa lan-ekipo batean larrialdiko gelditze-gailu bat instalatzea?

a) Beti, salbuespenik gabe, edozein lan-ekipamendutan.

b) Ekipamenduak dituen arriskuen eta gelditze-denbora normalaren arabera beharrezkoa denean.
c) Fabrikatzailearen eskuliburuak eskatzen badu soilik.
d) Langileak garraiatzen dituzten ekipamendu mugikorretan bakarrik.

138. Lan-ekipoak erabiltzeari buruzko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren arabera, zer da "lan-ekipoa" ospitale-testuinguruan?

a) CE markadura duten makinak soilik.
b) Lanean erabiltzen den edozein makina, aparatu, tresna edo instalazio.
c) Energia eraldatzen duten gailuak soilik.
d) Eraikinaren instalazio finkoak bakarrik.

139. Lan-ekipoak erabiltzeari buruzko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren arabera, ospitaleetan luminariak mantentzeko erabiltzen diren guraize-eskailerei dagokienez, zein baldintza espezifiko eskatzen da?

a) Gas-egonkortzaileak izatea.
b) I klaseko material isolatzailekoa izatea.
c) Gehienez 65 graduko inklinazioa izatea.
d) Erabiltzean irekitzea eragozten duten segurtasun-elementuak izatea.

140. Lan-ekipoak erabiltzeari buruzko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren arabera, zer egiaztapen dokumentatu eskatzen zaizkio osasun-zentro batean berriki instalatutako lan-ekipo bati?

a) Ez da egiaztapenik behar; fabrikatzailearen markadura nahikoa da.
b) Hasierako egiaztapena, instalatu ondoren eta lehen erabilera baino lehen; egiaztapen periodikoak eta egiaztapen gehigarria, ezohiko gertaeren ondoren, dokumentatuta eta gordetako emaitzekin.
c) Kanpoko erakunde batek egindako urteko egiaztapena soilik.
d) Estankotasun-proba bost urtean behin, bestelako baldintzarik gabe.

141. Lan-ekipoak erabiltzeari buruzko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren arabera, zer erabaki hartu behar da ekipo batek segurtasuna arriskuan jartzen duen narriadura badu?

a) Erabiltzeari uztea.
b) Zaintzapean erabiltzen jarraitzea.
c) Potentzia % 50era murriztea.
d) "Kontuz" jartzen duen kartel batekin seinaleztatu eta erabiltzen jarraitzea.

142. Lan-ekipoak erabiltzeari buruzko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren arabera, nork gida ditzake lan-ekipo automotorrak ospitale batean?

a) B motako baimena duen edozein langilek.



b) Ekipo horiek modu seguruan gidatzeko prestakuntza espezifikoa jaso duten langileak bakarrik.
c) Mantentze-lanetako langileak soilik.
d) Hiru hilabeteko esperientzia duten langileak.

143. Lan-ekipoak erabiltzeari buruzko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren arabera, noiz da onargarria esku-eskailera altuerako lanpostu gisa erabiltzea osasun-zentro batean?

a) Beste irtenbiderik ez dagoenean.
b) Langileak arnesa daramanean.
c) Arrisku maila txikia denean eta kokalekuaren ezaugarriak aldatu ezin direnean, ekipamendu seguruagoak erabiltzea justifikatzen ez denean.
d) Inoiz ez; berariaz debekatuta dago.

144. Ospitaleko fatxaden mantentze-lanetarako sokazko sarbide-tekniketan, zein da lan-ekipoak erabiltzeari buruzko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuak eskatzen duen gutxieneko konfigurazioa?

a) Soka bakarra, korapilo autoblokeatzailearekin.
b) Bi soka, ainguraketa bereri lotuta, arnesik gabe.
c) Bi soka, euste independentearekin (lana eta segurtasuna), segurtasun-sokari konektatutako arnesarekin eta blokeoa duten igotzeko/jaisteko gailuekin.
d) Soka bat eta bizi-lerro horizontala.

145. Lan-ekipoak erabiltzeari buruzko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren arabera, zer muga dago 3,5 metrotik gorako altuerako eskailera-lanak egiteko ospitale batean?

a) Bi pertsonak egin behar dituzte beti.
b) Erorikoen aurkako norbera babesteko ekipamenduak edo ordezko neurriak behar dituzte, egonkortasunerako arriskutsuak diren mugimenduak edo ahaleginak dakartzatenean.
c) Barrualdean debekatuta daude.
d) Perimetroko seinaleztapena baino ez da behar.

146. Lan-ekipoak erabiltzeari buruzko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren arabera, ospitaleko obretan, noiz da nahitaezkoa aldamioak muntatu, erabili eta desmuntatzeko plan bat egitea?

a) 12 metrotik gorako altuera dutenean bakarrik.
b) 4.3.3 atalean jasotako kasuetan (maila aldakorreko plataforma esekiak, aurrefabrikatuak >6 m, kanpokoak >24 m, dorreak >6 m), fabrikatzailearen jarraibideak ordeztu ezean CE marka duten ekipoetan eta aurreikusitako baldintzetan.
c) Zuzendaritza fakultatiboak eskatzen duenean soilik.
d) Aldamioa kanpoan dagoenean beti.

147. Lan-ekipoak erabiltzeari buruzko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren arabera, nork ikuskatu behar ditu ospitaleko eraberritze batean erabilitako aldamioak?

a) Unibertsitateko edo lanbide-prestakuntzako titulazioa duen pertsonak, zerbitzuan jarri aurretik, aldizka eta erresistentzian edo egonkortasunean eragina izan dezaketen egoeren ondoren.
b) Esperientzia duen edozein arduradunek.
c) Enpresa-jarduerak koordinatzen dituen pertsonak.
d) Lan-arriskuen prebentzioko oinarrizko mailako teknikari batek.

148. Arrisku elektrikoari buruzko ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretuan, tentsioa kentzeko prozesuaren arabera, zein etapak jarraitzen dio gerta daitekeen edozein berrelikadura prebenitzeari?

a) Lur-konexioa eta zirkuitulaburrekoa.
b) Tentsiorik ez dagoela egiaztatzea.
c) Hurbileko tentsio-elementuetatik babestea eta seinaleztatzea.
d) Deskonektatzea.

149. Arrisku elektrikoari buruzko ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretuaren arabera, zer eragiketa egin daiteke behe-tentsioko instalazioan tentsiopean, oinarrizko eragiketa gisa?

a) Fusibleak ordeztea, edozein baldintzatan.
b) Kargan dauden ebakigailuak irekitzea, berariazko prozedurarik gabe.
c) Publikoak berehala eta arriskurik gabe erabiltzeko diseinatutako materiala erabiliz konektatzea eta deskonektatzea, fabrikatzailearen ohiko prozedurari jarraituz.
d) Eroale biluziak konpontzea arrisku-eremutik gertu.

150. Zer definitzen du arrisku elektrikoari buruzko ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretuak tentsio-lan gisa?

a) Langilea tentsioan dauden elementuekin harremanetan jartzen denean edo gorputzarekin edo manipulatzen dituen tresnekin/ekipoekin arrisku-eremuan sartzen denean egiten duen lana.
b) Kontrol-gelatik ebakigailuekin maniobrak egiten diren lana.
c) Neurketa-ekipo eramangarriak erabiltzen diren edozein lan.
d) Seinaleztatutako eremuetan egindako lana, instalazioa tentsiorik gabe egon arren.

151. Arrisku elektrikoari buruzko ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretuaren arabera, zein aukera EZ da instalazio bat tentsiorik gabe uzteko bost etapetako bat?

a) Tentsiorik ez dagoela egiaztatzea.
b) Isolamendu elektrikoaren saiakuntzak egitea.
c) Lur-konexioa eta zirkuitulaburrekoa egitea.
d) Tentsioan dauden hurbileko elementuetatik babestea eta seinaleztapena ezartzea.



152. Arrisku elektrikoari buruzko ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretuaren arabera, goi-tentsioko instalazioetan, nork egin behar ditu neurketak, saiakuntzak eta egiaztapenak?

a) Langile kualifikatuek, baimendutako langileen laguntza izan dezakete, betiere haien gainbegiratze eta kontrolpean.
b) Prebentzioko oinarrizko prestakuntza duen edozein langilek.
c) Izendatutako lan-arduradunak bakarrik.
d) Enpresaburuaren baimenik gabeko kanpoko profesionalek.

153. Goi-tentsioko aireko lineetan eroaleak moztu gabe egiten diren lan espezifikoetan, zer salbuespen onartzen du arrisku elektrikoari buruzko ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretuaren II. eranskinak lur-konexioei dagokienez?

a) Lur-konexio guztiak kentzea, etengabeko zaintza badago.
b) Lur-konexioak lerroaren muturretan bakarrik jartzea.
c) Lurreko konexiorik gabeko zubi ekipotentzial bat instalatzea.
d) Lan-eremuan lur-konexioko eta zirkuitulaburreko ekipo bakarra instalatzea.

154. Tentsiopeko lanen prozedurari dagokionez, zein aurretiko baldintza ezartzen du arrisku elektrikoari buruzko ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretuak?

a) Txandaren hasieran ahoz prestatzea.
b) Tentsio murriztuarekin beti entseatzea.
c) Aurrez aztertutako prozedura bati jarraitzea, eta haren konplexutasunak edo berritasunak hala eskatzen duenean, tentsiorik gabe entseatzea.
d) Mantentze-arduradunak soilik onartzea, dokumentaziorik gabe.

155. Arrisku elektrikoari buruzko ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretuaren arabera, behe-tentsioan, noiz alda ditzake fusibleak baimenik gabeko langile batek (EZ du zertan kualifikatua izan)?

a) Lanaren arduradunaren aurrean egiten duenean.
b) Onartutako larrialdi-plan bat dagoenean.
c) Fusible-gailuaren maniobrak fusiblea deskonektatzea dakarrenean eta materialak kontaktu zuzenen eta gerta daitekeen arku elektriko baten efektuen aurkako babes osoa eskaintzen duenean.
d) 0 klaseko eskularru isolatzaileak erabiltzen baditu.

156. Arrisku elektrikoari buruzko ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretuaren arabera, neurketetan, saiakuntzetan eta egiaztapenetan, aurretik instalatutako lur-hartzeren bat kendu behar bada, zer bermatu behar da?

a) Instalazioa ustekabean berriro elikatzea saihesteko beharrezko neurriak hartzea.
b) Saiakuntza-tentsioa areagotzea, erretiratzea konpentsatzeko.
c) Lur-ebakigailua behin betiko blokeatzea.
d) Informazio-karten bidez seinaleztatzea, bestelako neurririk gabe.

157. Arrisku elektrikoari buruzko ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretuaren arabera, goi-tentsioko hurbiltasun-lan bat egin baino lehen, nork zehaztu behar du horren bideragarritasuna?

a) Gutxienez sei hilabeteko esperientzia duen langile baimendu batek.
b) Langile kualifikatu batek.
c) Instalazioaren titularrak.
d) Lantokiko edozein bitarteko arduradunek.

158. Hartutako neurriak gorabehera, arrisku-eremuak irisgarri izaten jarraitzen badute, zer eskatzen du arrisku elektrikoari buruzko ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretuaren V. eranskinak lan-eremuari dagokionez?

a) Esparruko sarrera nagusia soilik seinaleztatzea.
b) Norbera babesteko ekipamendu dielektrikoen hornidura handitzea.
c) Tentsiorik gabeko lanak soilik egitea.
d) Arrisku-eremu bakoitzaren lan-eremua material egokiarekin mugatzea.

159. Nola definitzen da hurbiltasun-eremua arrisku elektrikoari buruzko ekainaren 8ko 614/2001 Errege Dekretuaren I. eranskinean?

a) Mantentze-lanetako langileentzako eremu erreserbatua.
b) Hesi fisiko iraunkorrez mugatutako eremua.
c) Beti arku elektrikoa dagoen gunea.
d) Arrisku-eremuaren inguruan mugatutako espazioa, langileak ustekabean arrisku-eremu hori inbaditu ahal izan dezan.

160. Eraikuntza-obrei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, noiz izendatu behar du sustatzaileak segurtasun eta osasun arloko koordinatzailea obra gauzatzen den bitartean?

a) Betiere kontratista bakarra dagoenean.
b) Obrak 30 lanegun baino gehiago irauten duenean bakarrik.
c) Obren gauzatzerakoan enpresa bat baino gehiagok, edo enpresa batek eta langile autonomoek, edo hainbat langile autonomok esku hartzen dutenean.
d) Aurrekontuak atalase ekonomiko bat gainditzen duenean soilik.

161. Eraikuntza-obrei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, zer ondorio du koordinatzaileen izendapenak sustatzailearen erantzukizunei dagokienez?

a) Erantzukizun osoa proiektugileari transferitzen dio.
b) Kontratu-alderdietara mugatzen du.
c) Zuzendaritza fakultatiboarekin erantzukizuna erdibana partekatzen du.
d) Ez du sustatzailea bere erantzukizunetatik salbuesten.



162. Eraikuntza-obrei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, ondorengo kasuetatik zeinek behartzen du proiektu-fasean segurtasun eta osasun azterketa bat egitera?

a) 30 lanegunetik gorako iraupena izatea eta une jakin batean 20 langile baino gehiago aldi berean aritzea.
b) 5 milioi eurotik beherako aurrekontua izatea.
c) 500 lanaldi baino gutxiagoko lan-bolumena izatea.
d) Barruko tabikatze-lana izatea..

163. Eraikuntza-obrei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 4.1 artikuluan jasotako kasuetan sartzen EZ diren proiektuetan, zer dokumentu egin behar da proiektu-fasean?

a) Prebentzio-plana.
b) Ingurumen-baldintzen agiria.
c) Segurtasun eta osasunari buruzko oinarrizko azterketa.
d) Eraikinaren erabilera eta mantentze-eskuliburua.

164. Eraikuntza-obrei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, zer kasutan ager daitezke segurtasun eta osasuneko azterlanaren aurrekontuan oroharreko partidak?

a) Aurreikusteko zailak diren elementu edo eragiketetarako soilik.
b) Kontratistak hala eskatzen duen bakoitzean.
c) Norbera babesteko ekipamenduei dagokienean.
d) Gastu orokorretarako eta industria-irabazietarako.

165. Eraikuntza-obrei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, nork onartu behar du segurtasun- eta osasun-plana obra hasi aurretik?

a) Enpresa sustatzaileak.
b) Obraren exekuzioan segurtasun eta osasun arloko koordinazioaz arduratzen den pertsonak; halakorik ez badago, zuzendaritza fakultatiboak.
c) Kanpoko prebentzio-zerbitzuak.
d) Kontratista bakoitzaren prebentzio-baliabideak.

166. Eraikuntza-obrei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, zein da obra batean langile autonomoen berariazko betebehar bat?

a) 1215/1997 Errege Dekretuarekin bat datozen lan-ekipamenduak erabiltzea eta 773/1997 Errege Dekretuaren arabera norbera babesteko ekipamenduak aukeratu eta erabiltzea.
b) Segurtasun eta osasun-plana onartzea.
c) Segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko azterketa idaztea.
d) Enpresa-jardueren koordinazioa bere gain hartzea.



167. Eraikuntza-obrei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, nork ematen du gertakari liburua?

a) Segurtasun- eta osasun-plana onartu duen teknikariaren lanbide-elkargoak.
b) Segurtasun eta osasun koordinazioaren ardura duen pertsonak..
c) a) eta d) zuzenak dira.
d) Proiektuak gainbegiratzeko bulegoa edo administrazio publikoetako obretako organo baliokidea.

168. Eraikuntza-obrei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, nork erabaki dezake obra-atalak edo obra osoa geldiaraztea, arrisku larria eta berehalakoa dagoenean?

a) Enpresa sustatzaileak soilik.
b) Lan-agintaritzak bakarrik.
c) Kontratista nagusiak soilik.
d) Exekuzio-faseko koordinatzaileak edo zuzendaritza fakultatiboko edozein kidek.

169. Eraikuntza-obrei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, obran ari diren langileei eman beharreko informazioari dagokionez, zein baldintza bete behar da?

a) Eragindako langileentzat ulergarria izan behar du.
b) Idatziz bakarrik eman behar da.
c) Obra hasi aurretik soilik eman behar da.
d) Kontratista nagusiaren arriskuetara mugatu behar da.

170. Eraikuntza-obrei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, lantokiaren irekieraren jakinarazpenari dagokionez, zein aukera da zuzena?

a) Sustatzaileak aurkeztuko du eta ez du plana erantsiko.
b) Azpikontratista orok aurkeztuko du, langile propioak baditu.
c) Esku hartzan duten alderdi guztiek aurkeztuko dute eta azterketa erantsi beharko dute.
d) Kontratista izaera duten enpresaburu edo enpresariek soilik aurkeztuko dute, eta segurtasun- eta osasun-plana erantsiko dute.

171. Eraikuntza-obrei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, eraikuntza-obretan prebentzio-baliabideen presentziari dagokionez, zer zehazten du segurtasun- eta osasun-planak?

a) Presentzia hori gauzatzeko modua.
b) Koordinatzaileak daudenean, berten egoteko betebeharra kentzea.
c) Zinpeko zaintzaz ordezkatzea.
d) Presentzia sustatzaileari esleitzea.

172. Zer ulertzen da lantoki gisa, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren ondorioetarako?

a) Enpresaren eraikin nagusia soilik.
b) Makineria duten gune itxiak bakarrik.
c) Edonolako eremua, eraikia izan ala ez, baldin eta langileek beren lanaren ondorioz sartu edo bertan egon behar badute.
d) Aire zabaleko espazioak baztertzen ditu.

173. Enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, nor hartzen da enpresa nagusitzat?

a) Bere lantokian garatzeko, bere jarduera propioari dagozkion obrak edo zerbitzuak kontratatzen edo azpikontratatzen dituena.
b) Eraikinaren beheko solairua okupatzen duena.
c) Kontrata bateko akzio guztien jabe dena.
d) Higiezinaren edozein errentatzaile.

174. Enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, nori aplikatzen zaio lantoki berean lan-arriskuen prebentzioan lankidetzan aritzeko betebeharra?

a) Zuzeneko kontratu-harremana duten enpresei soilik.
b) Parte hartzen duten enpresa eta langile autonomo guztiei, haien artean legezko harremanik egon ala ez.
c) 50 langile baino gehiago dituzten enpresei bakarrik.
d) Enpresa titularrari soilik.

175. Enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, enpresek noiz eman behar diote elkarri informazioa beste enpresetako langileei eragin diezaieketen arrisku espezifikoei buruz?

a) Istripu bat gertatu ondoren soilik.
b) Jarduerak amaitzean bakarrik.
c) Jarduerak hasi aurretik, aldaketa garrantzitsuak daudenean eta larrialdi-egoeretan; idatziz, arriskuak larriak edo oso larriak badira.
d) Sei hilean behin.

176. Enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, zer hartu behar dute kontuan enpresaburuek beren prebentzio-ebaluazioan eta -plangintzan konkurrentzia kasuetan?

a) Jarduerak batera egiteagatik sortzen edo larriagotzen diren arrisku propioak.
b) Sektoreko arrisku orokorrak bakarrik.
c) Enpresa titularraren arriskuak soilik.
d) Lantokitik kanpoko arriskuak bakarrik.



177. Zer egin behar dute batera aritzen diren enpresek lantokiaren titularraren argibideei dagokienez, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren arabera?

a) Zentro arteko batzordearekin negoziatu.
b) Horiek bete.
c) Beren barne-prozeduren mende jarri.
d) Kontratuan jasota ez badaude, ezikusiarena egin.

178. Nori aplikatzen zaizkio enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren 9. artikuluan jasotako neurriak enpresa titularra duten zentroetan?

a) Idatzizko kontratua duten enpresei.
b) 25 langiletik gorako enpresei bakarrik.
c) Besteren kontura lan egiten duten langileei soilik.
d) Zentroan jarduerak garatzen dituzten enpresa eta langile autonomo guztiei, legezko harremanik egon ala ez.

179. Enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, noiz eguneratu behar dira ezarritako koordinazio-bitartekoak?

a) Urtero.
b) Bost urtean behin.
c) Helburuak betetzeko egokiak ez direnean.
d) Enpresa titularra aldatzen denean soilik.

180. Enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, zer informazio gehigarri eman behar zaie langileei koordinazio-bitartekoak espezifikoak direnean?

a) ISO 45001 kalitate-politika.
b) Norbera babesteko ekipamenduen inbentario osoa.
c) Prebentzioaren urteko memoria.
d) Presente dauden prebentzio-baliabideak edo koordinazioaz arduratzen den pertsona edo pertsonak identifikatzeko beharrezko datuak.

181. Enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, nork izendatzen du prebentzio-jarduerak koordinatzeko ardura duen pertsona edo pertsonak?

a) Fakturaziorik handiena duen enpresa kontratistak.
b) Lan Ikuskaritzak.
c) Lantokiaren enpresaburu titularrak, bertan diharduten langileak baldin baditu.
d) Enpresa sustatzaileak.



182. Enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, zein gutxieneko prestakuntza izan behar du prebentzio-jarduerak koordinatzeko ardura duen pertsonak?

a) Oinarrizko maila prebentzioan.
b) Gaur egun, Lan Arriskuen Prebentzioko unibertsitate-masterra.
c) Gutxienez, maila ertaineko funtzioei dagokien prebentzio-prestakuntza.
d) Laneko medikuntzako espezialitatea.

183. Enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaen 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, noiz egon behar du koordinazioko arduradunak lantokian?

a) Titularraren lanaldi osoan.
b) Larrialdietan soilik.
c) Proiektua abiatzean bakarrik.
d) Bere eginkizunak betetzeko behar den denboran.

184. Enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, noiz jakinaraziko zaie obren edo zerbitzuen kontratazioari buruzko informazioa prebentzio-ordezkariei edo, hala badagokio, langileen legezko ordezkariei?

a) Obra edo zerbitzuak egiteko kontratua hitzartzen denean, Langileen Estatutuan aurreikusitako baldintzetan.
b) Obra publikoetan bakarrik.
c) Kontratuak urtebetetik gorako iraupena badu soilik.
d) Idatziz eskatzen dutenean.

185. Enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ondoko aukeretatik zein EZ da enpresa titularraren prebentzio-ordezkarien ahalmena konkurrentzia kasuetan?

a) Lan Ikuskaritzako ikuskatzaileei bisitetan laguntzea.
b) Zentrora bisitak egitea, konkurrentziaren ondoriozko baldintzak zaintzeko eta kontrolatzeko.
c) Zehapen ekonomikoak ezartzea kontratua betetzen ez duten kontratei.
d) Enpresaburuari koordinazio-neurriak har ditzala eskatzea.

186. Zer esparrutan aplikatzen da, oro har, autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretua?

a) Substantzia arriskutsuak erabiltzen dituzten industria-jardueretan soilik.
b) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko jardueretan.
c) Euskadin kokatutako I. eranskineko jarduera guztietan; berariazko araudi sektoriala dagoenean, osagarri gisa aplikatuko da.
d) Osasun-zentro publikoetan soilik.



187. Zein administraziok eska diezaieke autobabes-planak, autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren I. eranskinean jasota EZ dauden jarduerei, arrisku edo zaurgarritasun berezia dagoenean?

a) Estatuko Administrazio Orokorrak soilik.
b) Polizia propioa duten udalek bakarrik.
c) Foru-aldundiek soilik.
d) Eskumena duten administrazio publikoek, arrisku edo zaurgarritasun berezia ikusten dutenean.

188. Autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren arabera, zer egin behar da autobabes-planarekin behin sortuta dagoenean?

a) Barne artxiboan gorde eta ikuskapena badago soilik aurkeztu.
b) Zentroko iragarki-taulan argitaratu.
c) Lan-osasuneko departamentuari soilik bidali.
d) Lizentzia emateko eskumena duen organoari jakinarazi eta datuak Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorrera bidali.

189. Zer prestakuntza-betebehar ezartzen du autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuak zentroko langileentzat?

a) Administrazioak homologatutako prestakuntza ematea langile guztiei.
b) Esku hartzeko taldea prestatzea eta gainerako langileak kartelen bidez informatzea.
c) Langileei autobabes-planaren edukiei buruzko informazioa eta prestakuntza ematea.
d) Prestakuntza borondatez egitea.

190. Autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren arabera, betebeharra duten osasun-zentroetan, zer neurri hartu behar da giza baliabideei eta baliabide materialei dagokienez?

a) Esku-hartze guztia enpresa espezializatuen esku uztea (azpikontratu).
b) Suteetarako ekipamenduak soilik mantentzea.
c) Arriskuei eta larrialdiei aurre egiteko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak mantentzea.
d) Osasun-ekipamenduak soilik mantentzea.

191. Autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren arabera, zer prozedura bermatu behar ditu gutxienez Larrialdietarako Jarduera Planak? Adierazi zein den erantzun OKERRA:

a) Detekzioa eta alerta, alarma,
b) Esku-hartze koordinatua, babesa/ebakuazioa eta laguntza.
c) Informazioa eta kanpoko laguntza eskatu/jaso.
d) Prozedura kliniko asistentzialak.

192. Autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren arabera, zein simulakro jakinarazi behar zaizkio telefonoz SOS Deiak-i egun berean, hasiera eta amaiera adierazita?

a) Guztiak, bulegokoak barne.
b) Suhiltzaileek egiten dituztenak bakarrik.
c) Gauekoak bakarrik.
d) Kanpotik hautematen direnak edo Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren baliabideen partaidetza dutenak.

193. Autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren arabera, zer indarraldi du autobabes-planak eta gehienez zenbatero berrikusi behar da?

a) Hiru urteko indarraldia eta nahitaezko bi urtez behingo berrikuspena.
b) Zehaztu gabeko indarraldia, eta hiru urte baino gehiagokoa izango ez den aldiztotasunarekin berrikusi behar da, edo behar denean.
c) Bost urteko indarraldia eta urteroko berrikuspena.
d) Mugarik gabeko indarraldia eta bost urtean behingo berrikuspena.

194. Zein jakinarazpen espezifiko aurreikusten du autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuak ariketa edo simulakroetarako?

a) Gutun ziurtatu bidez jakinaraztea hamar egun lehenago.
b) IV. eranskineko informazioa duen jakinarazpena, establezimenduaren, titularraren eta ariketaren datuei buruzkoa.
c) Aldizkari ofizialean argitaratzea.
d) Suhiltzaile-etxeko burutzak sinatutako txostena.

195. Zein da “ebakuazioa” hitzaren definizioa autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren arabera?

a) Eraikinaren barruan leku seguru batean geratzeko ekintza.
b) Larrialdi-egoera kontrolatzeko edo ezabatzeko jardueren multzoa
c) Larrialdi batek kaltetutako pertsonak behin-behineko leku seguru batera modu planifikatuan aldatzea.
d) Istripua izan duen pertsona bati emandako berehalako eta behin-behineko arreta.

196. Zer betebehar dute autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren I. eranskineko jardueren zerbitzura dauden langileek autobabesari dagokionez?

a) Segurtasun-langileak badira soilik parte hartzea.
b) Bere pazienteak edo eginkizunak soilik artatzea.
c) Parte hartzeari uko egitea, osasun-langileak ez badira.
d) Planean parte hartzea, bere gaitasunen arabera, eta esleitutako funtzioak bere gain hartzea.



197. Autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuan, honako osasun-jarduera hauetatik zeinek eskatzen du autobabes-plana, araudi sektorial espezifikorik gabeko jardueren katalogoaren arabera?

a) 10 pertsonako okupazioa duten kanpo-kontsultak.
b) Ospitaleratzerik gabeko eta 40 pertsonako okupazioa duen osasun-zentroa.
c) Ospitaleratze-erregimenean edo tratamendu intentsibo edo kirurgikoan zainketak ematen dituzten establezimenduak.
d) Enpresetako lehen sorospenerako botikinak.

198. Autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren arabera, osasun-jardueretarako zer zentrok, establezimenduk edo espaziok izan behar dute autobabeserako plana?

a) Ebakuazio-altuera 28 metro edo gehiagokoa duten osasun-erabilerako establezimenduek, edo 300 pertsona edo gehiagoko edukiera dutenek, edo 2.500 metro koadrotik gorako azalera erabilgarria dutenek.
b) Ospitaleratze-erregimenean edo tratamendu intentsibo edo kirurgikoan mediku-zainketak ematen diren osasun-erabilerako establezimenduek.
c) Ebakuazio-altuera 28 metro edo gehiagokoa duten osasun-erabilerako establezimenduek, edo 500 pertsona edo gehiagoko okupazioa dutenek, edo 2.000 metro koadro baino gehiagoko azalera erabilgarria dutenek.
d) a) eta b) zuzenak dira.

199. Zein administraziok kudeatzen du Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorra, autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren arabera?

a) Euskadiko Gobernu-ordezkaritzak.
b) Foru-aldundiek.
c) Ertzaintzak.
d) Larrialdiei aurre egiteko eta babes zibileko eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Zuzendaritzak.

200. Autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren arabera, erregistro-ondorioetarako, honako elementu hauetatik zein dago "suteetatik babeseko instalazio teknikoen" inbentarioan?

a) Detektagailuak, itzalgailuak, hornitutako sute-ahoak (BIE) eta megafonia publikoko sistemak soilik.
b) Detekzioa eta alarma, pultsadoreak, itzalgailuak, hornitutako sute-ahoak (BIE), hidranteak, zutabe lehorra, itzaltze automatikoa, larrialdietako argiztapena, seinaleztapena, sorgailu elektrikoa/etenik gabeko elikadura-sistema (SAI) eta ponpaketa-sistema/aljibea.
c) Itzalgailuak eta hornitutako sute-ahoak (BIE) bakarrik.
d) Kanpoko hidranteak soilik.



201. Zer harreman dago "alarma" eta "alerta" kontzeptuen artean, autobabesari buruzko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren V. eranskinaren arabera?

a) Sinonimoak dira.
b) Alerta gertatuko denaren probabilitate hurbileko egoera da; alarma argibide zehatz batzuk jarraitzeko ohartarazpena edo seinalea da.
c) Alarma alertaren aurretik gertatzen da.
d) Alertan soinu jarraitua da; alarma, testu-mezua.

202. Zer jaso behar du laneko bide-segurtasunaren arriskuen ebaluazioak, OSALANek argitaratutako Laneko bide segurtasuneko gida praktikoaren arabera?

a) Egunero gidatzen dutenen arriskuak bakarrik.
b) Enpresako ibilgailuak erabiltzearen ondoriozko arriskuak bakarrik.
c) Misioan nahiz in itinere (lanerako joan-etorrietan) gertatzen diren arriskuak, eta oinez edo garraio publikoan joatearekin lotutakoak ere bai.
d) Kalte materialak eragiten dituzten istripuak bakarrik.

203. OSALANek argitaratutako Laneko bide segurtasuneko gida praktikoan, ibilgailuak lan-ekipamendu gisa hartzeari buruzko ondoko betebehar hauetatik, zein da zuzena 1215/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Gidatze eraginkorrari buruzko prestakuntza ematea, erregai-kontsumoa murrizteko.
b) Legez nahitaezkoak ez diren azterketa tekniko gehigarriak egitea enpresako ibilgailu guztietan
c) Ibilgailuak aldizka berritzen direla ziurtatzea, langilearen antzinatasunaren arabera.
d) Lanerako egokitasuna, legea betetzea, mantentze-lanak eta ikuskapenak, kontrolak eta babes-neurriak ziurtatzea.

204. OSALANek argitaratutako Laneko bide segurtasuneko gida praktikoaren arabera, zer egin behar da laneko bide-segurtasunari buruz langileei eman beharreko informazioari eta egin beharreko kontsultei dagokienez?

a) Langileen ordezkariei informazioa eta kontsulta ematea, laneko arriskuen prebentzioan erabiltzen den sistematika berari jarraituz.
b) Informazioa urteko jakinarazpenetara mugatzea.
c) Kontsultak istripu larrien ondoren soilik egitea.
d) Jakinarazpen guztiak Mutualitatearen eskuetan uztea.

205. OSALANek argitaratutako Laneko bide segurtasuneko gida praktikoaren arabera, nola egituratzen da langileen bide-segurtasuneko prestakuntza?

a) Bakarra eta homogeneoa da lanpostu guztietarako.
b) Zati orokor bat dago langile guztientzat, eta zati espezifiko bat arrisku/sektorearen arabera.
c) Gidari profesionalentzat bakarrik.
d) Langileak eskatzen duenean bakarrik.

206. OSALANek argitaratutako Laneko bide segurtasuneko gida praktikoaren arabera, zer alderdi jasotzen da trafiko-gertakariei lotutako larrialdi-neurrietan?

a) Hurrengo zerbitzugunera arte bidean jarraitzea.
b) Larri zauritutako pertsonak daudenean soilik ohartaraztea.
c) Jarduteko moduari buruzko informazioa eta prestakuntza ematea: lehen sorospenak, abisuak eta modu seguruan aparkatzea.
d) Ibilgailua lehenbailehen bidetik kentzeari lehentasuna ematea, seinalerik jarri gabe.

207. OSALANek argitaratutako Laneko bide segurtasuneko gida praktikoaren arabera, zer jakin behar du langileak gidatu bitartean arrisku larri eta berehalako bat datorkionean?

a) Bidean jarraitu behar duela, helburuak betetzeko.
b) Hierarkiaren arabera ardura duen pertsonaren baimenarekin soilik gelditu behar duela.
c) Jarduna bidea moztuta dagoenean bakarrik etengo duela.
d) Segurtasunagatik gidatzeari utz diezaiokeela, inolako kalterik gabe.

208. Zer jasotzen du gidatzeari dagokionez osasuna zaintzeko OSALANek argitaratutako Laneko bide segurtasuneko gida praktikoak?

a) Bidean arriskua areagotzen duten sendagaiak, estresa edo egoera pertsonalak.
b) Ikusmen-gaitasuna, besterik ez.
c) Garraioaren sektoreko gaixotasun profesionalak bakarrik.
d) Urteko proba estandarizatuak bakarrik.

209. OSALANek argitaratutako Laneko bide segurtasuneko gida praktikoaren arabera, zer egin behar da laneko bide-segurtasunaren kudeaketak sortutako dokumentazioarekin?

a) Prebentzio-planetik bereizitako fitxategi batean gorde.
b) Prebentzio arloko dokumentazioan txertatu: plana, ebaluazioak, ikerketak, etab.
c) Lan Ikuskaritzara soilik bidali.
d) Ezabatu, plana espezifikoa eta independentea bada.

210. OSALANek argitaratutako Laneko bide segurtasuneko gida praktikoaren arabera, zer egin behar da gertatzen diren laneko bide-istripu eta -gertakariekin?

a) Baja medikoa eragin dutenak bakarrik ikertu behar dira.
b) Hildakoak eragin dituztenak bakarrik ikertu behar dira.
c) Guztiak ikertu behar dira, arrazoiak identifikatu, eta berriro gertatzea ekiditeko.
d) Ez ikertu, aseguruak kalteak estaltzen baditu.



211. OSALANek argitaratutako Laneko bide segurtasuneko gida praktikoaren arabera, zein da Laneko Bide Segurtasuneko Plan bat prestatzen denean lehenengo fasea?

a) Analisia.
b) Planaren ebaluazioa.
c) Planaren garapena.
d) Planaren diseinua.

212. OSALANek argitaratutako Laneko bide segurtasuneko gida praktikoaren arabera, nola egituratzen da bide-gaikuntza mailen arabera lanaren antolaketan?

a) Maila bakarra langile guztientzat.
b) Hiru maila (baxua, altua, oso altua), lanpostuaren arriskuaren arabera gero eta zorrotzagoak diren prestakuntza-betekizunekin.
c) Bi maila antzinatasunaren arabera.
d) Arriskuarekin zerikusirik ez duten borondatezko mailak,.

213. Zer berrikuspen gomendatzen du OSALANek argitaratutako Laneko bide segurtasuneko gida praktikoak balazta, esekidura eta direkziorako?

a) Balazta-likidoa ez berrikustea, aginte-panelean abisurik ez badago.
b) Balazta-likidoaren maila astero berrikustea, eta diskoak, pastillak, tenkagailuak eta bonbinak urtero berrikustea.
c) Esekidura-sistema 200.000 km egin ondoren bakarrik berrikustea.
d) Direkzioa bost urtean behin berrikustea.

214. OSALANek argitaratutako Laneko bide segurtasuneko gida praktikoko I. eranskinaren arabera, nola lehenesten da laneko bide-segurtasuneko prestakuntza?

a) Hurrenkera alfabetikoaren arabera.
b) Kontratazio-dataren arabera.
c) Lantokitik hurbil egoteagatik.
d) Urteko kilometro-kopuru handiena edo istripuen historia positiboa kontuan izanik, eta lanpostuaren arrisku-mailaren arabera.

215. Zer gomendio da zuzena segurtasun-uhalari, airbagari eta kaskoari dagokionez, OSALANek argitaratutako Laneko bide segurtasuneko gida praktikoaren arabera?

a) Segurtasun-uhala lasai eramateak erosotasuna errazten du.
b) Airbaga nahikoa da aurrez aurre talka eginez gero segurtasuna bermatzeko.
c) Segurtasun-uhalean pintzak erabiltzea saihestu eta airbagarekiko distantzia egokia mantendu.
d) Kaskoa hiriarteko bideetan soilik da beharrezkoa.



216. Zein da “agente kimikoaren” definizioa, agente kimikoei buruzko apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuaren ondorioetarako?

a) Elementu edo konposatu kimiko oro, bere kabuz edo nahastuta, egoera naturalean agertzen den eran edo lan-jarduera batean ekoitzi, erabili edo isurtzen denean, hondakin gisa barne.
b) 1272/2008 (Europako Erkidegoa) Erregelamenduaren arabera arriskutsu gisa sailkatutako substantzia edo nahaste oro.
c) Europako Erkidegoko merkatuan CAS zenbakiarekin ageri den edozein substantzia.
d) Prozesu industrialetan erabiltzen den edozein nahasketa, segurtasun-datuen fitxarekin.

217. Ondoko baldintzetatik zein jasotzen da “agente kimiko arriskutsuaren" definizioan, agente kimikoei buruzko apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuaren arabera?

a) 1907/2006 (Europako Erkidegoa) Erregelamenduaren (REACH) esparruan erregistratuta egotea.
b) 374/2001 Errege Dekretuaren 3.4 artikuluan adierazitako ingurumeneko muga-balio bat izatea, arriskutsu gisa sailkatzeko irizpideak bete ez arren.
c) Sukoia eta toxikoa izatea aldi berean.
d) Segurtasun-datuen fitxa izatea.

218. Zer ezartzen du agente kimikoei buruzko apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuak inhalazioagatiko arriskuaren ebaluaziorako ingurumen-neurketak egiteko premiari buruz?

a) Neurketak nahitaezkoak dira beti agente kimikoekin egiten diren jardun guztietan.
b) Neurketak justifikatu gabeko zenbatespen kualitatiboekin ordezka daitezke.
c) Agenteak arnasketa-eremuan duen kontzentrazio-maila neurtu behar da, eta muga-balioarekin alderatu, beste bitarteko batzuen bidez prebentzio eta babes egokia frogatu ezean.
d) Neurketak muga-balio biologikoak daudenean bakarrik dira beharrezkoak.

219. Osasunaren zaintza zein baldintzatan jotzen da egokitzat, agente kimikoei buruzko apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuaren arabera?

a) Langile guztiek ondorio kaltegarriak dituztela adierazten duten frogak daudenean.
b) Ikerketa-teknika baliodunik ez dagoenean eskuragarri.
c) Esposizioa aurretiaz ezagutzen den gaixotasunen batekin lotu ezin denean.
d) Esposizioa gaixotasun edo ondorio kaltegarri batekin lotu daitekeenean, lan-baldintzetan hori gertatzeko probabilitatea dagoenean, eta arrisku txikiko ikerketa-teknika baliodunak daudenean.

220. Noiz da osasunaren zaintza nahitaezko betekizuna agente kimiko arriskutsu batekin lan egiteko, agente kimikoei buruzko apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuaren arabera?

a) Etengabeko ingurumen-zaintza dagoenean soilik.
b) Langileak idatziz eskatzen duenean.
c) Esposizioaren kontrol nahikoa bermatu ezin denean edo langilearen sentsibilitate berezia dagoenean, haren ezaugarriak eta agentearen izaera kontuan izanik.
d) Iraupen laburreko ingurumeneko muga-balioak gainditzen direnean bakarrik.

221. Zer esanahi du "CAS" akronimoak agente kimiko bati dagokionez, agente kimikoei buruzko apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuaren I. eta III. eranskinen arabera?

a) Chemical Analysis Standard.
b) Chemical Abstracts Service.
c) Chemical Accreditation System.
d) Chemical Administrative Service.

222. Agente kimikoei buruzko apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuaren arabera, lantokian agente kimiko arriskutsuetarako erabiltzen diren ontzi eta eroanbideei aplikatu beharreko seinaleztapen-betekizunak honako hauek dira:

a) 485/1997 Errege Dekretuan ezarritakoa betetzea, bereziki VII. eranskinaren 4. atalean zehazten dena, edo, seinaleztapena nahitaezkoa ez denean, horien izaera eta arriskuak argi eta garbi hautematen direla bermatzea.
b) Etiketen arloko 1907/2006 (EE) Erregelamendua baino ez dute bete behar.
c) Segurtasunaren eta osasunaren seinaleztapenari buruzko 485/1997 Errege Dekretuaren betekizunak betetzea, bereziki, VII. eranskinaren 4. atala, eta seinaleztapena nahitaezkoa ez denean, enpresak ziurtatuko du horien izaera eta arriskuak argi eta garbi hautematen direla.
d) Nahikoa da kolore korporatiboak erabiltzea edukiak bereizteko.

223. Agente kimikoei buruzko apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuaren arabera, zer dokumentazio sartu behar da inhalazio-arriskua ebaluatzeko ingurumen-neurketak beharrezkotzat jotzen EZ direnean?

a) Langilearen baimen informatua.
b) Neurketak egitea beharrezkotzat ez jotzeko arrazoiak.
c) Ingurumen-neurketak alde batera uzteko lan-agintaritzaren aurretiazko baimena.
d) Lantokian historikoki erabilitako norbera babesteko ekipamenduen zerrenda.

224. Agente kimikoei buruzko apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuaren arabera, dokumentaziorako zer sarbide aitortzen zaie langileei osasunaren zaintzari eta agente kimiko arriskutsuek eragindako arriskuen ebaluazioari dagokienez?

a) Enpresako dokumentazio guztia libreki eskuratzeko aukera.

b) Pertsonalki eragiten dien dokumentazioaren zatirako sarbidea, aldez aurretik eskatuta.
c) Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalak (LSOIN) argitaratutako muga-balioak soilik eskuratzeko aukera.
d) Kanpoko prebentzio-zerbitzuaren urteko txostenetarako sarbidea soilik.

225. Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalak argitaratutako lanlekuko agente kimikoekin lotutako arriskuen ebaluazio eta prebentziorako Gida teknikoaren arabera, adierazi ezohiko jardueren inguruko baieztapen zuzena, esate baterako, mantenu-lanei dagokienez:

a) Ez dute ebaluaziorik behar, aldian behingoak badira.
b) Nahikoa da su-itzalgailu eramangarriak izatearekin.
c) Aldez aurreko ebaluazio espezifikoa egin behar zaie, duten arriskugarritasun bereziagatik, eta neurri zehatzak hartu behar dira jarduera hasi aurretik, jardueran zehar eta amaitu ondoren.
d) 374/2001 Errege Dekretuaren esparrutik at geratzen dira.

226. Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalak argitaratutako lanlekuko agente kimikoekin lotutako arriskuen ebaluazio eta prebentziorako Gida teknikoaren arabera, zer betekizun espezifiko ezartzen da dutxa eta begi-garbitegietarako laginak ontziz aldatu edo hartzeko eremuetan?

a) 25 metro baino gutxiagora kokatzea eta nahitaezko seinaleztapenik gabe.
b) Adierazitako postuetatik ≤10 metrora kokatzea, oztoporik gabe eta behar bezala seinaleztatuta.
c) Adierazitako postuetatik ≤20 metrora kokatzea, oztoporik gabe eta behar bezala seinaleztatuta.
d) Agente kartzinogenoak daudenean soilik instalatzea.

227. Segurtasun Datuen Fitxen (SDF) eskuragarritasunari dagokionez, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalak argitaratutako lanlekuko agente kimikoekin lotutako arriskuen ebaluazio eta prebentziorako Gida teknikoan ezartzen denez:

a) Enpresa-batzordeari soilik helaraziko zaizkio.
b) Kartelekin ordeztu daitezke, produktuak arrisku-maila baxua badu.
c) Langileen eskura egon behar dute mugarik gabe, eta horien kokapenaren berri eman behar zaie.
d) Erosketa-arduradunari dagokio soilik horien kontsulta.

228. Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalak argitaratutako lanlekuko agente kimikoekin lotutako arriskuen ebaluazio eta prebentziorako Gida teknikoaren arabera, zer agente agertzen dira agente kimikoei buruzko apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuko III. eranskinean, debekatutako agente gisa eta salbuespenerako zer kontzentrazio-mugarekin?

a) Bentzenoa eta toluenoa; pisuaren % 1.

b) 2-naftilamina, 4-aminodifeniloa, benzidina eta 4-nitrodifeniloa; pisuaren % 0,1.
c) Akrilonitriloa eta binil kloruroa; pisuaren % 0,5.
d) Pisu molekular handiko ftalatoak; pisuaren % 0,05.

229. Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalak argitaratutako lanlekuko agente kimikoekin lotutako arriskuen ebaluazio eta prebentziorako Gida teknikoaren arabera, adierazi larrialdi kimikoetarako prestakuntzari eta simulakroei buruzko baieztapen zuzena:

a) Simulakroak egitea gomendatzen da, gutxienez urtean behin (aldizkakotasuna arriskuaren arabera ezarriko da).
b) Simulakroak ez dira beharrezkoak sute-brigada badago.
c) Prestakuntza eduki teorikoetara mugatu daiteke.
d) Simulakroak informazio-kartelen bidez ordezkatzen dira.

230. Agente kimikoei buruzko apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuan ezartzen denaren arabera, agente kimiko arriskutsu ugariren eraginpean egotea dakarten jardueretan, nola egin behar da ebaluazioa?

a) Agentez agente modu independentean, interakzioak kontuan izan gabe.
b) Ingurumen-kontzentrazio handieneko agentea soilik kontuan izanik.
c) Agenteen konbinazioak izan dezakeen arriskuari erreparatuz.
d) Segurtasun-datuen fitxa duten agenteetarako soilik.

231. Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalak argitaratutako lanlekuko agente kimikoekin lotutako arriskuen ebaluazio eta prebentziorako Gida teknikoaren arabera, UNE EN 689:2019+AC:2019 arauaren esparruan, eraginaren aldizkako berrebaluazioak honetarako balio du:

a) Etorkizuneko edozein neurketaren premia ekiditeko.
b) Eraginaren eta prebentzio-neurrien eraginkortasunari buruzko jarraipena egiteko, ebaluazio-emaitzetatik eratorritako aldizkakotasunarekin.
c) Osasunaren zaintza ordezkatzeko.
d) Idatzizko prozedurak ezabatzea justifikatzeko.

232. Zer baieztapenak deskribatzen du behar bezala etileno oxidoak inguruan eta monitoreen orientazioan duen portaera "Etileno oxidoaren laginketa-estrategia" izeneko APT-ER02-01 dokumentuaren arabera?

a) Airea baino arinagoa da; beraz, monitoreak fokuaren gainean ipini behar dira.
b) Dentsitate erlatiboa 1,0koa denez, monitoreak edozein altueran ipini behar dira.
c) Airea baino astunagoa da (dentsitate erlatiboa ≈ 1,5) eta gorantz egiteko joera du. Beraz, monitoreak emisio-puntuaren azpitik ipintzea komeni da.
d) Uretan disolbaezina denez, altueran soilik egin behar dira laginketak.

233. Zer laguntzaile gomendatzen da "Etileno oxidoaren laginketa-estrategia" izeneko APT-ER02-01 dokumentuan, eta zer teknika analitiko erabiltzen da laborategian?

a) HPLC/UV-z hornitutako tutu aktiboa.
b) Difusio bidezko monitore pasibo espezifikoa; kromatografia bidezko gasen analisia, elektroiak atzemateko hautemangailuz hornitua (GC/ECD).
c) Monitore pasibo unibertsala; espektrofotometria bidezko analisia UV-Vis.
d) Deribaziorik gabeko karbono-tutu aktiboa; GC/FID bidezko analisia.

234. Kokapen hauetako zein EZ du proposatzen "Etileno oxidoaren laginketa-estrategia" izeneko APT-ER02-01 dokumentuak etileno oxidoaren monitoreak ipintzeko jarraibide orientagarri gisa?

a) Esterilizatzailearen gela zikloan zehar.
b) Eremu antzua deskargan eta banaketan.
c) Ondoko bulego administratiboa, material-igarobiderik gabe.
d) Esterilizatzailearen boxa aireztapena egiaztatzeko.

235. Zein da etileno oxidoaren monitore pasiboetarako "Etileno oxidoaren laginketa-estrategia" izeneko APT-ER02-01 dokumentuak gomendatutako laginketa-denboraren tarte funtzionala?

a) 30–60 minutu.
b) 12–24 ordu.
c) 2–12 ordu.
d) 24–48 ordu.

236. Monitorearen zer kokapen gehigarri eta aukerako proposatzen da "Etileno oxidoaren laginketa-estrategia" izeneko APT-ER02-01 dokumentuaren protokoloan, etileno oxidoaren balizko ihesak hautemateko?

a) Langileen atseden-gelan.
b) Gasa elikatzeko eta ebakuatzeko eroanbideak igarotzen diren armairuetan edo eremu erantsietan.
c) Eraikinaren kanpoaldean, aparkaleku-eremuan.
d) Zuzendaritza medikoaren bulegoan.

237. Zer metodo erabiltzen da lehentasunez formaldehidoren iraupen laburreko (15 min) esposizioa balioesteko gehieneko esposizioko lanetan, "FORMALDEHIDOAREN laginketa-estrategia" izeneko APT-ER02-02 dokumentuaren arabera?

a) DNPH difusio bidezko monitore pasiboa (OSHA 1007).
b) Laginketa aktiboa silize-tutua gelarekin gaineztatua, 2,4-DNPH eta HPLC analisiarekin (UNE 81589:2018).
c) Gasen kromatografia ECD-arekin deribaziorik gabe.
d) Lurrun organikoen laginketa pasibo unibertsala.

238. Ondoko esaldi hauetatik zein da formaldehidoa egoki deskribatzen duena osasun arloan, "FORMALDEHIDOAREN laginketa-estrategia" izeneko APT-ER02-02 dokumentuaren arabera?

a) Nagusiki gas-forman erabiltzen da, % 100ean.
b) Uretan disolbaezina da eta ez du soluzio egonkorrik sortzen.
c) Bere ur-soluzioa (formola edo formalina), normalean % 4koa, kontserbatzaile eta finkatzaile gisa erabiltzen da.
d) 75-21-8 CAS zenbakiarekin identifikatzen da.

239. Zer metodo pasibo erabiltzen da formaldehidorako eguneroko esposizioa ebaluatzeko, eta zer biltegiratze-baldintza eskatzen ditu "FORMALDEHIDOAREN laginketa-estrategia" izeneko APT-ER02-02 dokumentuak?

a) MTA/MA-022/A91; izozkailuan gordetzea, eta 24 ordu igaro aurretik aztertzea.
b) OSHA 1007, DNPH monitoreekin; hoztuta mantendu, eta 3 aste igaro aurretik aztertzea.
c) UNE 81586:2020; giro-tenperatura, eta analisi-mugarik gabe.
d) NIOSH 1614; –20 °C-tara gorde, eta 8 aste igaro aurretik aztertzea.

240. Zer interferentzia identifikatzen ditu "FORMALDEHIDOAREN laginketa-estrategia" izeneko APT-ER02-02 dokumentuak 2,4 DNPH monitore bidezko metodo aktiborako formaldehidorako, eta nola konpontzen dira?

a) Karbono monoxidoa; katalizatzailearekin.
b) Xilenoak; karbono-iragazkiekin.
c) Etanola; artezte grabimetrikoarekin.
d) Ozonoa eta beste aldehido batzuk; baldintza kromatografiko egokiak doituz.

241. Denbora-ordezkagarritasunari dagokion zer betekizun ezartzen du "Kutsatzaile kimikoekiko esposizioa kontrolatzeko ikuspegi integralerako protokoloa" izeneko PT-ER02 protokoloak lanaldi osoko laginketa baterako?

a) Eraginpean egotearen denboraren % 50 gutxienez estaltzea.
b) Gutxienez, eraginpean egotearen denboraren % 80 barne hartzea.
c) 2 ordu zehatzetara mugatzea.
d) Beti gaueko txandetan egitea.

242. Osakidetzan eguneroko esposizio-indizea (EI) eskuratzeko, "Kutsatzaile kimikoekiko esposizioa kontrolatzeko ikuspegi integralerako protokoloa" izeneko PT-ER02 protokoloaren arabera, zer denbora-zuzenketa-faktore aplikatzen zaio neurtutako kontzentrazioari?

a) 7/8.
b) 8/7.
c) 1/15.
d) 15/1.

243. “Kutsatzaile kimikoekiko esposizioa kontrolatzeko ikuspegi integralerako protokoloa" izeneko PT-ER02 protokoloari helduz. Zer jarduketa-irizpide aplikatzen da espezifikoki toxikotasun bereziko agenteetan, adibidez, formaldehidoan?

a) Egunero 0,5-era bitarteko eragin-indizea onartzea, neurririk gabe.
b) Kontzentrazioak teknikoki zilegi diren maila apalenetan mantentzea; ez da "ekintza-maila" aplikatzen.
c) Egunero 0,8ko eragin-indizea onartzea, sintomarik ez badago.
d) Soilik kexak baldin badaude neurtzea.

244. Zer dago hertsiki debekatuta agente erreprotoxikoekin kutsatutako laneko arropari dagokionez, agente kantzerigenoei buruzko maiatzaren 12ko 665/1997 Errege Dekretuan?

a) Enpresa barnean desinfektatzea.
b) Etiketatzerik gabe botatzea.
c) Langileek beren etxeetara eramatea, garbitzeko.
d) Behin baino gehiagotan erabiltzea.

245. Zer eskatzen da agente kantzerigenoei buruzko maiatzaren 12ko 665/1997 Errege Dekretuan agente kantzerigenoak, mutagenoak edo erreprotoxikoak ordezteari buruz?

a) Soilik istripu larria izateko arriskua dagoenean ordeztea.
b) Teknikoki posible den aldiro ordeztea.
c) Eragin-mailak muga-balioa gainditzen duenean soilik ordeztea.
d) Kostu ekonomikoa apala denean ordeztea.

246. Agente kantzerigeno bat ordeztu ezin baldin bada, zer sistema aplikatu behar da agente kantzerigenoei buruzko maiatzaren 12ko 665/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Sistema irekia, neurketa jarraituarekin.
b) Administrazio-kontroleko sistema bat.
c) Sistema itxi bat, berau ekoitzi eta erabiltzeko.
d) Aireztapen naturalean oinarritutako sistema bat.

247. Zer ezartzen da agente kantzerigenoei buruzko maiatzaren 12ko 665/1997 Errege Dekretuan agente kantzerigenoak, mutagenoak edo erreprotoxikoak kanporatzeari buruz?

a) Aireztapen naturala erabiliz egin behar da esklusiboki.
b) Jatorrian egin behar da, erauzketa lokalizatuaren bidez, edo aireztapen orokorraren bidez, teknikoki ezinezkoa denean.
c) Eragin-maila apala bada, ez da beharrezkoa kanporatzea.
d) Muga-balioak gainditzen direnean soilik egin behar da.



248. Zer betebehar ezartzen du agente kantzerigenoei buruzko maiatzaren 12ko 665/1997 Errege Dekretuak arropa gordetzeko moduari dagokionez?

a) Arropa guztia baterako espazio berean gordetzekoa.
b) Langileek laneko arropa beren etxeetara eraman dezaten uztekoa.
c) Laneko arropa edo babes-arropa eta janzteko arropa aparte mantentzekoa.
d) Arropa banakako armairu metalikoetan soilik gordetzekoa.

249. Noiz eskaini behar zaie osasunaren zaintza agente kantzerigeno, mutageno edo erreprotoxikoen eraginpean dauden langileei, agente kantzerigenoei buruzko maiatzaren 12ko 665/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Osasunari kalteak hautematen badira soilik.
b) Muga-balio biologikoak gainditzen direnean soilik.
c) Langileak formalki eskatzen duenean.
d) Eragina hasi aurretik, eta ondoren, aldizka.

250. Agente kantzerigenoei buruzko maiatzaren 12ko 665/1997 Errege Dekretuaren arabera, zenbat denboran gorde behar dira agente kantzerigeno edo mutagenoen eraginpean dauden langileen mediku-historiak?

a) Bost urtez eragina amaitzen denetik zenbatzen hasita.
b) Hamar urtez, kontratazioa egiten denetik.
c) Gutxienez berrogei urtez eragina amaitzen denetik.
d) Mugagabe, denbora aldetiko mugarik gabe.

251. Amiantoari buruzko martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuaren arabera, amiantoarekiko eguneroko esposizioari dagokionez zer ingurumen muga-balio ezartzen da?

a) 0,01 zuntz/cm^3.
b) 0,1 zuntz/cm^3.
c) 1 zuntz/cm^3.
d) 10 zuntz/cm^3.

252. Amiantoari buruzko martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuaren arabera, zer egin behar da eraiste- edo mantenu-lanak hasi aurretik?

a) Soilik dagokion udalari jakinarazi.
b) Amiantoa izan dezaketen materialak identifikatu.
c) Kaltetutako langileei baimena eskatu.
d) Hondakinak aldez aurretik isurketa-lekura garraiatu.

253. Zer babes-sistema kolektibo hobesten da sendagai arriskutsu esterilak prestatzeko, Sendagai arriskutsuak izeneko 87.1:16 dokumentu teknikoaren arabera (Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalak argitaratua)?

a) I motako Segurtasun Biologikoko Kabina (SBK).

b) IIa motako Segurtasun Biologikoko Kabina (SBK).
c) IIb motako Segurtasun Biologikoko Kabina (SBK).
d) Laborategiko ke-kabina orokorra.

254. Zer maskara mota gomendatzen du Sendagai arriskutsuak izeneko 87.1:16. dokumentu teknikoak (Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalak argitaratua), zitostatikoen aerosolen eraginpean egoteko arriskua dagoenean?

a) FFP3 motako maskara auto-iragazlea.
b) FFP1 motako maskara auto-iragazlea.
c) Maskara kirurgiko estandarra.
d) Ez da maskara behar.

255. Zer gomendatzen du Sendagai arriskutsuak izeneko 87.1:16. dokumentu teknikoak (Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalak argitaratua), sendagai arriskutsuen ontzien kanpoko egoerari buruz, osasun-zentroan jasotzen direnean?

a) Ez da beharrezkoa berrikustea, hornitzailea konfiantzazkoa bada.
b) Beti garbi daudela ulertu behar da, hausturak ez baldin badituzte.
c) Kanpotik garbiak egon behar dira; bestela, eskularruekin manipulatu behar dira, edo aldez aurretik garbitu behar dira.
d) Berehala ireki behar dira, barnean dagoen produktua egiaztatzeko.

256. Agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren definizioen arabera, zer ulertzen da "agente biologiko"-tzat?

a) Animalientzako mikroorganismo patogenoak soilik.
b) Genetikoki aldatu ezin diren mikroorganismoak soilik.
c) Infekzioa, alergia edo toxikotasuna eragin dezaketen mikroorganismoak (genetikoki eraldatutakoak barne), kultibo zelularrak eta giza endoparasitoak.
d) Jatorri naturaleko edozein substantzia organiko.

257. Zein da 3. multzoko agente biologikoaren sailkapen zuzena agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Gizakiarengan gaixotasuna eragiteko probabilitate gutxi duena.
b) Gaixotasuna eragin dezakeena eta profilaxirik gabe zabaltzea oso gertagarria ez dena.
c) Gaixotasun larria eragiten duena eta langileentzat arriskutsua ez dena.
d) Gaixotasun larria eragin dezakeena eta langileentzat arrisku larria dakarrena, taldean zabaltzeko arriskuarekin eta, orokorrean, profilaxia edo tratamendu eraginkorra egonik.

258. Zer egin behar da ebaluazioaren arabera 1. multzoko agente baten eragina dagoela adierazten badu langileentzat osasun-arrisku ezagunik eragin gabe, agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Ez dira aplikatu behar 664/1997 Errege Dekretuko 5etik 15era bitarteko artikuluak, V. eranskineko atariko oharrean xedatzen dena betez.
b) 664/1997 Errege Dekretuko 5etik 15era bitarteko artikuluak eta IV. eranskina osorik aplikatu behar dira.
c) Laneko agintaritzari jakinarazi behar zaio 30 egun lehenago.
d) Sei hilean behin derrigorrez egiteko osasunaren zaintza egitea.

259. Noiz errepikatu behar da agente biologikoen eraginpean egotearen ondoriozko arriskuaren ebaluazioa, agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Bost urtean behin, aldaketak egotea gorabehera.
b) Sindikatuko ordezkariek eskatzen dutenean soilik.
c) Heriotza eragin duen istripuren bat gertatzen denean soilik.
d) Aldizka, eta eragin-mailaren baldintzak aldatzen diren bakoitzean edo jatorria lanean duela uste den infekzio edo gaixotasun bat hautematen denean.

260. Agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuko I. eranskinean zer jarduera EZ dira adierazten agente biologikoen eraginpean intentziorik gabeko esposizioaren eraginpean egon daitezkeen artean?

a) Diagnosi mikrobiologikoko laborategietakoak.
b) Osasun-laguntzako lanak, isolamendu-zerbitzuak eta anatomia patologikoak barne.
c) Hondakinak ezabatzeko unitateetako lanak.
d) Diagnostiko eta ikerketa-laborategietako lanak.

261. Norberaren garbiketarako zenbat denbora aitortzen da lanaldiaren barnean arrisku biologikoko jardueratan, agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Bost minutu bazkaldu aurretik eta beste bost amaitzean.
b) Hamabost minutu bazkaldu aurretik, eta bakar bat ere ez amaitzean.
c) Hamar minutu bazkaldu aurretik eta beste hamar minutu lanetik atera aurretik.
d) Ez da garbiketarako denborarik aurreikusten.

262. Noiz eskaini beharko zaie osasunaren zaintza espezifikoa agente biologikoen eraginpean dauden langileei, agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Lan-harremana amaitzean soilik.
b) Leherketa-istripuen ondoren soilik.
c) Leherketaren aurretik, aldi erregularretan mediku-ezagutzaren arabera, eta antzeko eragin baten aurrean dagoen langile batek eraginpean egotearen ondorioz ziurrenik infekzioa edo gaixotasuna duela hautematen denean.

d) Sei hilean behin, edozein izanik ere agentea.

263. Agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren arabera, zenbat denboran, gutxienez, gorde behar dira eraginpean dauden langileen zerrenda eta horien mediku-historiak eraginpean egon ondoren?

a) Bost urte, edozein kasutan.
b) Hamar urtez gutxienez, eta berrogei urtera luzatu daiteke denbora hori infekzio iraunkor/sorren kasuan, inkubazio luzea denean edo aurreikusitako beste kasu batzuetan.
c) Berrogei urtez, 2. multzoko edo handiagoko agente ororen kasuan.
d) Eraginpean egoteari utzi ondotik, ez da beharrezkoa horiek gordetzea.

264. Zer erabilera jakinarazi behar zaio laneko agintaritzari aldez aurretik eta, gutxienez, hasi baino hogeita hamar egun lehenago, agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) 1. multzoko edozein agenteren gainekoa.
b) 2., 3. eta 4. multzoetako agente biologikoen lehendabiziko erabilera.
c) 3. eta 4. multzoetako agenteen lehendabiziko erabilera soilik.
d) 4. multzoko agente berrien erabilera soilik.

265. Zer salbuespen aipatzen da agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuko 10. artikuluan 4. multzoko agenteekin zerikusia duten diagnosi-laborategietarako?

a) Jakinarazpen orotatik salbuetsita daude.
b) Prozesatutako lagin bakoitzaren jakinarazpen egin behar dute.
c) Asmo horren inguruko hasierako jakinarazpen baino ez zaie eskatzen.
d) Astero jakinarazi behar die osasun agintaritzari.

266. Agente biologiko baten manipulazioa inplikatzen duen istripu edo gorabehera baten ondoren, zer berehalako betebehar duten langileek, agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Osasun publikoko zerbitzuari berri ematekoa.
b) Laneko osasunari jakinaraztekoa soilik.
c) Jakinarazpena egiteko test serologikoen zain egotekoa.
d) Hierarkian zuzenean goran duenari eta Laneko Arriskuen Prebentzioarekin lotutako ardurak dituen pertsonari jakinaraztekoa.

267. Agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren arabera, isolamendu-zerbitzuetan, 3. edo 4. multzoko agenteekin kutsatutako pertsonekin, nola aukeratzen dira euste-neurriak?

a) Erabilgarri dagoen aurrekontuaren arabera.
b) 664/1997 Errege Dekretuko IV. eranskineko A zutabean daudenen artean, infekzioaren arriskua minimizatzeko xedez.



c) Zerbitzuaren arduraduna den pertsonak agindu bezala soilik.
d) Soilik 2. mailarako aurreikusitakoak aukeratuko dira.

268. Agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuko IV. eranskinean zer aire-iragazte eskatzen da 3. eta 4. mailetan?

a) Ez da iragazterik eskatzen maila bakar batean ere.
b) 3. mailan, HEPA iragaztea, irteeran; 4. mailan, HEPA iragaztea sarreran eta irteeran.
c) 3. mailan, HEPA iragaztea, sarreran; 4. mailan, irteeran soilik.
d) HEPA iragaztea animaliategia duten laborategientzat soilik.

269. Nola sailkatzen da SARS-CoV-2 agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuko II. eranskinean, eta zer nota espezifiko aplikatzen zaio laborategiko lanari?

a) 2. multzoa; lanketa beti 2. mailan.
b) 4. multzoa; lanketa soilik 4. mailan.
c) 3. multzoa; lan ez-hedatzailea gutxienez 2. mailaren baliokideak diren prozedurak dituzten instalazioetan, eta hedatzailea 3. mailan.
d) 1. multzoa; aparteko betekizunik gabe.

270. Zer gomendio praktiko jasotzen dira agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren VI. eranskinean agente biologikoen aurkako txertoari dagokionez?

a) Derrigorrezkoa da osasun langileentzat, arriskua baldin badago.
b) Arriskua dagoenean eskaini egin behar da, abantailen eta eragozpenen berri emanez, langilearentzat inolako kosturik gabe, eta ziurtagiria igortzeko aukerarekin.
c) Kontratua amaitu arte atzeratu behar da.
d) 1. eta 2. multzoetan soilik gomendatzen da.

271. Agente biologikoei buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuaren II. eranskineko sarrera-oharren arabera, nola sailkatu behar dira gizakietan isolatutako birusak, oraindik ebaluatu EZ badira?

a) 1. multzoan, kontrako frogarik egon ezean.
b) Gutxienez 2. multzoan, pertsonengan gaixotasunak eragiteko probabilitaterik ez dagoela frogatu ezean.
c) Beti 3. multzoan.
d) Zuzenean 4. multzoan.

272. Zer parametro fisiko erabiltzen da zarataren eraginpean egotearen ondoriozko arriskua ebaluatzeko, zaratari buruzko martxoaren 10eko 286/2006 Errege Dekretuaren arabera?

a) Asteko batez besteko soinu-maila.
b) Soinu-intentsitate maila A haztatuz.
c) Eguneroko eragin-maila baliokidea (LAeq,d).

d) Soinuaren oinarrizko maiztasuna.

273. Hurrengo zarata-balioen artean zein da ekintza bat dakarren eragin-balio handia zaratari buruzko martxoaren 10eko 286/2006 Errege Dekretuan?

a) 80 dB(A).
b) 85 dB(A).
c) 90 dB(A).
d) 95 dB(A).

274. Zaratari buruzko martxoaren 10eko 286/2006 Errege Dekretuaren arabera, zer gertatzen da eragin-balio batek muga gainditzen badu?

a) Ez da esku-hartzerik behar, belarri-babesak zarata arintzen badu.
b) Arriskuen ebaluazioa baino ez da berrikusten.
c) Eragin-maila berehala murriztu behar da, eta aplikatutako neurriak zuzendu behar dira.
d) Langileei baino ez zaie jakinarazten.

275. Ingurumen-baldintza hauen artean, zein EZ da eskatzen lanlekuei buruzko apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuko III. eranskinean?

a) Jarduera-motara egokitutako tenperaturak egotea.
b) Hezetasun erlatiboa % 30 eta % 70 bitartekoa izatea.
c) Behar besteko aireztapena egotea.
d) 1 m/s-tik gorako korronteen eraginpean egotea modu jarraituan.

276. Lanlekuei buruzko apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuko IV. eranskinaren arabera, zer argiztapen-maila gutxieneko eskatzen da ikusmen-eskakizun handiko eremuetan?

a) 100 lux.
b) 200 lux.
c) 500 lux.
d) 1.000 lux.

277. Lanlekuei buruzko apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuaren arabera, faktore hauetako zeinek EZ du eragozpenik sortu behar lan-ingurunean?

a) Tenperatura-aldaketa bortitzak.
b) Usain desatseginak.
c) Gehiegizko eguzki-irradiazioa.
d) Ingurune-zaratarik ez egotea.



278. Zer tenperatura-tarte mantendu behar da lan arinetan, lanlekuei buruzko apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuko III. eranskinaren arabera?

a) 10–20 ºC.
b) 14–25 ºC.
c) 17–27 ºC.
d) 25–35 ºC.

279. Tabako-kerik gabeko lan sedentarioetan, orduko eta langileko, aire garbiaren zer emari bermatu behar da gutxienez, lanlekuei buruzko apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuko III. eranskinaren arabera?

a) 10 m³/h.
b) 30 m³/h.
c) 80 m³/h.
d) 100 m³/h.

280. Lanlekuei buruzko apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuko III. eranskinaren arabera, zein da gutxieneko hezetasun?

a) % 20.
b) % 25.
c) % 30.
d) % 35.

281. Giro berorik gabeko lanetan zer aire-abiadura EZ da gainditu behar, lanlekuei buruzko apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuko III. eranskinaren arabera?

a) 0,10 m/s.
b) 0,25 m/s.
c) 0,50 m/s.
d) 1 m/s.

282. Zer ezaugarri izan behar ditu argiztapenak ikusmen-arriskuak ekiditeko, lanlekuei buruzko apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuko IV. eranskinaren arabera?

a) Itzal nabariak sorrarazi behar ditu.
b) Naturala izan behar du soilik.
c) Modu uniformean banatu behar da.
d) Kolore hotzak erabili behar ditu esklusiboki.

283. Aire girotuarekin egiten diren lan sedentarioetan, zein da airearen gehieneko abiadura, lanlekuei buruzko apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuko III. eranskinaren arabera?

a) 0,10 m/s.
b) 0,20 m/s.



c) 0,25 m/s.
d) 0,75 m/s.

284. Eguzki-irradiazioaren zer baldintza erlatibo bete behar da giro termiko egokia bermatzeko, lanlekuei buruzko apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuko III. eranskinaren arabera?

a) Erradiazio biziko sarrera zuzena ahalbidetzea uneoro.
b) Pertsianak edo eguzki-babesak erabiltzea ekiditea.
c) Gehiegizko eguzki-irradiazioa ekiditea kristalez hornitutako leihoen edo trenkaden bidez.
d) Langileak eguzki-argiaren eragin zuzena jasotzen duela bermatzea.

285. Zaratari buruzko martxoaren 10eko 286/2006 Errege Dekretuko II. eranskinean zer neurketa-mota gomendatzen da langilearen presentzia ezinbestekoa denean zarataren ebaluazioan zehar?

a) Mikrofonoak belarritik 10 cm-ra egon behar du.
b) Mikrofonoak belarritik 20 cm-ra egon behar du.
c) Mikrofonoak belarritik 30 cm-ra egon behar du.
d) Mikrofonoak belarritik 50 cm-ra egon behar du.

286. Zer zarata-motak eskatu dezake arreta berezia ebaluazioan zaratari buruzko martxoaren 10eko 286/2006 Errege Dekretuaren arabera?

a) Bulkada-zaratak.
b) Zarata egonkorrak esklusiboki.
c) 50 dB(A) baino baxuagoa den zaratak.
d) Informatika-ekipamenduek sortutako zaratak.

287. Giro beroko lan EZ sedentarioetan zer aire-abiadura EZ da gainditu behar, lanlekuei buruzko apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuko III. eranskinaren arabera?

a) 0,25 m/s.
b) 0,75 m/s.
c) 1 m/s.
d) 1,5 m/s.

288. Erradiazio ionizagarrien Erregelamenduari buruzko abenduaren 20ko 1029/2022 Errege Dekretuaren arabera, honako definizio hauen artean, zein dagokion zaintzapeko guneari?

a) Urte ofizial bakoitzeko 6 mSv baino dosi eraginkor handiagoak jasotzeko aukera dagoen gunea.
b) Kontrolatutako gunea izan gabe, urte ofizial bakoitzeko 1 mSv baino dosi eraginkor handiagoak jasotzeko aukera dagoen gunea.

c) Oso epealdi laburrean, 11. artikuluko mugen gainetiko dosiak jasotzeko arriskua dagoen gunea.
d) Pazientea immobilizatzeko derrigorrez euskarri mekanikoak erabili behar diren gunea.

289. Erradiazio ionizagarrien Erregelamenduari buruzko abenduaren 20ko 1029/2022 Errege Dekretuaren babes erradiologikoko printzipio orokorren arabera, zer dakar optimizazioak?

a) Edozein arrisku erradiologiko duen jardun oro bertan behera uztea.
b) Kasu guztietan legezkoak baino zorrotzagoak diren dosi-mugak aplikatzea.
c) Dosi indibidualen magnitudea, eraginpean egoteko aukera eta eraginpean dauden pertsona-kopurua ahalik eta txikienak izatea, zentzuz.
d) Justifikazioa prozeduraren ebaluazio ekonomikoarekin ordeztea.

290. Erradiazio ionizagarrien Erregelamenduari buruzko abenduaren 20ko 1029/2022 Errege Dekretuaren arabera, zein da urteko dosi eraginkorraren muga eraginpean dauden langileentzat?

a) 20 mSv urte ofizialeko.
b) 1 mSv urte ofizialeko.
c) 50 mSv urte ofizialeko, 5 urteko batez bestekoarekin.
d) 6 mSv urte ofizialeko.

291. Erradiazio ionizagarrien Erregelamenduari buruzko abenduaren 20ko 1029/2022 Errege Dekretuan adierazten denez, jakinarazitako haurdunaldian, umekiari begira dosi baliokidea izan behar da:

a) 6 mSv baino baxuagoa jakinarazten denetik erditzen den arte.
b) 20 mSv edo baxuagoa jakinarazten denetik erditzen den arte.
c) Zentzuz ahal den txikiena, eta 1 mSv-ko muga ez gainditzea, jakinarazten denetik haurdunaldia amaitu bitartean.
d) Ez da aplikagarria, muga publikoko kideentzat da soilik.

292. Erradiazio ionizagarrien Erregelamenduari buruzko abenduaren 20ko 1029/2022 Errege Dekretuaren arabera, arauak gehieneko zein aldizkakotasun ezartzen du, baldintza arruntetan, kanpoko dosimetria indibidualerako?

a) Hiru hilean behingoa.
b) Hilean behingoa.
c) Sei hilean behingoa.
d) Urtean behingoa.

293. Erradiazio ionizagarrien Erregelamenduari buruzko abenduaren 20ko 1029/2022 Errege Dekretuaren arabera, denbora mugatu batean egoteko gune kontrolatu bat seinaleztatzeko zer hirusta-kolore erabiltzen da, seinaleztapen-eranskinarekin bat etorriz?

a) Berdea, hondo zuri gainean.
b) Gris urdinkara, hondo zuri gainean.
c) Horia, hondo zuri gainean.
d) Gorria, hondo zuri gainean.

294. Erradiazio ionizagarrien Erregelamenduari buruzko abenduaren 20ko 1029/2022 Errege Dekretuaren arabera, zer dokumentu gorde behar da langileak 75 urte egin arte, eta sekula EZ 30 urte baino gutxiagoan eraginpean egoteari utzi ondoren?

a) Barneko larrialdi-plana.
b) Operadore-lizentzia.
c) Langileak babes erradiologikoari buruz duen prestakuntzaren eta informazioaren ziurtagiria.
d) Dosimetria-historia indibiduala, eta horrekin lotutako dokumentazioa.

295. Babes erradiologikoari buruzko urriaren 18ko 601/2019 Errege Dekretuaren arabera, zer baldintza ezartzen da klinikoki erabiltzen diren fluoroskopia-ekipoetarako?

a) Dosi-tasaren kontrol automatikorik gabe erabil daitezke, indartzailea baldin badago.
b) Indartzailerik gabe erabil daitezke, eskuzko kontrola baldin badago.
c) Dosi-tasa automatikoki kontrolatzeko gailu bat izan behar dute, edo irudi-indartzaile edo antzeko gailuren bat.
d) Ez dago betekizun espezifikorik.

296. Erradiazio ionizagarrien Erregelamenduari buruzko abenduaren 20ko 1029/2022 Errege Dekretuaren arabera, zein erakundek ematen du txartel erradiologikoa eta ezartzen ditu haren formatua eta edukia?

a) Autonomia erkidegoko osasun agintaritzak.
b) Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak, IS 01 jarraibidearen arabera.
c) Osasun Ministerioak.
d) Lan Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak.

297. Erradiazio ionizagarrien Erregelamenduari buruzko abenduaren 20ko 1029/2022 Errege Dekretuaren arabera, A kategoriako eraginpeko langileentzat, zein da aldizkako osasun-azterketen aldizkakotasuna eta baliozkotasuna?

a) Hamabi hilabetetik behin egingo dira, eta hamahiru hilabeteko balioa izango dute.
b) Sei hilabetetik behin egingo dira, eta hamabi hilabeteko balioa izango dute.
c) Urtero egingo dira, mugagabeko balioa izango dute.
d) Bi urtetik behin egingo dira, eta hogeita lau hilabeteko balioa izango dute.

298. Erradiazio ionizagarrien Erregelamenduari buruzko abenduaren 20ko 1029/2022 Errege Dekretuaren arabera, eta efluenteak eta hondakin erradioaktiboak ingurumenera husteari dagokionez, adierazi aukera ZUZENA:

a) Hustuketa baimenik gabe egin daiteke, jarduera-maila apala baldin bada.
b) Berariazko baimena behar da, baimen horretan ezarritako mugak eta baldintzak betez.
c) Aski da, ondoren, osasun agintaritzari jakinaraztearekin.
d) Debekaturik dago, edozein inguruabarretan.

299. Erradiazio ionizagarrien Erregelamenduari buruzko abenduaren 20ko 1029/2022 Errege Dekretuaren arabera, zein da pertsona bat eraginpeko langile izatea eragin dezaketen lanketak esleitzeko adin-muga?

a) Lan horiek ezin zaizkie hemezortzi urtetik beherakoei esleitu.
b) Hamasei urteko adinetik aurrera esleitu daitezke lan horiek, gurasoen baimenarekin.
c) Edozein adinetan baimentzen dira lan horiek, betiere, urtean 6 mSv-ko muga betetzen bada.
d) Erradiologia interbentzionistan soilik mugatzen da adina.

300. Erradiazio ionizagarrien Erregelamenduari buruzko abenduaren 20ko 1029/2022 Errege Dekretuaren arabera, nola zedarriztatu eta seinaleztatu behar dira kontrolpeko eta zaintzapeko guneak?

a) Titularrak nahieran diseinatutako seinaleztapena erabiliz.
b) Testua baino ez duten kartelekin, ikurrik gabe.
c) Behar bezala zedarriztatuta eta seinaleztatuta, sarbidea baimendutako eta prestatutako langileentzat mugatuz.
d) Zedarriztatzeko premiarik gabe, dosimetria-kontrol indibiduala egonez gero.

301. Erradiazio ionizagarrien Erregelamenduari buruzko abenduaren 20ko 1029/2022 Errege Dekretuaren arabera, zer mediku-sailkapen da langile bat A kategoria modura esleitu edo sailkatzea eragozten duena eraginpean egoteko arriskua duen lanpostu batean?

a) Gaitua.
b) Gaitua, zenbait mugarekin.
c) Ez gaitua.
d) Gaitua, baina prestakuntza jasotzearen baldintzarekin

302. Zein da “erradiazio optikoaren” definizioa erradiazio optiko artifizialei buruzko apirilaren 23ko 486/2010 Errege Dekretuaren arabera?

a) 1 nm eta 100 nm bitarteko erradiazio elektromagnetikoa.
b) 100 nm eta 1 mm bitarteko uhin-luzera duen erradiazio elektromagnetikoa.
c) 0 Hz eta 300 GHz bitarteko maiztasuna duen erradiazio elektromagnetikoa.
d) Giza begiak ikus dezakeen erradiazio elektromagnetikoa esklusiboki.

303. Zein da erradiazio optiko artifizialei buruzko apirilaren 23ko 486/2010 Errege Dekretuan adierazitako erradiazio ikusgarriaren tarte zehatza?

a) 315-400 nm.
b) 100-280 nm.
c) 380-780 nm.
d) 780 nm-1 mm.

304. Erradiazio optiko artifizialei buruzko apirilaren 23ko 486/2010 Errege Dekretuaren arabera, zein dira erradiazio ultramorearen azpibanaketak?

a) UVA (280-315 nm), UVB (315-400 nm), UVC (100-280 nm).
b) UVA (315-400 nm), UVB (280-315 nm), UVC (100-280 nm).
c) UVA (380-780 nm), UVB (280-315 nm), UVC (780-1.400 nm).
d) UV1 (100-400 nm), UV2 (400-700 nm), UV3 (700-1.000 nm).

305. Zer uhin-luzeraren tartea du erradiazio infragorriak erradiazio optiko artifizialei buruzko apirilaren 23ko 486/2010 Errege Dekretuan?

a) 780 nm-1 mm, IRA, IRB eta IRC azpieskualdeekin.
b) 315-400 nm, IRA eta IRB artean azpibanatua.
c) 100-280 nm, IRC-an azpibanatua.
d) 380-780 nm, azpibanaketarik gabe.

306. Zer da "laser" kontzeptua erradiazio optiko artifizialei buruzko apirilaren 23ko 486/2010 Errege Dekretuan?

a) Igorpen estimulatu bidez erradiazio ionizatzailea anplifikatzen duen gailua.
b) Tarte optikoan erradiazio elektromagnetikoa sortzen edo anplifikatzen duen gailua, kontrolatutako igorpen estimulatuaren bidez.
c) Erradiazio inkoherente ikusgaia igortzen duen gailua.
d) Kirurgia-prozedurak gidatzeko gailu akustikoa.

307. Erradiazio optiko artifizialei buruzko apirilaren 23ko 486/2010 Errege Dekretuaren arabera, zer gorputz-atalek pairatzen dute erradiazio optiko artifizialen eraginpean egotearen ondorioa?

a) Bihotzak eta birikak.
b) Begiek eta larruazalak.
c) Barne-belarriak eta hezur-muinak.
d) Gibelak eta giltzurrunak.

308. Erradiazio optiko artifizialei buruzko apirilaren 23ko 486/2010 Errege Dekretuan, zer neurri jasotzen da erradiazio optikoko muga-balioak gainditzen diren lekuetarako?

a) 485/1997 Errege Dekretuarekin bat datorren seinaleztapena eta, ahal denean, eta justifikatuta dagoenean, sarbidea mugatzea.



b) Seinaleztatzeko salbuespena, norbera babesteko ekipamenduak badaude.
c) Soilik ekipamendua laserra bada seinaleztatzea.
d) Seinaleztatzea borondatezkoa da hitzarmenaren arabera.

309. Erradiazio optiko artifizialei buruzko apirilaren 23ko 486/2010 Errege Dekretuan, zeharkako zer eragin aintzat hartu behar dira ebaluazioan?

a) Ikusmen-akidura soilik.
b) Ingurune-zarata.
c) Aldi baterako itsualdia, leherketa edo sutea.
d) Deskarga elektrostatikoak, eta taupada-markagailuak.

310. Eremu elektromagnetikoekiko eraginpean egotearen ondoriozko zer eragin biofisiko zuzen jasotzen dira eremu elektromagnetikoei buruzko uztailaren 22ko 299/2016 Errege Dekretuan?

a) Eragin termikoak.
b) Eragin ez-termikoak.
c) Korronteak gorputz-adarretan.
d) Epe luzera izan ditzakeen ondorioak.

311. Eremu elektromagnetikoekiko eraginpean egotearen ondoriozko zer zeharkako eragin aipatzen dira eremu elektromagnetikoei buruzko uztailaren 22ko 299/2016 Errege Dekretuan?

a) Aldaketak ikusmen-zolitasunean.
b) Gailu mediko elektronikoekiko interferentziak, objektu ferromagnetikoen proiekzioa, detonagailuen aktibazioa, suaren ondoriozko suteak/leherketak, eta kontaktu-korronteak.
c) Eraginpean egotearen ondoriozko hipotermia.
d) Zarataren ondoriozko entzumen-galera.

312. Zein da eremu elektromagnetikoei buruzko uztailaren 22ko 299/2016 Errege Dekretuaren irismena eremu elektromagnetikoekiko eraginpean egotearen ondoriozko epe luzerako eraginei so?

a) Prebentzio-mugekin jorratzen ditu.
b) Ez ditu jorratzen, lotura kausala ezartzen duten datu zientifikorik ez dagoelako egiaztatuta.
c) Eranskin espezifikoan arautzen ditu.
d) Erkidegoko araudira bideratzen ditu.

313. Eremu elektromagnetikoei buruzko uztailaren 22ko 299/2016 Errege Dekretuan zer salbuespen aurreikusten dira eremu elektromagnetikoekiko eraginpean egotearen muga-balioei eta ekintza-mailei dagokienez?

a) Ikerketa espazialerako salbuespenak soilik.
b) Edozein instalazio industrialerako.



c) Osasun arloko jarduera guztietarako, mugarik gabe.
d) Erresonantzia magnetiko klinikoaren bidezko irudirako (EMI), instalazio/jarduera militarretako pertsonentzat, eta, aldi baterako, behar bezala justifikatutako sektore/jarduera espezifikoetarako.

314. Zein da eremu magnetiko estatikoetarako ekintza-maila (EM), taupada-markagailuaren interferentziak kontuan izanik, eremu elektromagnetikoei buruzko uztailaren 22ko 299/2016 Errege Dekretuko II. eranskinaren arabera?

a) 2 T.
b) 3 mT.
c) 0,5 mT.
d) 50 mT.

315. Zein dira osasunerako eraginarekin lotutako (SAR) eraginaren muga-balioak, 100 kHz–6 GHz bitartean, eremu elektromagnetikoei buruzko uztailaren 22ko 299/2016 Errege Dekretuko III. eranskinaren arabera?

a) Gorputz osoko SAR, 0,4 W/kg; Buruan eta enborrean lokalizatutako SAR, 10 W/kg; Gorputz-adarretan lokalizatutako SAR, 20 W/kg.
b) Gorputz osoko SAR, 4 W/kg; burua eta enborra, 1 W/kg; gorputz-adarrak, 2 W/kg.
c) Gorputz osoko SAR. 0,04 W/kg; burua eta enborra, 1 W/kg; gorputz-adarrak 2 W/kg.
d) Gorputz osoko SAR baino ez da ezartzen, 0,4 W/kg.

316. "Osasun-zentroetako lan-baldintzak" (LSHIN, 2001) dokumentuaren arabera, esparru hauetako zein sartzen da esplizituki ospitale-aurreproiektutik ikuspegi ergonomikoaren zati gisa?

a) Klinikako tresneriaren aukeraketa.
b) Langileen prestakuntza, unitateka.
c) Hondakinen kokapena, ingurumen-inpaktua eta kudeaketa.
d) a) b) eta c) zuzenak dira.

317. "Osasun-zentroetako lan-baldintzak" (LSHIN, 2001) dokumentuaren arabera, erakundearen barne-diseinuaren zer erabaki planteatzen da ergonomian inpaktua izan dezakeen aztertzeko alternatiba gisa?

a) Funtzio ezberdinak dituzten espazioen estandarizazioa.
b) Aldagelak langileen sarbideetatik hurbil ipintzea.
c) Zerbitzuak zentralizatzea edo deszentralizatzea.
d) Tarteko biltegiak kentzea.

318. "Osasun-zentroetako lan-baldintzak" (LSHIN, 2001) dokumentuan zer printzipio ezartzen da espazioaren eta erabiltzailearen arteko harremanari dagokionez lanpostua diseinatzeko garaian?

a) Espazioa pertsonara egokitzea, eta ez alderantziz.
b) Langilea espaziora egokitzea, eta ez alderantziz.

c) Erabiltzailera egokitzearen ordez pazientera egokitzea.
d) Ekipamenduaren egokitzapena lehenestea, erabiltzailearen aurretik.

319. "Osasun-zentroetako lan-baldintzak" (LSHIN, 2001) dokumentuan zer deskribatzen da diseinurako "ezaugarri dinamikoak" aipatzen denean?

a) Aireztapenaren eta aire-korrontearen araubidea.
b) Lanketak egitearekin lotutako mugimenduak.
c) Kutsatzaileen kontzentrazioak denboran zehar duen bilakaera.
d) Agente biologikoak haztea (bakteriak, onddoak eta lizunak, nagusiki) ahalbidetzen duten tenperatura eta hezetasuna.

320. "Osasun-zentroetako lan-baldintzak" (LSHIN, 2001) dokumentuaren arabera, zer elementu gaineratzen da lanpostuaren "dimentsio-azterketaren" irizpide gisa?

a) Gehienez manipulatzeko pisuak.
b) Gehieneko bultzada- eta arraste-indarrak.
c) Manipulatzeko kargen dimentsioak.
d) Hanken arteko espazioa.

321. "Osasun-zentroetako lan-baldintzak" (LSHIN, 2001) dokumentuaren arabera, zein da oinez egiteko lanen planorako gomendatzen den altuera, emakumeen kasuan?

a) 70-80 cm.
b) 85-95 cm.
c) 95-100 cm.
d) 105-115 cm.

322. "Osasun-zentroetako lan-baldintzak" (LSHIN, 2001) dokumentuaren arabera zein da eserlekurako gomendatzen den zabalera?

a) 480-550 mm.
b) 400-450 mm.
c) 350-400 mm.
d) 300-350 mm.

323. Zer altuera adierazten da erizaintzako moduluaren mostradorerako "Osasun-zentroetako lan-baldintzak" (LSHIN, 2001) dokumentuko adibideetan?

a) 75 cm.
b) 90 cm.
c) 110 cm.
d) 130 cm.

324. Miaketa-eremuan, zer altuera-tarte proposatzen da miaketa-mahairako "Osasun-zentroetako lan-baldintzak" (LSHIN, 2001) dokumentuko adibideetan?

a) 65-75 cm.
b) 75-85 cm.
c) 85-95 cm.
d) 95-105 cm.

325. Zer argiztapen-maila orokor gehieneko adierazten da ebakuntza-geletarako "Osasun-zentroetako lan-baldintzak" (LSHIN, 2001) dokumentuan?

a) 500 lux.
b) 1000 lux.
c) 5000 lux.
d) 10.000 lux.

326. Kargak eskuz manipulatzeari buruzko apirilaren 14ko 487/1997 Errege Dekretuko eranskinaren arabera, kargaren ezaugarri hauen artean, zein da bizkarralderako eta gerrialderako arriskua dakarrena?

a) Handiegia den karga.
b) Ukondoen parean eta enborretik hurbil kokatzen den karga.
c) Astunegia den karga.
d) a eta c zuzenak dira.

327. Kargak eskuz manipulatzeari buruzko apirilaren 14ko 487/1997 Errege Dekretuko eranskinaren arabera, kargaren zein ezaugarrik eragin dezake bizkarralderako eta gerrialderako arriskua?

a) Oreka ezegonkorra.
b) 10 kilotik gorako karga.
c) 20 kilotik gorako karga.
d) Gainazal barrubiguna.

328. Kargak eskuz manipulatzeari buruzko apirilaren 14ko 487/1997 Errege Dekretuko eranskinaren arabera, enborreko zer mugimendu jotzen da arriskutsutzat?

a) Enborra luzatzea, esfortzua egiteko.
b) Enborra makurtzea esfortzua egiteko.
c) Enborra bihurritzea esfortzua egiteko.
d) b eta c zuzenak dira.



329. Kargak eskuz manipulatzeari buruzko apirilaren 14ko 487/1997 Errege Dekretuko eranskinaren arabera, laneko bitartekoari dagokion zer baldintzak AREAGOTZEN du arriskua?

a) Zoru uniforme eta irristagaitza.
b) Nahikoa espazio libre, bereziki altueran.
c) Gorputz-jarrera egokia ahalbidetzen duen lanerako altuera.
d) Zoru irregularra edo langilearen oinetakoentzat irristakorra dena.

330. Kargak eskuz manipulatzeari buruzko apirilaren 14ko 487/1997 Errege Dekretuko eranskinaren arabera, jardueraren barneko zer eskakizunak eragin dezake bizkarralderako eta gerrialderako arriskua?

a) Maiztasun handiegiarekin edo denbora luzeegian egindako esfortzu fisikoak egitea.
b) Langileak modulatu dezakeen lan-erritmoa izatea.
c) Garraio-distantzia laburrak egitea.
d) Gerriko paxarik ez erabiltzea.

331. Kargak eskuz manipulatzeari buruzko apirilaren 14ko 487/1997 Errege Dekretuko eranskinaren arabera, hauen artean, zein da arrisku-faktore indibiduala?

a) Norbera babesteko ekipamendu egokiak erabiltzea.
b) Behar besteko ezagutza eguneratua izatea.
c) Aldez aurretik bizkarralderako eta gerrialderako patologiarik ez izatea.
d) Arropa edo beste gai pertsonal desegokiak izatea.

332. Kargak eskuz manipulatzeari buruzko apirilaren 14ko 487/1997 Errege Dekretuko eranskinaren arabera, esfortzu fisikoaren zer alderdik dakar arriskua?

a) Beti berdin eutsita jaso edo jaistea.
b) Esfortzua modu egonkorrean bermatuta egitea.
c) Karga oraldia aldatu beharrik gabe jaso edo jaistea.
d) Pisuaren zamari eusten dion hanka txandakatzea.

333. Zer adierazten du NC/Op proportzioak MAPO indizearen formularen barruan, NTP 907 arauaren arabera (pazienteak eskuz manipulatzearen ondoriozko arriskuaren ebaluazioa: MAPO metodoa)?

a) Zeharo ez kolaboratzaileak diren pazienteen eta 24 orduan presente daude langileak.
b) Ekipamendu osagarriarekin egindako maniobren ehunekoa.
c) Erabilgarri dauden laguntza teknikoen eta ohe-kopuruaren arteko erlazioa.
d) Laguntza-txanda bakoitzeko bata besteko transferentzia-kopurua.



334. Zer adierazten da MAPO semaforoaren ereduko zerrenda berdeari buruz, NTP 907 arauaren arabera (pazienteak eskuz manipulatzearen ondoriozko arriskuaren ebaluazioa: MAPO metodoa)?

a) Lunbalgia-gertakari oso nabari bati dagokiona.
b) Lunbalgia akutuaren prebalentzia ez dagoela biztanleria osoarenaren gainetik.
c) Berehala esku hartzea eskatzen duela.
d) Karga biomekanikorik ez izatea dakarrela.

335. Zer irizpidek definitzen du gorapen-faktorearen (SF) nahikotasun numerikoa, NTP 907 arauaren arabera (pazienteak eskuz manipulatzearen ondoriozko arriskuaren ebaluazioa: MAPO metodoa)?

a) Laguntza-mobilizazioan prestakuntza espezifikoa izatea.
b) Jasotzaile bat autonomoak ez diren lau pazienteko.
c) Edozein laguntza mekanikoren presentzia, kopurua edozein izanik ere.
d) Altuera erregulagarria duen jasogailu edo esku-ohe bat, gutxienez, zeharo ez kolaboratzaileak diren zortzi pazienteko.

336. MAPO metodoan, nola interpretatzen da semaforoaren ereduko zerrenda horia, NTP 907 arauaren arabera (pazienteak eskuz manipulatzearen ondoriozko arriskuaren ebaluazioa: MAPO metodoa)?

a) Berehalako esku-hartzea eskatzen duen arrisku handia.
b) Epe laburrera esku hartzea eskatzen duen eragin-maila ertaina.
c) Epe ertain edo luzera esku hartzea eskatzen duen eragin-maila ertaina.
d) Populazio orokorrarekin aldera daitekeen arrisku onargarria.

337. Zer hiru osagai batzen dira ingurunearen desegokitasunaren batez besteko puntuazioa (PAamb) lortzeko, NTP 907 arauaren arabera (pazienteak eskuz manipulatzearen ondoriozko arriskuaren ebaluazioa: MAPO metodoa)?

a) Higienerako bainugela, WC-z hornitutako bainugela eta gela.
b) Gela, korridoreak eta WC-z hornitutako bainugelak.
c) Higienerako bainugela, korridoreak eta gela.
d) Gela, areto teknikoak eta korridoreak.

338. Zertarako erabiltzen da gurpildun aulkien batez besteko puntuazioa (PMSR) MAPO metodoaren barruan, NTP 907 arauaren arabera (pazienteak eskuz manipulatzearen ondoriozko arriskuaren ebaluazioa: MAPO metodoa)?

a) Mugikortasun-faktorearen (FM) balioa zehazteko.
b) Gurpildun aulkiaren faktorearen balioa (FC) zehazteko.
c) Jasotze-faktorearen balioa (FS) zehazteko.
d) Beste laguntza txikiago batzuen faktore-balioa (FA) lortzeko.

339. Zer baldintza eskatzen da laguntza txikiak egokitzat jotzeko MAPO metodoan, NTP 907 arauaren arabera (pazienteak eskuz manipulatzearen ondoriozko arriskuaren ebaluazioa: MAPO metodoa)?

a) Pazientearen maniobra partzialen % 50ean, gutxienez, erabilgarri egotea.
b) Pazientearen maniobra partzialen % 75ean, gutxienez, erabilgarri egotea.
c) Pazientearen maniobra partzialen % 90ean, gutxienez, erabilgarri egotea.
d) Egotea, edozein delarik ere maniobren ehunekoa.

340. NTP 844 arauaren arabera (Lan errepikakorrak: arrisku ergonomikoak ebaluatzeko Ergo/IBV metodoa), zer ebaluatzen du espezifikoki Ergo/IBV metodoak ziklo zehaztuak dituzten lan errepikakorretan?

a) Bizkarrezur osoaren arrisku orokorra.
b) Lesio muskuloeskeletikoaren arriskua lepoan, sorbaldan eta esku-eskumuturrean, modu independentean.
c) Eskuen errepikagarritasuna soilik, bere posturak kontuan izan gabe.
d) Eskuen errepikagarritasuna soilik, bere posturak kontuan izanik.

341. Zertan oinarritzen da OCRA check-list metodoa, lan errepikakorrak ebaluatzeko?

a) Etenaldien, maiztasunaren, indarraren, posturaren eta faktore osagarrien puntuazioen baturan.
b) Txanda bakoitzeko gehieneko karga kardiobaskularraren kalkuluan.
c) Metabolismoaren balorazioan.
d) Minutuko oxigeno-kontsumoaren neurketan.

342. NTP 844 arauaren arabera (Lan errepikakorrak: arrisku ergonomikoak ebaluatzeko Ergo/IBV metodoa), hurrengo gomendio operatiboen artean, zein sartzen da Ergo/IBV aplikazioaren barruan?

a) Azpilanketen bideoa ez grabatzea, langilea ez baldintzatzeko.
b) Azpilanketen bideoa grabatzea, posturak eta errepikagarritasuna zehaztasunez zenbatesteko.
c) Dinamometriarekin neurtzea esklusiboki, bideo-grabaketarik eta behaketarik gabe.
d) Atseden estandarrak suposatzea, lanketan egiaztatu gabe.

343. NTP 844 arauaren arabera (Lan errepikakorrak: arrisku ergonomikoak ebaluatzeko Ergo/IBV metodoa), nola definitzen da “azpilanketa” Ergo/IBV metodoan?

a) Lanketaren aparteko zati bat, eragin-mailaren portzentaje bat duena.
b) Denboraren % 5 baino gutxiagoan errepikatzen diren mugimenduen multzoa.
c) Erregistratu gabeko edozein etenaldi ez produktibo.
d) Soilik indar-jarduerak > borondatezko gehienekoaren % 30.



344. NTP 844 arauaren arabera (Lan errepikakorrak: arrisku ergonomikoak ebaluatzeko Ergo/IBV metodoa), zer denbora-iraunkortasun baldintza eskatzen dute posturek azpilanketa baten barnean Ergo/IBV metodoan?

a) Posturak % 100etik gorakoak izan daitezke gainjartzeak kontuan izateko.
b) Posturak errepikapen-zenbaki batekin adierazten dira soilik.
c) Azpilanketa beraren postura guztien denboren batura % 100 izan behar da.
d) Posturak ez dira denbora-portzentajean zenbatzen.

345. NTP 844 arauaren arabera (Lan errepikakorrak: arrisku ergonomikoak ebaluatzeko Ergo/IBV metodoa), zer egin behar da Ergo/IBV metodoan 3. edo 4. mailako arriskuak hautematen direnean?

a) Beste ebaluazio-metodo bat erabiltzea.
b) Arriskua murrizteko gomendioak eman, esku-hartze ergonomikoari lehentasuna emanez.
c) Lanketa kentzea, alternatibarik eman gabe.
d) Arrisku larri eta berehalakoaren aukera balioestea.

346. NTP 844 arauaren arabera (Lan errepikakorrak: arrisku ergonomikoak ebaluatzeko Ergo/IBV metodoa), lepoko zein aldagaik handitzen du puntu bat puntuazioa Ergo/IBV metodoan, agertzen denean?

a) Mikro-dardarak.
b) 0–10°-eko tolesdura.
c) 5-10°-eko tolesdura.
d) Albo-inklinazioa edo lepoaren bihurdura.

347. Esaldi hauen artean, zein da OCRA check-list metodoaren abantaila bat deskribatzen EZ duena, NTP 629 arauaren arabera?

a) Intuitiboa eta osoa da, eta etenaldiak aintzat hartzen ditu.
b) Objektuei eta tresnei eusteko modua ebaluatzen du.
c) Eskuzko eusteko modu guztiek larritasun bera dutela adierazten du.
d) Faktore osagarrien presentzia aintzat hartzen du.

348. NTP 629 arauaren arabera, zer gaineratzen du OCRA eguneratzeak besoen jarduera-maiztasunaren ebaluazioan?

a) Tarteko kategoriak ezabatu egiten ditu.
b) Tarteko itemak zehazten ditu, minutuko ekintza-tarteekin.
c) Minutuko ekintzen ordez orduko ekintza zehazten du.
d) Maiztasuna sartzen du postura estatikoen iraupenaren ordez.



349. NTP 844 arauaren arabera (Lan errepikakorrak: arrisku ergonomikoak ebaluatzeko Ergo/IBV metodoa), Ergo/IBV metodoan, zein da gehieneko indarraren % 50 - % 80rekin bat datorren eskuzko esfortzuaren sailkapena?

a) Lanketa gogorra.
b) Lanketa gogor samarra.
c) Lanketa oso gogorra.
d) Ia maximoa.

350. NTP 844 arauaren arabera (Lan errepikakorrak: arrisku ergonomikoak ebaluatzeko Ergo/IBV metodoa), arriskuaren zer dimentsio kalkulatzen du Ergo/IBV metodoak gorputz-eremuaren araberako mailez gain?

a) Epe labur, ertain eta luzerako arriskua sorbalda-lepoarentzat.
b) Gehieneko arraste- eta bultzada-indarra.
c) Energia-kontsumoa lanaldiko.
d) Norberak aitortutako minaren eskala sorbalda-eskumuturrerako.

351. Zer faktore osagarri baloratzen du OCRA metodo eguneratuak magnitudearen arabera puntuazio ezberdina emanez, NTP 629ren arabera: Mugimendu errepikakorrak: ebaluazio-metodoak. OCRA metodoa: eguneraketa?

a) Esku-beso dardara.
b) Mikroklima termikoa.
c) Giro-argiztapena.
d) Ultrasoinuak.

352. NTP 844 arauaren arabera (Lan errepikakorrak: arrisku ergonomikoak ebaluatzeko Ergo/IBV metodoa), nola erregistratzen da errepikagarritasuna Ergo/IBV metodoan besoetarako eta eskuetarako?

a) Mugimendu-denborari dagozkion portzentaje gisa.
b) Minutuko errepikapen eran.
c) Mugimendurik gabeko denboraren portzentaje gisa.
d) Mugimendurik gabeko denborarekiko mugimendu-denboraren portzentaje modura.

353. NTP 844 arauaren arabera (Lan errepikakorrak: arrisku ergonomikoak ebaluatzeko Ergo/IBV metodoa), zer arrisku-maila erabiltzen ditu Ergo/IBV metodoak, eta nola interpretatzen dira orokorrean?

a) Hiru maila; 3. mailak esku-hartze ergonomikoari lehentasuna ematea dakar.
b) Lau maila; 4. mailak esku-hartze ergonomikoari lehentasuna ematea dakar.
c) Bi maila; 2. mailak esku-hartze ergonomikoari lehentasuna ematea dakar.
d) Bost maila; 5. mailak esku-hartze ergonomikoari lehentasuna ematea dakar.

354. Postu hauetako zein dago datuak bistaratzeko pantailak dituzten ekipoei buruzko apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretuaren aplikazio-eremutik kanpo?

a) Mahai gaineko ordenagailuak dituzten administrazio-postuak.
b) Kontrol-aretoetako zainketa-postuak.
c) Publikoak, modu lehenetsian, erabiltzeko informatika-sistemak.
d) Bulegoetan terminal finkoa eta teklatua duten postuak.

355. Hauen artean, zein EZ da lanpostuaren definizioan sartzen, datuak bistaratzeko pantailak dituzten ekipoei buruzko apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretuaren ondorioetarako?

a) Eraikinaren klimatizazio-sistema orokorra.
b) Pertsona/makina interkonexiorako programa.
c) Bulegoko osagarriak.
d) Lanerako aulkia eta mahaia edo eremua, bai eta gertuko lan-ingurunea ere.

356. Datuak bistaratzeko pantailak dituzten ekipoei buruzko apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretuaren arabera, zer arrisku aintzatetsi behar dira esplizituki bistaratzeko pantailak erabiltzea eskatzen duen postuan?

a) Pantailak eragindako ikusmen-arriskuak.
b) Ordenagailuak erabiltzearekin lotutako karga mentala.
c) Pantailaren erradiazioak sorrarazitako arriskuak.
d) Ikusmen-arriskuak, arazo fisikoak eta karga mentala.

357. Erakunderako zer neurri aurreikusten da datuak bistaratzeko pantailak dituzten ekipoei buruzko apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretuan, ebaluazioan pantailak erabiltzearen ondoriozko arriskua hautematen denean?

a) Astero sailen artean txandakatzea.
b) Pantailan jarraian lan egiteko gehieneko denbora murriztea.
c) Pantaila-ekipoak kentzea.
d) Teklatua ahotsaren bidezko gailuekin ordeztea derrigorrez.

358. Datuak bistaratzeko pantailak dituzten ekipoei buruzko apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretuari buruzko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalaren (LSOIN) gidaren arabera, laneko segurtasunari eta osasunari buruzko zer informazio jaso behar du pantailen erabiltzaile bakoitzak? Adierazi aukera OKERRA:

a) Iruzurrezko mezu elektronikoak hautemateari buruzko informazioa.
b) Altzariak erabiltzeko modua.
c) Sedentarismo luzea saihesteko gomendioak.
d) Nekeari aurrea hartzeko jarraibide osasungarriak.



359. Datuak bistaratzeko pantailak dituzten ekipoei buruzko apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretuaren arabera, zer informazio espezifiko helarazi behar dio enpresariak langileari pantailak erabiltzea dakarren lanpostuari dagokionez?

a) Monitorearen eta teklatuaren kokapenari buruzkoa.
b) Lanpostuko segurtasunari eta osasunari buruzko alderdi guztiei buruzkoa.
c) Etenaldien ordutegiari buruzkoa.
d) Pantailaren erradiazio-datuei buruzkoa.

360. Zer betekizun EZ dator bat pantailaren ezaugarriekin bistaratzeko pantailak dituzten ekipoei buruzko apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretuko eranskinaren arabera?

a) Ongi definitutako karaktereak eta behar besteko dimentsioaz.
b) Koloredun irudia.
c) Argia eta kontrastea doitzeko aukera.
d) a) eta c) zuzenak dira.

361. Datuak bistaratzeko pantailak dituzten ekipoei buruzko apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretuaren arabera, zer baldintza bete behar da pantailan islak eta distirak ekiditeko?

a) Pantaila dirdiratsuak erabiltzea gardentasuna hobetzeko.
b) Pantailak ez du enbarazu egiten duen islarik izan behar, ezta distirarik ere.
c) Argiztapen naturala ekiditea.
d) Ingurunearen luminantzia areagotzea.

362. Teklatuari eta bere inguruneari dagokienez, zer betekizun konbinatu ezartzen dira datuak bistaratzeko pantailak dituzten ekipoei buruzko apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretuaren eranskinean?

a) Teklatuaren aurrean tartea uztea, besoak eta eskuak bermatzeko.
b) Teklatu atzetik argiztatua.
c) Teklatuaren ikurrak laneko ohiko kokapenetik irakurtzeko modukoak izan behar dira.
d) a) eta c) zuzenak dira.

363. Datuak bistaratzeko pantailak dituzten ekipoei buruzko apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretuaren arabera, zer betekizun bete behar du lanerako mahai edo gainazal batek bere akaberari eta dimentsioei dagokienez?

a) Oso distiratsua izan behar da, argiztapena hobetzeko.
b) Behar adinako dimentsioa izan behar du.
c) Zurezkoa edo beste material natural batzuetakoa izatea lehenetsiko da.
d) b) eta c) zuzenak dira.



364. “Arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak” dokumentuan (LSOIN, 2022), zer lotura planteatzen da arrisku psikosozialeko faktoreen eta laneko istripuen artean?

a) Ez dago loturarik, istripuak mekanikoak izaten baitira, funtsean.
b) Lotura gaueko txandak dituzten enpresetara mugatzen da.
c) Zenbaitetan, lotura hori izaten da istripu askoren jatorria.
d) Lotura formalki egiaztatutako jazarpena dagoenean soilik ematen da.

365. Arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak” dokumentuan (LSOIN, 2022), zein da in itinere edo misioan dauden zirkulazio-istripuekin lotutako arrazoi psikosozial potentzialaren adibidea?

a) GPS edota telefono mugikorrarekin ibiltzea.
b) Ibilbideak eta laneko denbora behar bezala ez kudeatzea.
c) Lan-erritmoaren gainean erabakien kontrola areagotzea.
d) Alokairuzko ibilgailuak erabiltzea.

366. Arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak” dokumentuan (LSOIN, 2022), zer patologia aipatzen da potentzialki arrisku psikosozialeko faktoreen eraginpean egotearekin lotuta, eta zerk azalduko lituzke ezintasun eta istripu hilgarrien zati bat, batez ere adin jakin batetik aurrera?

a) Ukipen-dermatitisa.
b) Patologia ez traumatikoa, esate baterako, gaixotasun kardiobaskular eta zerebrobaskular ez traumatikoak.
c) Alkoholismoa.
d) Lo-ezina.

367. Zer ulertzen da presentismo gisa, arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak” dokumentuan (LSOIN, 2022)?

a) Lanlekuan egotea ohiko lanketak eginez.
b) Lanlekuan egotea, ezohiko lanketak eginez.
c) Lanlekuan egotea, dedikazio edo produktibitate eskasarekin.
d) Lanlekuan egotea, lanalditik harago.

368. Arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak” dokumentuan (LSOIN, 2022), zein da kudeaketa psikosozialerako oinarrizko eta funtsezko objektua?

a) Laneko gogobetetzea eta erakundeko giroa.
b) Osasun mentalari eragindako kaltea.
c) Motibazio indibiduala laneko aldagai gisa.
d) Izaera psikosozialeko lan-baldintzak.

369. Zein da arrisku psikosozialen kudeaketaren helburua arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuaren (LSOIN, 2022) arabera?

a) Baldintza horiek eragindako arriskua kentzea edo, ezin bada, muga onargarrietaraino murriztea, ebaluazioaren, esku-hartzearen eta kontrolaren bidez.
b) Osasun mentala sustatzeko programak txertatzea.
c) Prebentzio orokorreko plana esklusiboki psikosoziala den batekin ordeztea.
d) Laneko giroari buruzko galdetegien bidez laneko gogobetetzea neurtzea.

370. Arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuan (LSOIN, 2022), zer tresnaren bidez kudeatu behar dira laneko arriskuak (arrisku psikosozialak barne) enpresako kudeaketa-sistema orokorrean?

a) Kalitatea neurtzeko kanpoko auditoretza borondatezkoak.
b) Arriskuen prebentziorako plan bat txertatu eta aplikatzea.
c) Hiru hilean behin gogobetetze-inkestak egitea.
d) Langileari laguntzeko programak.

371. Arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuan (LSOIN, 2022), zer gomendatzen da ezin egokiago gisa kudeaketa psikosozialeko sistemaren faseetan sakondu aurretik?

a) Bigarren mailako neurriekin soilik jardutea, ekinaldia hobetzeko.
b) Ebaluazioaren zain egotea, faktore ezagunetan esku hartzeko.
c) Prebentzioa diseinu-fasean txertatzea, lanpostuen diseinu psikosozialean erreparatuz.
d) Laneko giroan eta hierarkia-harremanetan jardutea.

372. Arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuan (LSOIN, 2022), zer ideia azpimarratzen da ezagutzen diren baldintza desegokien gainean esku-hartzeari buruz?

a) Ebaluazio psikosozialeko prozesu bati itxaron behar zaio, ezinbestean.
b) Zuzenean kendu edo hobetu daitezke, ebaluazioaren zain egon gabe.
c) Prebentzio Zerbitzuaren erabaki betearazleekin soilik aldatu daitezke.
d) Prestakuntzarekin heldu behar zaie, esate baterako, estresaren kudeaketari buruzko prestakuntzarekin.

373. Arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuaren (LSOIN, 2022) arabera, zer ulertzen da, orokorrean, arrisku psikosozialen ebaluazioan sartzen dela?

a) Prebentzio-jardueren plangintza.
b) Soilik istripuen edo ezbehar-adierazleen azterketa.
c) Dauden arrisku-faktoreen identifikazioa eta eragin-mailaren garrantziaren eta irismenaren zenbatespena.
d) Kudeaketa psikosozialeko kudeaketa-prozesuaren sintesia.

374. Arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuan (LSOIN, 2022), zein da arrisku psikosozialak identifikatzeko fasearen helburua?

a) Ebaluatzeko postuak zehaztea.
b) Dauden faktore psikosozialen artean, arriskutsuak izan daitezkeenak zehaztea.
c) Azterketa-unitateak zehaztea, sailaren arabera.
d) Arrisku psikosozialen arrazoiak zehaztea.

375. Arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuan (LSOIN, 2022), zer egoera aipatzen da balizko emaitza gisa arrisku psikosozialeko faktoreak identifikatzen amaitzean?

a) Erakundeaz kanpoko laguntzetara jotzeko premia.
b) Ebaluazio-metodo bat hautatzeko premia.
c) Gertatu daiteke faktorerik ez identifikatzea, faktoreak identifikatzea, edo zalantzazko egoera bat izatea.
d) Osasunaren zaintza berrikusteko premia.

376. Zer azpimarratzen da laneko denborari buruz, arrisku-faktore gisa, identifikazioan, arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuaren (LSOIN, 2022) arabera?

a) Arrisku-faktore bihurtzen da soilik txandaka edo gauez lan egiteagatik.
b) EZ da arrisku-faktore bihurtzen ageriko arrazoiengatik bakarrik; inguruabar asko daude hori ekar dezaketenak, eta ezagutu egin behar direnak.
c) Beti da arrisku-faktorea larrialditako zerbitzuetan.
d) Arriskutzat jotzen da soilik lanalditik kanpo hiperkonektibitatea baldin badago soilik.

377. Baldintza hauetako zein agertzen da laneko denbora arrisku-faktore gisa identifikatuko EZ litzatekeen egoeraren adibide gisa, arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuaren (LSOIN, 2022) arabera?

a) Txandaka lan egitea.
b) Ordutegiak aldatzea, aurretik jakinarazi gabe.
c) Uneoro eskuragarri izatea.
d) Ordutegi malgua.

378. Zer baieztatzen da psikosoziologian faktoreak ebaluatzearen inguruan izan ohi den joerari buruz, arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuaren (LSOIN, 2022) arabera?

a) Aldez aurretik agerikotzat identifikatzen diren faktoreak soilik ebaluatzen dira.
b) Dagoeneko sortutako kalte agerikoa duten faktoreak ebaluatzen dira.
c) Ohikoa da metodologietan jasotzen diren balizko faktore guztiak ebaluatzea, aldez aurretik identifikatu ez arren.
d) Aldeko emaitzak dituzten faktoreak ebaluatzea ekiditen da, txostena ez baldintzatzeko.

379. Zer ezartzen da identifikazioaren eta ebaluazioaren arteko harremanari buruz psikosoziologian, arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuaren (LSOIN, 2022) arabera?

a) Beti aparteko prozesu sekuentzialak dira, gainjartzerik gabe.
b) Prozesu bakarra osatu ohi dute.
c) Identifikazioa ez da beharrezkoa, absentismo-adierazleak baldin badaude.
d) Ebaluazioa hierarkia-ildoarekiko elkarrizketa batera mugatzen da.

380. Hurrengo jardueren artean, zein sartzen da arrisku psikosozialeko faktoreen ebaluazioan, arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuaren (LSOIN, 2022) arabera?

a) Soilik hautatutako metodoaren aplikazioa, ondorengo azterketarik gabe.
b) Soilik eskuratutako datuen azterketa.
c) Ebaluazio-metodoaren hautaketa.
d) Tratamendu psikologikoen zehaztapena.

381. Arrisku psikosozialeko faktoreren batean ziurgabetasun-egoerarik gertatuz gero, zer jarraibide aurreikusten da, arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuaren (LSOIN, 2022) arabera?

a) Enpresarako mesedegarriena den egoera aintzatestea, eta esku-hartze psikosozialaren bidea hartzea.
b) Teknika osagarrietan sakontzea.
c) Hiru hilabete igarota, ebaluazio-prozesua errepikatzea.
d) a eta b zuzenak dira.

382. Zer helburu du adierazleak bildu eta aztertzeak diagnosi psikosozialean, arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuaren (LSOIN, 2022) arabera?

a) Landa-lana enpresa-erregistroekin ordeztea.
b) Informazio adierazgarria jasotzea, diagnosi psikosozialaren mesedetan.
c) Kudeaketa psikosoziala objektibatzea.
d) Erakundeko aginte-estiloa eta harremanak zehaztea.

383. Zergatik baieztatzen da galdetegi bakar batek ere, oso-osoa izanda ere, ezin duela berez ebaluazio psikosoziala osatu, arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuaren (LSOIN, 2022) arabera?

a) Galdetegiek ez dutelako sekula baliorik eta fidagarritasunik izaten.
b) Ebaluazioak LSOIN-en FPSICO metodologia erabili behar duelako.
c) Prozedura batean txertatu behar delako, non funtsezkoena ez baita emaitza kuantitatiboa bakarrik, baizik eta emaitza hori ulertu eta testuinguruan kokatzea.
d) Araudiak langileen ordezkariei ebaluazio-metodoei buruz galdetzera behartzen duelako.

384. Nola esaten zaio diagnosi psikosozial egoki baterako hainbat teknika erabiltzeari, arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuaren (LSOIN, 2022) arabera?

a) Datuen erkaketa.
b) Aurkikuntzen berrespena.
c) Datuen triangulazioa.
d) Prebentzio-erredundantzia.

385. Zein da ebaluazio psikosozialeko oinarrizko azterketa-unitateetarako gomendatzen den irizpide orokorra, arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuaren (LSOIN, 2022) arabera?

a) Emaitzetan duten eraginagatik aukeratutako arloak izan behar dute beti.
b) Adin- eta sexu-multzoen arabera soilik definitu behar dira.
c) Sailak izan behar dira beti, alderatzea ahalbidetu eta emaitzak anonimoak izan daitezen.
d) Lanpostuak izan behar dira, arriskuen ebaluazio orokorrerako nomenklaturaren arabera.

386. Zer baldintza bete behar dute multzokatutako azterketa-unitateek egokiak izan daitezen, arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuaren (LSOIN, 2022) arabera?

a) Pertsonen gaineko erantzukizuneko eta ez-erantzukizuneko lanpostuak batzea, lagunaren tamaina areagotzeko.
b) Arlo psikosozialean, baterakoak diren elementuak dituzten lanpostuak multzokatzea.
c) Unitate berean baldintza psikosozial garrantzitsu ezberdinak dituzten lanpostuak ez batzea.
d) b) eta c) zuzenak dira.

387. Zer baieztatzen da ebaluazio-txostenari buruz galdetegi estandarizatu bat erabiltzen denean, arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuaren (LSOIN, 2022) arabera?

a) Softwarearen outputa osorik irauli behar da.
b) Konfidentzialtasunari muzin egin behar zaio, datu gaineratuak baitira.
c) Ez da emaitzak bere horretan erreproduzitzea.
d) Diagnosi kliniko indibidualak gaineratu behar ditu ezinbestean.

388. Zein da arrisku psikosozialak kudeatzeko oinarrizko jarraibideak" dokumentuan (LSOIN, 2022) ematen den esku-hartze psikosozialaren definizioa?

a) Kasu indibidualen tratamendu psikologikorako ekintza klinikoak definitzea, planifikatzea, txertatzea eta jarraipena egitea.
b) Arrisku psikosozialeko faktoreekiko eraginpean egotea kontrolatzeko xedez, laneko motibazio- eta giro-ekintzak eta -programak definitzea, planifikatzea, txertatzea eta jarraipena egitea.

c) Arrisku psikosozialeko faktoreekiko eraginpean egotea ekiditeko, eragin-maila murrizteko edota kontrolatzeko prebentzio-ekintza zehatzak definitzea, planifikatzea, txertatzea eta jarraipena egitea.
d) Arauzko kanpo-auditoretza, dokumentuak betetzen direla egiaztatzeko.

389. Osakidetzako laneko indarkeriagatiko jardute-protokoloan, kalte psikologikoa eragitearen ondoriozko baja ekarri duen istripua aintzat hartzen da:

a) Objektiboa dela esan daitekeen lesio fisikoa eta larrialdi-txostena daudenean.
b) Langileak maila psikikoan eragin garrantzitsua adierazten duenean eta, mediku arduradunaren arabera, bere ohiko lanarekin jarraitu ezin duenean.
c) Berehalako arduradunak alde bakarreko erabakiz baja erabakitzen duenean.
d) Langileak salaketa ipini duenean polizia-agintaritzan.

390. "Xedea" atalaren arabera, Osakidetzako laneko indarkeriagatiko jardute-protokoloaren helburuetako bat honako hauetarako neurri zuzentzaileak hartzea da:

a) Erasotzailea diziplinaz zigortzea, automatikoki, gertakaria jakinarazi ondoren.
b) Indarkeria-gertaera gehiago ekiditeko edota, ekidin ezin diren kasuetan, ondorio negatiboa arintzeko.
c) Erabiltzaileak larrialdietan artatzea behar duen denbora murrizteko.
d) Polizia-agintaritzaren esku-hartzea barneko bitartekaritzarekin ordezteko.

391. Erasoa pairatu duen langileari zuzendutako osasun-laguntza Prebentzioko Oinarrizko Unitatetik kanpo ematen bada, Osakidetzako laneko indarkeriagatiko jardute-protokoloan adierazten denez:

a) Laguntzaren arrazoiak eta modu objektiboan adierazitako lesioak jasotzen dituen mediku-txostena eskatu behar da.
b) Laguntza-egintza berean medikuaren alta eskatu behar da.
c) Berehalako arduradunari ahozko partea baino ez zaio eman behar.
d) Jarraipenerako Batzorde Teknikoari idatzia igorri behar zaio zuzenean.

392. Osakidetzako laneko indarkeriagatiko jardute-protokoloan ezartzen denez, erasoa jasan duen langileak, berehalako arduradunarekin batera, ahalik eta txosten zehatzena egin behar du honako hauek jasoz:

a) Egoerari buruzko datuak, ikusitako gertaerak edo lekukoen adierazpenak.
b) Balizko erasotzailearen identifikazioa soilik.
c) Erabiltzaileari administrazio-zehapena ipintzeko proposamena.
d) Egun horretan zentroan egondako pertsonen zerrenda osoa.

393. Osakidetzako laneko indarkeriagatiko jardute-protokoloaren arabera, berehalako arduradunak honako hauei helarazi behar die kaltetuarekin egindako txostena:

a) Gerentziari eta Segurtasun eta Osasun Batzordeari soilik.
b) Prebentzioko Oinarrizko Unitateari eta Gerentziari, lehenbailehen, ahal dela, istripua gertatu den egunean bertan.
c) Jarraipenerako Batzorde Teknikoari, beranduenez, 72 orduko epean.
d) Prebentzioko Oinarrizko Unitateari soilik, Gerentziari jakinarazi gabe.

394. Berehalako arduradunaren jardunaren arabera, laguntzeaz eta jakinarazteaz gain, Osakidetzako laneko indarkeriagatiko jardute-protokoloaren arabera, honakoak egin behar ditu:

a) Gerentziarekin elkarlanean aritu behar du dagozkion jarduketak egiten.
b) Langilearen legezko defentsa beregain hartu behar du auzitegietan.
c) Neurri zuzentzaileak ipini behar ditu, aurretik ikerketarik egin beharrik gabe.
d) Erasotzaileari idatziz kasuaren berri eman behar dio, hartu-agiriarekin.

395. Prebentzioko Oinarrizko Unitatearen zereginen barruan, Osakidetzako laneko indarkeriagatiko jardute-protokoloan adierazten denez, aipatu unitateak adierazitako egoera horrela ikertu behar du:

a) Erabiltzailearekin bitartekaritza-prozedura irekita.
b) Istripuen ikerketa-prozedura jarraituz.
c) Elkarrizketa informalak eginez esklusiboki, erregistrorik gabe.
d) Lesioa dakarren eraso fisikoa dagoenean soilik.

396. Osakidetzako laneko indarkeriagatiko jardute-protokoloaren arabera, zuzendaritza-taldeak honako hauen berri eman behar dio erasoa pairatu duen pertsonari:

a) Gauzatu diren jarduketak.
b) Erasotzailearen identitate osoa eta bere aurrekariak.
c) Segurtasun eta Osasun Batzordearen erabakien eduki osoa.
d) Salaketaren testua, aurkeztu aurretik.

397. Langileak salaketa jartzea erabakitzen badu edo salaketa baloratzeko legezko informazio osagarria behar badu, Osakidetzako laneko indarkeriagatiko jardute-protokoloan adierazten denez, honako hauek aurkeztu behar ditu:

a) Berehalako arduradunari egindako ahozko eskaera, dokumentu-erregistrorik gabe.
b) Prebentzioko oinarrizko unitatearen edo dagokion zuzendaritzaren eskaera-idatzia.
c) Aholkularitza juridikoari zuzenean igorritako posta elektronikoa, bitartekaritzarik gabe.
d) Segurtasun eta Osasun Batzordeari bideratutako eskaera.

398. Osakidetzako laneko indarkeriagatiko jardute-protokoloaren arabera, Erasoen Jarraipenerako Batzorde Teknikoaren burua da:

a) Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaria.
b) Osakidetzako Aholkulari Juridikoko Zuzendariordea.
c) Prebentzio Zerbitzuko arduraduna.
d) Giza Baliabideetako Zuzendariordea.

399. Osakidetzako laneko indarkeriagatiko jardute-protokoloaren arabera, Batzorde Teknikoaren osaeran, idazkaritzaz arduratzen da:

a) Prebentzio Zerbitzuko arduraduna.
b) Ospitalez Kanpoko Osasun Mentaleko arduraduna.
c) Osakidetzako Aholkulari Juridikoko Zuzendariordea.
d) Giza Baliabideetako Zuzendariordea.

400. Osakidetzako laneko indarkeriagatiko jardute-protokoloaren arabera, aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetzak beregain hartu ahal izango du erasoa jasan duten langileen laguntza juridikoa, Batzorde Teknikoak hala erabakitzen duenean, honako hauek barne hartuta:

a) Zentroan prebentzio arloko neurri zuzentzaileak ezartzea.
b) Salaketa edo kereila jartzean alboan egotea.
c) Auzitegietan legezko defentsa beregain hartzea.
d) b) eta c) zuzenak dira.

401. Osakidetzako laneko indarkeriagatiko jardute-protokoloan "aholkularitza" modura deskribatzen den zeregina, honako hauekin lotzen da:

a) Erasoen arloko zerbitzuen arloko erakunde guztien aholkularitza.
b) Aholkularitza klinikoa erasotzailearen kudeaketa psikiatrikoan.
c) Kanpo-aholkularitza gorabeheretatik eratorritako arrisku psikosozialen auditoretzetarako.
d) Erasotzaileari zuzendutako aholkularitza juridiko zuzena.

402. Osakidetzako laneko indarkeriagatiko jardute-protokoloaren arabera, Batzorde Teknikoak honako hauetan parte hartzen du:

a) Ildo estrategikoak ipintzen.
b) Prozesu judizializatuetan aurkeztu beharreko lesioen mediku-parteak idazten, lesioen beste parte batzuen edo auzitegiko peritatzeen kalterik gabe.
c) Langileen txandak erabakitzean, gorabehera baten ondotik.
d) Indemnizazio ekonomikoen administrazio-kudeaketan.

403. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrari buruzko urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 156. artikuluaren arabera, zein da laneko istripuaren legezko definizioa Araubide Orokorrean?

a) Langileak lanalditik kanpo pairatzen duen osasun-asaldura oro.
b) Lan-harremanean diagnostikatutako gaixotasun oro, edozein delarik ere bere jatorria.
c) Kalte psikiko oro, lanekoa ez den mediku-arrazoi egiaztatua egon ezean.
d) Besteren kontura egiten duen lana dela-eta, edo lan horren ondorioz, langileak pairatzen duen gorputzeko lesio oro.

404. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrari buruzko urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 156. artikuluaren arabera, zer presuntzio ezartzen du legeak langileak lantokian eta lanaldian pairatutako lesioei dagokienez?

a) Beti laneko istripuak dira, eta ez da kontrako probarik onartzen.
b) Laneko istriputzat hartuko dira, kontrakoa frogatu ezean.
c) Lanekoak ez diren istriputzat hartuko dira, kontrakoa frogatu ezean.
d) Kasu horietan ez da ezer berezkotzat jotzen.

405. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrari buruzko urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 156. artikuluaren arabera, ondoko egoeretatik, zein jotzen da langileen ordezkaritzari lotutako legezko aginduz laneko istriputzat?

a) Langilearen borondatezko prestakuntza-jardueretan gertatutakoak.
b) Auzibidetik kanpoko adiskidetze-ekitaldietan gertatutakoak.
c) Ezkontzearen ondoriozko ordaindutako baimenetan gertatutakoak.
d) Kargu sindikalak direla-eta edo horien ondorioz gertatutakoak.

406. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrari buruzko urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 156. artikuluaren arabera, adierazi zer inguruabarrak EZ duen eragozten gertaera bat laneko istriputzat hartzea?

a) Langilearen zuhurtziarik eza profesionala.
b) Langilearen dolua.
c) Lanaz kanpoko behartutako egoera.
d) Lanarekin harremanik ez izatea.

407. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrari buruzko urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 156. artikuluaren arabera, zer irizpide ezartzen du legeak enpresariaren aginduz edo enpresaren intereserako ohikoak EZ diren lanak egitean gertatzen diren istripuetarako?

a) Laneko istriputzat hartzen dira.
b) Istripu ez-lanekoak dira, arriskuaren plusa egon ezean.
c) Gaixotasun profesionala dira esklusiboki.
d) Soilik aurretik akordio kolektiboa baldin badago aintzatesten dira.

408. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrari buruzko urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 156. artikuluaren arabera, nolakotzat jotzen dira langileak salbamendu-ekintzak edo antzeko beste batzuk egitean izandako istripuek?

a) Kanpoan geratzen dira, borondatezkoak izateagatik.
b) Laneko istriputzat jotzen dira, lanarekin lotura baldin badute.
c) Idatzizko baimena dagoenean soilik aintzatesten dira.
d) Lanlekuaren barruan gertatzen badira soilik aintzatesten dira.

409. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrari buruzko urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 156. artikuluaren arabera, zer ezartzen du legeak lanaren ondorioz hartzen diren eta profesionalen koadroan sartzen EZ diren gaixotasunei dagokienez?

a) Gaixotasun arrunt modura hartzen dira beti.
b) Ez dute prestaziorik sortzen.
c) Laneko istriputzat hartzen dira.
d) Eraginpean sei hilabetez egotea egiaztatzen bada soilik aintzat hartzen dira.

410. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrari buruzko urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 156. artikuluaren arabera, zer gertatzen da istripu batek langilearen aurretiko gaixotasun edo erasanen bat larriagotzen duenean?

a) Ez da laneko istriputzat hartzen, aurretik patologia zegoelako.
b) Laneko istriputzat hartzen da, egoera larriagotzen baitu.
c) Kontingentzia arrunt modura kalifikatzen da.
d) Kausazko loturarik ez izatearen ondorioz, baztertu egiten da.

411. Nori dagokio gaixotasunak profesionaltzat kalifikatzea, azaroaren lanbide-gaixotasunen zerrendari buruzko 10eko 1299/2006 Errege Dekretuko 3. artikuluaren arabera?

a) Enpresariari.
b) Eskumeneko erakunde kudeatzaileari.
c) Mutualitate edo erakunde kolaboratzaileari, esklusiboki.
d) Kanpoko prebentzio-zerbitzuei.

412. Lanbide-gaixotasunen zerrendari buruzko 10eko 1299/2006 Errege Dekretuaren arabera, alta-egoeran EZ dauden langileei dagokienez, nork erabakitzen du gaixotasunaren izaera profesionala?

a) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak.
b) Erkidegoko osasun-zerbitzu publikoak.
c) Erakunde kudeatzaileak.
d) Prebentzio-zerbitzuak.

413. Lanbide-gaixotasunen zerrendari buruzko 10eko 1299/2006 Errege Dekretuko 3. artikuluak zer zeregin esleitzen die lanbide-gertakarien babesa beren gain hartzen duten erakunde kolaboratzaileei?

a) Laneko agintaritzari informazio estatistikoa ematea soilik.
b) Gertakaria zehaztea, izaera loteslearekin.
c) Kalifikazioan erakunde kudeatzailea ordeztea.
d) Gaixotasunak profesional modura izapidetzea, beren eskumenen eta 1300/1995 Errege Dekretuko baliabide-sistemen arabera?

414. Nork eratzen eta izapidetzen du gaixotasun profesionalaren partea, lanbide-gaixotasunen zerrendari buruzko 10eko 1299/2006 Errege Dekretuko 4.1. artikuluarekin bat etorriz?

a) Lanbide-gertakarien babesa beregain hartzen duen erakunde kudeatzaile edo kolaboratzaileak.
b) Enpresariak, zuzenean, hirugarrenen esku-hartzerik gabe.
c) Kaltetutako langileak, kasu guztietan.
d) Erkidegoko osasun agintaritzak.

415. Zer betebehar ezartzen zaio lanbide-gaixotasunen zerrendari buruzko 10eko 1299/2006 Errege Dekretuko 4.2 artikuluan enpresari, gaixotasun profesionalaren partea eratzean?

a) Gertakariaren kalifikazioa egitea.
b) Mediku-tratamenduaren kostua beregain hartzea.
c) Erakunde kudeatzaileari edo kolaboratzaileari eskura duen informazioa ematea, hala eskatzen zaionean.
d) Laneko Ikuskaritzari kasuaren berri ematea 24 ordutan.

416. Nork eman behar du profesional gisa kalifikatu daitekeen 1. eranskineko gaixotasun baten berri lanbide-gaixotasunen zerrendari buruzko 10eko 1299/2006 Errege Dekretuko. 5. artikuluaren arabera?

a) Osasun Sistema Nazionaleko fakultatiboek, beren jardun profesionalen harira.
b) Prebentzio-zerbitzuko laneko medikuak, esklusiboki.
c) Mutualitate kolaboratzaileak, ofizioz.
d) Kaltetutako langilea berak.

417. Lanbide-gaixotasunen zerrendari buruzko 10eko 1299/2006 Errege Dekretuko. 5. artikuluaren arabera, Osasun Sistema Nazionaleko fakultatiboek EZ ezik, nork egin behar du jakinarazpen hori, hala dagokionean?

a) Prebentzioko delegatuek.
b) Prebentzio-zerbitzuko fakultatiboek.
c) Laneko agintaritzako teknikariek.
d) Langileen legezko ordezkariek.

418. Zer izaera esleitzen zaio 1. artikuluan 2 eranskineko "zerrenda osagarriari" 1. eranskinari dagokionez, biak, Lanbide-gaixotasunen zerrendari buruzko 10eko 1299/2006 Errege Dekretukoak izanik?

a) Ingurumen-neurketa egiteko eragileen lotura.
b) Definizio klinikoen katalogo bat.
c) Laneko istripuen laburpen bat.
d) Jatorria lanean dutela susmatzen zaien eta, aurrera begira, 1. eranskinean sar daitezkeen gaixotasunen zerrenda.

419. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zein da parte hartzeko bidea enpresak langileen ordezkariak dituenean?

a) Langile guztien parte-hartze zuzena asanbladan.
b) Parte-hartzea ordezkarien eta V. kapituluan araututako ordezkaritza espezializatuaren bidez bideratzen da.
c) Zentroen arteko Segurtasun eta Osasun Batzordearen bidez esklusiboki.
d) Nahitaezko bozketa telematikoaren bidez.

420. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zein dira Segurtasun eta Osasun Batzordeko kide bere osaera parekidea kontuan izanik?

a) Prebentzio arloko delegatuak soilik.
b) Prebentzio arloko delegatuak eta enpresariaren ordezkariak, kopuru berdinetan.
c) Prebentzio arloko delegatuak eta enpresaria eta bere ordezkariak, haien kopuru berean.
d) Enpresaria eta kanpoko prebentzio-zerbitzua.

421. Zein dira Prebentzio arloko Delegatuak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera?

a) Zuzendaritzak aukeratutako segurtasun eta osasun-batzordeko kideak.
b) Laneko arriskuen prebentzioan zeregin espezifikoak dituzten langileen ordezkariak.
c) Beren prebentzio-zerbitzuko teknikariak.
d) a) eta b) zuzenak dira.

422. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, nola izendatzen dira prebentzio arloko delegatuak ordezkaritza bateratua duten enpresetan?

a) Plantilla guztiaren bidezko aukeraketa zuzenarekin.
b) Enpresariak izendatuta.
c) Langileen ordezkariek eta haien artean.
d) Zozketez, delegatu sindikalen artean.



423. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, hurrengoen artean zein EZ da prebentzio arloko delegatuen eskumena?

a) Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea prebentzio-ekintza hobetzen.
b) Langileen artean prebentzio arloko kooperazioa bultzatzea.
c) Aldez aurretik 33. artikuluko erabakien inguruan kontsultatuak izatea.
d) Prebentzio arloko ez-betetzeen ondoriozko diziplina-zehapenak ipintzea.

424. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer eskuduntza dute prebentzio arloko delegatuek ikuskapeneko ebaluazioei eta bisitei dagokienez?

a) Ezin dituzte teknikariak lagundu, baina bai ikuskatzaileei.
b) Teknikariak lagundu ditzakete ebaluazioetan, eta ikuskatzailean bisitetan eta egiaztapenetan.
c) Ikuskatzaileak lagundu ditzakete soilik heriotzak eragin dituzten istripuak izan badira.
d) Ordutegi sindikalean soilik lagundu dezakete.

425. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer eskubide dute prebentzio arloko delegatuek informaziorako sarbideari dagokionez?

a) Sarbide mugagabea dute historia kliniko indibidualetara.
b) Beren zereginak betetzeko beharrezkoak diren lan-baldintzei buruzko informazio eta dokumentaziorako sarbidea dute, 22.4 artikuluko mugekin.
c) Urteko prebentzio arloko plangintzarako sarbidea dute soilik.
d) Larrialdi-planerako sarbide esklusiboa dute.

426. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer proposatu dezake prebentzio arloko delegatuak prebentzio arloan akatsak hautematen dituenean?

a) Zuzenean zehapena ipintzeko eskatu diezaioke laneko agintaritzari.
b) Jarduera eten dezake, elkargoaren akordiorik gabe.
c) Enpresariari prebentzio-neurriak eskatu diezazkioke eta proposamenak egin, baita Segurtasun eta Osasun Batzordeari ere.
d) Arau-hausteen akta jaso dezake.

427. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer epetan igorri behar duten txostena Prebentzio arloko Delegatuek enpresariak kontsulta eskatzen dienean?

a) Hilabeteko epean, luzagarria.
b) Hogeita hamar naturaleko epean.
c) Hamabost egunetan, edo ezinbestekoa den denboran, berehalako arriskurik badago.
d) Zazpi egun baliodunetan.



428. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer denbora-berme dute Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilkurek laneko denborari dagokionez?

a) Benetako laneko denboratzat jotzen dira, orduen kreditura jo gabe.
b) Lanalditik kanpokoak izaten dira beti.
c) Ordu sindikalen kredituari egozten zaizkio.
d) Hurrengo astean berreskuratzen da denbora hori.

429. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, gutxienez zer eduki jaso behar du langileei laneko arriskuei buruzko informazioa emateak?

a) Lanpostu bakoitzean eragina duten arriskuak soilik.
b) Enpresan, bere osotasunean, eta lanpostu edo zeregin bakoitzean, eragiten duten arriskuak.
c) Soilik agente kimikoetatik eta biologikoetatik eratorritako arriskuak.
d) Laneko arriskuen prebentzioaren arloan aplikatzekoa den araudiaren zerrenda.

430. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko legeriaren arabera, zer informazio espezifiko eman behar du Osakidetzak larrialdi-neurrien inguruan?

a) 31/1995 Legeko 20. artikuluarekin bat etorriz hartutako neurriak.
b) Seinaleei lotutako jokabideei eta jarduerei buruzko informazioa.
c) Ebakuazioan, lehen sorospenetan eta larrialdietan jarduteko neurriak.
d) a) b) eta c) zuzenak dira.

431. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zer unetan bermatu behar da langile bakoitzarentzako prebentzio arloko prestakuntza? Adierazi zein den erantzun OKERRA:

a) Kontratazioan.
b) Funtzioetan aldaketak daudenean.
c) Proba-denbora amaitzean.
d) Teknologia berriak sartzen direnean edo lan-ekipamenduetan aldaketak gertatzen direnean.

432. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, nola egokitu behar da prestakuntza arriskuaren bilakaerari dagokionez?

a) Ez da eguneratu behar indarreko arriskuaren ebaluazioa egonez gero.
b) Bost urtetik behin eguneratzen da, oro har.
c) Estatuko arauzko aldaketetara mugatzen da.
d) Arriskuen bilakaerara egokitu behar da, eta aldizka errepikatu egin behar da, beharrezkoa balitz.



433. Nork eman dezake Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eskatzen den prebentzio arloko prestakuntza?

a) Berezko prebentzio-zerbitzuek esklusiboki.
b) Osasun agintaritzak homologatutako zentroek soilik.
c) Enpresak, berezko bitartekoekin edo kanpoko zerbitzuekin itunduta.
d) Segurtasun eta Osasun Institutu Nazionalak soilik.

434. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, arrisku larria edo berehalakoa denean, zer betebehar du Osakidetzak informazioari dagokionez?

a) Enpresa-batzordeari astero informazioa ematea.
b) Eragindako langile guztiei arriskuaren berri eta hartutako neurriei buruzko informazioa ematea lehenbailehen.
c) Intraneten komunikatu bat argitaratzea 48 ordutan.
d) Prebentzio arloko Delegatuei informazioa ematea.

435. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, jarduera hasi aurretik, zer informazio jaso behar du aldi baterako langileak?

a) Ordainsari-politikari eta karrera-planari buruzkoa.
b) Enpresa erabiltzailearen laneko egutegiari buruzkoa.
c) Langileak izango dituen arriskuei, eskatutako kualifikazio/gaitasunei, kontrol mediko bereziei eta lanpostuaren berariazko arriskuei buruzkoa, baita babes- eta prebentzio-neurriei buruzkoa ere.
d) Merkatuan erabilgarri dauden norbera babesteko ekipamenduen inbentarioari buruzkoa.

436. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, Prebentzio arloko Delegatuei dagokienez, prestakuntza arloan zer betebehar hartzen ditu beregain enpresak?

a) Bakar bat ere ez; prestakuntza sindikala da.
b) Online prestakuntza ematekoa soilik.
c) Prestakuntza zati batean finantzatzekoa.
d) Beharrezkoak diren bitartekoak eta prestakuntza ematekoa; eskainitako denbora laneko denbora da, eta horien kostua ezin dute haiek beregain hartu.

437. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, osasun arloan, zer funtzio publiko lotzen da prebentzio-zerbitzuetako osasun langileen prestakuntzarekin?

a) Inportatutako norbera babesteko ekipamenduak homologatzekoa.
b) Esku hartzen duen osasun arloko langileen laneko osasunaren prebentzioan eta sustapenean prestakuntza gainbegiratzekoa.
c) Elikagaiak manipulatzeko txartelak igortzea.
d) Lanlekuak irekitzeko baimena ematea.

438. Hurrengo baieztapenen artean, zein da informazioaren eta prestakuntzaren arteko lotura egoki deskribatzen duena, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean?

a) Informazioak prestakuntza ordezten du, idatzizkoa bada.
b) Aparteko betebeharrak dira: arriskuei eta neurriei buruzko informazioa ematea (18. artikulua) eta prestakuntza teorikoa eta praktikoa ematea (19. artikulua).
c) Prestakuntza larrialdi-plana ematera mugatzen da.
d) Informazioa 50 langiletik gorako enpresatan soilik da derrigorrezkoa.

439. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 27. artikuluaren arabera, zer ebakuazio egin behar da hemezortzi urtetik beherako gazteak laneratu aurretik?

a) Lanpostuaren ebaluazioa egin behar da, arrisku espezifikoetarako eragin-mailaren izaera, gradua eta iraupena zehazteko.
b) Giza baliabideekin lanari buruzko elkarrizketa egin behar da.
c) Mediku-azterketa egin behar da, arrisku espezifikoetarako eragin-mailaren izaera, gradua eta iraupena aintzat hartuta.
d) a eta c zuzenak dira.

440. Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 27. artikuluaren arabera, noiz egin behar da lanpostuen ebaluazioa hemezortzi urtetik beherako gazteentzat?

a) Istripu bat gertatu ondoren.
b) Laneratu aurretik, eta beren lan-baldintzetan aldaketa garrantzitsuren bat gertatu aurretik.
c) Soilik langileen legezko ordezkariek eskatzen dutenean.
d) Lanari ekitean eta adin nagusitasuna betetzen dutenean, gutxienez.

441. Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 27. artikuluaren arabera, zer alderdiri buruzkoa izan behar du hemezortzi urtetik beherako gazteentzako ebaluazioak?

a) Arrisku espezifikoa izan dezaketen agente, prozesu edo lan-baldintzei buruzkoa.
b) Beren esperientziari, heldutasun fisiko eta mentalari, eta beren garapen oraindik osagabeari buruzkoa.
c) Adin txikikoentzako arriskutsuak izan daitezkeen agente kimiko, fisiko eta biologikoei buruzkoa.
d) b eta c zuzenak dira.

442. Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 27. artikuluaren arabera, zer konbinaziok identifikatzen ditu zuzen ebaluatu beharreko elementuak eta hemezortzi urtetik beherako gazteen arrisku-oinarri espezifikoa?

a) Izaera eta iraupena; heldutasun erabatekoa.
b) Esperientzia; prestakuntza akademikoa.



c) Izaera, gradua eta iraupena; arriskuak ebaluatzeko esperientziarik eza eta heldutasunik eza.
d) Arriskua; ikasketa-maila.

443. Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 27. artikuluaren arabera, hurrengo faktoreen artean zein hartu behar da bereziki kontuan hemezortzi urtetik beherako gazteen ebaluazioan?

a) Esperientziarik eza.
b) Alderdi ergonomikoak, bereziki gehieneko indarra, tamaina eta irismena.
c) Agente kantzerigenoen, mutagenikoen eta erreprotoxikoen aurreko eragin-maila.
d) b eta c zuzenak dira.

444. Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 27. artikuluaren arabera, garapen pertsonaleko zer egoera hartu behar da kontuan hemezortzi urtetik beherako gazteen arriskuak ebaluatzean?

a) Bere garapen oraindik osagabea.
b) Beren antropometria, tamaina bereziki.
c) Beren gaitasun fisikoa, pisua bereziki.
d) Beren prestakuntza akademiko osagabea.

445. Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 27. artikuluaren arabera, nori jakinarazi behar zaio, gazteari EZ ezik, zer arrisku egon daitezkeen eta zer neurri hartzen diren horien aurrean babesteko, kontratazioan parte hartu dutenean?

a) Adin txikikoa bidaltzen duen prestakuntza-zentroa.
b) Prebentzio arloko delegatuak.
c) Beren guraso edo tutoreak.
d) Segurtasun eta osasun batzordea.

446. Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 27. artikuluaren arabera, zer eduki izan behar du, gutxienez, kontratazioan parte hartu duten hemezortzi urtetik beherako gazteari eta bere guraso edo tutoreei emandako informazioak?

a) Soldatari eta ordutegiari buruzkoa.
b) Norbera babesteko ekipamenduei eta larrialdi-jarduketei buruzkoa.
c) Balizko arriskuei eta arrisku horien aurrean babesteko hartutako neurriei buruzkoa.
d) a b eta c zuzenak dira.

447. Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 27. artikuluaren arabera, zer Administraziok finkatuko ditu hemezortzi urtetik beherako gazteak kontratatzeko mugak arrisku espezifikoak dituzten lanetan?

a) Gazteria Ministerioak.
b) Lan Kontseilaritzak.

c) Autonomia Erkidegoak.
d) Gobernuak.

448. Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 27. artikuluaren arabera, hurrengo faktoreen artean, zein EZ da hemezortzi urtetik beherako gazteen arriskua baloratzeko berariaz adierazten den faktorea?

a) Dauden arriskuak edo egon daitezkeenak ebaluatzeko heldutasunik eza.
b) Esperientziarik eza.
c) Garapen oraindik osagabea.
d) Gehiegizko gaitasun fisikoa.

449. Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 27. artikuluan arriskuarekin lotutako zer alderdi aipatzen dira hemezortzi urtetik beherako gazteen ebaluazioan?

a) Soilik arrisku espezifikoak ekar ditzaketen agente fisikoak.
b) Arrisku espezifikoak ekar ditzaketen agenteak, prozesuak edo lan-baldintzak.
c) Soilik arrisku espezifikoak ekar ditzaketen faktore ergonomikoak.
d) Adinetik eratorritakoak esklusiboki.

450. Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 27. artikuluaren arabera, nor dira hemezortzi urtetik beherako gazteei eta, hala badagokio, beren guraso edo tutoreei arriskuen eta neurrien berri emateko betebehar nagusia dutenak?

a) Enpresaria.
b) Berezko prebentzio-zerbitzua.
c) Prebentzio arloko delegatuak.
d) Adin txikiko langilearen arduradun zuzena.

ARIKETA PRAKTIKOAK

1. KASU PRAKTIKOA

Osakidetzako ospitale publiko batean, barneko erreforma-lan bat egingo da Kanpoko Kontsulten eremua handitzeko, eta ospitalean funtzionamenduan mantenduko da, eta ohikoa izango da pazienteen eta osasun arloko langileen presentzia.

Obran sartzen da:

- **Sabai aizunak eraistea.**
- **Klimatizazio-eroanbideak aldatzea.**
- **Egitura arin berriak muntatzea.**
- **Aldamio mugikorrak eta lanerako plataformak erabiltzea.**
- **Metalezko ebaketa eta doikuntzako lan puntualak.**

Obraren prebentziozko antolaketa. Esku hartu ohi dute:

- **Enpresa kontratista nagusiak.**
- **Azpikontrata ugarik (klimatizazioa, pladurra).**
- **Ospitaleko langileak (mantenu-lana eta garbiketa).**

Istripu larria laugarren obra-egunean:

- **Azpikontratatutako enpresako langile bat, aldamio mugikorrera igota, alde baterantz mugitu da, eta aldamioa ez dago behar bezala finkatuta.**
- **Aldamioa mugitu egiten da, langilea erori egin da, gutxi gorabehera 2,5 metroko altueratik, eta zorua jo du.**
- **Bizkarrezur-haustura izan du langileak.**
- **Istripua LANEKO ISTRIPU LARRITZAT kalifikatu da.**

451. Enpresa-jardueren koordinazioaren ikuspegitik, prebentzio arloan zer zeregin dagokio Osakidetzari obra horretan 171/2004 Errege Dekretuaren arabera?

a) Zentroari buruzko informazio orokorra ematekoa soilik.
b) Istripuaren ikerketaz arduratzea, enpresa kontratistaren ordez.
c) Enpresa titular eta sustatzaile modura jardutea.
d) a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

452. Obraren aurretiko fasean, prebentzio arloko zer dokumentazio eskatu behar zitzaion derrigorrez enpresari Osakidetzako jardueren koordinaziorako P-PRL05_00 CAE prozeduraren arabera?

a) Arriskuen ebaluazio orokorra, enpresa eraikitzaileak emanda.
b) Obran egiteko lanen arriskuen ebaluazio espezifikoa.
c) Ospitaleko prebentzio-plana.
d) Laneko arriskuen prebentzioko Legea betetzearen ziurtagiria.



453. Istripuaren ikerketan egiaztatu da, aldamiotik erortzeko arriskua identifikatuta zegoela, baina aurreikusitako neurriak orokorrak ziren. Ikuspegi tekniko eta prebentziokotik, zein da ondorio nagusia?

a) Istripua ezin zitekeen aurreikusi, eta saihestezina zen.
b) Arriskuaren ebaluazioa baliozkoa zen, arriskua identifikatuta baitzegoen.
c) Prebentzio arloko erantzukizuna istripua izan duen langileari dagokio, prebentzio- eta babes-neurriak ez betetzeagatik.
d) Prebentzio-plangintza ez zen obraren benetako testuingururako egokia izan.

454. Funtzionamenduan dagoen ospitale batean, obraren aldamenean laguntza-korridore bat dago, zer neurri-konbinazio dago lerrokatuago Osakidetzaren mantentze-lanetarako/eraikuntza sektorerako jarduerak koordinatzeko protokoloaren prebentzio-jarraibideekin, hautsaren eta objektu txikien erorketaren aurrean pazienteen eta langileen eragin-maila ahalik eta txikiena izan dadin?

a) Baliza-zinta mantentzea eta kartelak jartzea, hautsa "amaieran" kontrolatzen baita, garbitasunez.
b) Eraisketak joan-etorri gutxieneko ordutegian programatzea eta ikuskapenari ohartaraztea, konfinamendu fisikoaren beharrik gabe.
c) Beste eremu batzuetara barreiatzea eragozten duten elementuekin mugatzea eta seinaleztatzea, sakabanatzea saihesteko neurriak hartzea (adibidez, hezetzea), eta Osakidetzako solaskideari jakinaraztea hautsik/kerik/lurrunik izango den.
d) Korridorean joan-etorriak debekatzea, obra irekita mantenduz, baina langileen aldetik norbera babesteko ekipamenduen erabilera indartuz.

455. Istripua izan duena azpikontrata bateko langilea da ospitale batean egiteko eraikuntza-lan batean (sustatzailea Osakidetza). PT AT03 protokoloaren arabera, nork du Laneko Agintaritzara berehala jakinarazteko ardura, eta zer baldintzatan hartu lezake Osakidetzak ardura hori?

a) Osakidetzak beti, lanlekuko titularra izateagatik.
b) Istripua izan duen langilearen enpresak. Osakidetzak, soilik istripuak 4 edo langile gehiagorengan izan badu eragina, berezkoak izan ez arren.
c) Segurtasun eta osasun koordinatzaileak, obraren arduradun teknikoa delako.
d) Kontrata nagusiak beti, azpikontraten erantzulea delako.

2. KASU PRAKTIKOA

Osakidetzako sareko ospitale batean, mantentze-taldeak kexa errepikakorra helarazi du: "konpresore-gelak eta sorgailu elektrikoaren gelak zarata gehiegi egiten dute; tapoiekin zaila da abisuak eta alarmak entzutea".

Prebentzio Oinarrizko Unitateak (POU) zarataren esposizioaren arriskuaren ebaluazioa programatu du instalazio teknikoen eremuan (-1 solairua). Bertan, mantentze elektromekanikoko teknikariek lan egiten dute, eta honako jarduera hauek txandakatzen dituzte:

- **Aire medizinaleko konpresore-gela (hustuketa, iragazkien berrikuspena, abiarazteak/gelditzeak).**
- **Galdaren eta ponpen gela (ikuskapenak eta prebentziozko mantentzea).**
- **Ekipo elektrogenoko gela (asteko karga-proba eta alarmen egiaztapena).**
- **Korridore erantsiak eta sarbideak, non aldi baterako kontratek ere ibiltzen diren.**

<u>Neurketa-datuak (lanaldi nominala)</u>

Neurketak 286/2006 Errege Dekretuaren arabera egin dira:

- **Dosimetria pertsonala (2. klaseko ekipamendua), neurketa-seriea hasi aurretik eta ondoren egiaztapen akustikoa eginez.**
- **Mantentze-teknikari baterako (8 orduko lanaldia) honako emaitzak lortu dira:**
  - **L_Aeq,d = 86 dB(A)**
  - **L_piko = 138 dB(C) ekipo elektrogenoaren proban (puntu laburrak).**
- **Egunen arteko aldakortasuna hauteman da (lanen arabera), eta POUk baloratzen du ea asteko maila erabil daitekeen lanaldien arteko aldakuntza handia dagoenean.**

Gainera, honakoak ere behatu dira:

- **Gelara sartzeko EZ dago entzumen-babesaren derrigortasunaren seinaleztapen berezirik, ezta zarata-gunearen mugaketarik ere.**
- **EZ dago zaratarako neurri tekniko/antolakuntzako programa formal espezifikorik.**
- **"Generikoak" diren tapoiak erabiltzen dira, hautaketa-irizpide dokumentaturik eta egokitzapen-egiaztapenik gabe; langile batzuek "une batez" kentzen dituzte hitz egiteko.**

- **Eremuak alarma akustikoak ditu (sutea/CO/matxurak), eta kezka sortzen du zarataren, babes-ekipoen eta alarmen pertzepzioaren arteko elkarreraginak.**

Zure eginkizuna, LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO goi-mailako teknikari gisa (Segurtasuna + Higienea), prebentzio-neurriak eta irizpide teknikoak ezartzea da (neurketak, ebaluazioa, neurriak, seinaleztapena, norbera babesteko ekipamenduak, prestakuntza eta osasun-zaintza), indarrean dagoen araudiaren arabera.

456. Zein da neurtutako balioen arau-interpretazio zuzena (286/2006 Errege Dekretua) (L_Aeq,d = 86 dB(A) eta L_piko = 138 dB(C))?

a) Ekintzako balio baxuak gainditzen dira, baina ez altuak.
b) Ekintzako balio altuak gainditzen dira.
c) Muga-balioak gainditzen dira.
d) Ez da inolako baliorik gainditzen, ospitaleetan 286/2006 ED aplikatzen ez delako.

457. Kasuko emaitzekin, zer berehalako betebehar dago entzumen-babesgailuei dagokienez, 286/2006 Errege Dekretuaren arabera?

a) Derrigorrezkoa da babesgailuak erabiltzea esposizio-muga balioetako batzuk gainditzen direlako.
b) Derrigorrezkoa da babesgailuak erabiltzea ekintza eragiten duten maila baxuak gainditzen direlako.
c) Babesgailuak ez dira ospitaleetan erabili behar, komunikazioa oztopatzen dutelako.
d) Derrigorrezkoa da babesgailuak erabiltzea ekintza eragiten duten maila altuak gainditzen direlako.

458. Ospitaleak esposizio-maila asterokoa erabiltzea planteatzen du egunerokoaren ordez, lanen aldakortasunagatik. Zein da onargarri izateko irizpide zuzena, 286/2006 Errege Dekretuan jasoa?

a) Erabili daiteke betiere asteko batezbestekoa < 85 dB(A) bada.
b) Erabili daiteke arriskuen ebaluazioan justifikatuta badago eta L_Aeq,s ≤ 87 dB(A) bada, eta arriskua minimizatzeko neurriak hartzen badira.
c) Erabili daiteke soilik, lan-astea osatzen duten lanaldien %50ean gutxienez 80 dB(A)tik beherako esposizioa badago.
d) Erabili daiteke betiere asteko batezbestekoa < 87 dB(A) bada.

459. Zaratari buruzko 486/2006 Errege Dekretuaren arabera, zer prebentzio-kudeaketako neurri ezarri behar da nahitaez eta prebentzio-plangintzan integratu?

a) Guztiak zuzenak dira.
b) Zararen esposizioa murrizteko neurri tekniko eta/edo antolakuntzakoen programa bat.
c) Ebaluatutako lanpostuaren hiru urtean behingo neurketa periodikoa.



d) Ebaluatutako lanpostuko langileentzat bost urtean behingo audiometriaren zaintza.

460. Gelaren seinaleztapenari eta sarbide-kontrolari dagokionez, zein da jarduera zuzena zaratari buruzko 286/2006 Errege Dekretuaren arabera?

a) 485/1997 Errege Dekretuaren arabera seinaleztatu eta, bideragarria bada, gunea mugatu eta sarbidea mugatu.
b) Ez da seinaleztatzen; esposizio-muga balioa gainditzen ez bada, nahikoa da langileei informazioa ematea.
c) 485/1997 Errege Dekretuaren arabera seinaleztatu, soilik esposizio-muga balioa gainditzen bada.
d) Argi gorri batekin seinaleztatu, estroboskopikoa ez dena, esposizio-muga balioa gainditzen denean.

461. Neurketa-kanpainan, teknikari batek "langilea galdara-gelan barruan dagoela eta mikrofonoa poltsikoan" neurtzea proposatzen du. Zein da jardunbide zuzena 286/2006 Errege Dekretuaren arabera?

a) Mikrofonoa beti poltsikoan dela neurketa egitea, tresneria lurrun kutsatzaileetatik babesteko.
b) Ahal dela langilerik gabe neurtzea, mikrofonoa belarriaren altueran jarriz; bertan egon behar badu, gutxi gorabehera belarritik10 cm-ra.
c) Gelaren erdian neurtzea eta esposizio pertsonalera estrapolatzea.
d) Gelaren barruan neurtzea, zarataren iturri nagusitik ahalik eta hurbilen.

462. 286/2006 Errege Dekretuaren balioekin alderatzean, noiz hartu behar da kontuan entzumen-babesgailuaren arintzea?

a) Ekintzako balio baxuak eta altuak gainditzen diren erabakitzeko bakarrik.
b) Esposizio-muga balioak gainditzen diren erabakitzeko bakarrik.
c) Beti, bai ekintzako balioetarako bai muga-balioetarako.
d) INOIZ EZ; 286/2006 Errege Dekretuak berariaz debekatzen du arintzea erabiltzea esposizio-mugaren kalkuluetan.

463. Txostena berrikustean, L_Aeq,d-ren emaitza atalasearen hurbil dago eta erreferentzia-balioa ziurgabetasun-tartearen barruan dago. Zer aukera aurreikusten ditu 286/2006 Errege Dekretuak?

a) Ziurgabetasuna baztertzea eta balio zentrala soilik erabiltzea.
b) Neurketa errepikatzea ziurgabetasun-tartetik kanpoko emaitza lortu arte.
c) Maila gainditzen dela onartzea edo neurketa kopurua/iraupena handitzea ziurgabetasuna murrizteko.
d) Neurketa ordezkatzea "estimazio" edo "epaiketa profesional batez", higiene industrialeko espezialitatea duen teknikariak egina.

464. Ospitaleak entzumen-babesgailuen erabilera aldi baterako salbuestea erabakitzen badu lanaren zati batean (alarma kritikoak EZ entzuteak arrisku handiagoa dakarrenean), zein baldintza multzo da zuzena 286/2006 Errege Dekretuaren arabera?

a) Nahikoa da langileei kontsultatzea eta ondoren lan-agintaritzaren baimena jasotzea.
b) Arriskuen ebaluazioan justifikatu eta dokumentatu behar da, langileei kontsultatu, lan-agintaritzari jakinarazi, eta neurri tekniko/antolakuntzako osagarriak eta osasun-zaintza areagotua ezarri.
c) Salbuespena egin daiteke besterik gabe, zarata < 90 dB(A) bada eta audiometria periodikoetan hipoakuziarik ez badago.
d) Salbuespena automatikoa da langileei edo ordezkariei kontsultatuz gero.

465. Entzumen-babesa alarmen pertzepzioarekin eta komunikazioarekin bateratzeko, zein da irtenbide tekniko koherenteena araudiarekin eta LSOINren irizpideekin?

a) SNR ahalik eta baxuena duen babesgailua aukeratzea, babesa eta alarmak entzutea eta komunikazioa ahalbidetzeko.
b) SNR handiena duten tapoiak mantentzea eta noizean behin hitz egiteko kentzea.
c) Zarataren espektroari eta lan-baldintzei egokitutako entzumen-babesgailuak aukeratzea, gehiegizko babesa saihestuz, eta mailaren araberako belarri-estalkiak kontuan hartzea zarata etena edo aldakorra denean.
d) Babesgailuak “deuseztapen aktiboko” belarri-estalkiekin ordezkatzea zarata etena edo aldakorra denean.

3. KASU PRAKTIKOA

Osakidetzako sareko ospitale batean, Dermatologia Unitateak tratamenduetarako gela espezifiko bat du honako ekipamendu hauekin:

- **UVA fototerapia-kabina, PUVA motako protokoloetarako.**
- **Dermatologiako laser ekipamendua, fabrikatzailearen plakaren arabera: 3B klasekoa, UNE-EN 60825 arauaren arabera, prozedura puntualetarako.**

Aste batean zehar bi gorabehera erregistratu dira:

1. **Erizain batek begietako ondoeza aipatu du; malkoz jariatzea eta aldi baterako “harea” sentsazioa, paziente bati gelaren barruan artatu ondoren; gertakaria atea erdi irekita egon zen aldi batekin bat dator, “lekurik eza” zela-eta.**
2. **Mantentze zerbitzuak jakinarazi du laser ekipamenduaren atearen blokeoa (interlock) aldi baterako desgaituta utzi zela “frogak azkartzeko”, baimenik eta ordezko neurririk dokumentatu gabe, eta ondoko korridorerako sarbideak mugatu gabe.**

Prebentzio Oinarrizko Unitateko (POU) teknikariak gelara egindako bisitan egindako behaketak:

- **EZ dago atean seinaleztapen espezifikorik erradiazio optikoaren arriskuari buruz, ezta ekipamenduak erabiltzean sarbide mugatuaren adierazpenik ere.**
- **Altzairu herdoilgaitzezko gainazalak daude gurdi osagarri batean, laser emisio gunetik gertu.**
- **EZ da frogatzen lanpostu/jarduera hauetarako erradiazio optiko artifizialen esposizioaren ebaluazio dokumentaturik dagoenik, ezta gorabeheren ondorengo berrikuspenik ere.**
- **Dermatologia zerbitzuko arduradunak Prebentzio Oinarrizko Unitateari (POU) eskatzen dio zehaztu dezala zer neurri ezarri behar diren eta aplikatu beharreko araudia nola bete behar den (ebaluazioa, kontrola, seinaleztapena, informazioa/prestakuntza, NBEak eta gehiegizko esposizio posiblearen aurreko jarduera).**

466. Unitatean UVA kabina bat eta 3B klaseko laser bat daudela kontuan hartuta, zein da jarduera prebentibo zuzena erradiazio optiko artifizialen arriskuaren ebaluazioari dagokionez, 486/2010 Errege Dekretuaren arabera?

a) Ez da ebaluazio espezifikorik behar, ekipamendu medikoak direlako eta arriskua fabrikatzailearen markak estaltzen duelako.
b) Esposizioa ebaluatu behar da; baliteke neurketa beharrezkoa ez izatea, baldin eta egiaztatutako iritzi profesional batek fabrikatzailearen datuekin eta erabilera baldintzekin amaitzeko aukera ematen badu.
c) Esposizioa ebaluatu behar da; neurketa beharrezkoa da UVA erradiazio optiko artifizialen esposizioa zehazteko, baina ez laserren kasuan, non fabrikatzailearen datuak eta erabilera baldintzak nahikoak diren.
d) Esposizioa ebaluatu behar da; neurketa beharrezkoa da laser bidezko erradiazio optiko artifizialen esposizioa zehazteko, baina ez UVAren kasuan, non fabrikatzailearen datuak eta erabilera baldintzak nahikoak diren.

467. 486/2010 Errege Dekretuko "ekintza-planari" dagokionez, noiz da nahitaezkoa egitea eta zer lehenetsi behar du?

a) Neurketek muga-balioak gainditu direla egiaztatzen dutenean.
b) Ekintza-plana aukerakoa da norbera babesteko ekipamendu egokiak ematen badira (batez ere betaurrekoak/pantailak), erradiazio optikoen aurrean hesi gisa jarduten dutenak.
c) Ekintza-plana 4. klaseko laserrei soilik aplikatzen zaie; 3B klasekoentzat ez da beharrezkoa.
d) Muga-balioak gainditzeko aukera dagoenean.



468. Deskribatutako gelan, 486/2010 Errege Dekretuaren arabera, zein da jarduera egokiena seinaleztapenari eta sarbideen kontrolari dagokienez, baimendutako maila gainditu daitekeenean edo arrisku esanguratsua dagoenean?

a) "Kontuz" kartel generiko batekin bakarrik seinaleztatzea, sarbideak mugatu gabe, pazienteak ez kezkatzeko.
b) 485/1997 Errege Dekretuaren arabera seinaleztatzea eta, teknikoki posible denean eta arriskuak justifikatzen duenean, eremua identifikatzea eta sarbidea baimendutako langileetara mugatzea.
c) Seinaleztapena ordezkatzea txanda bakoitzeko arduradunari zuzendutako jarraibide eta prestakuntzarekin.
d) Ez seinaleztatzea: nahikoa da ekipamendua gela espezifiko batean seinaleztatuta egotea.

469. Ebaluazio edo egiaztapen baten ondoren muga-balioak gainditzen dituen esposizioa hautematen bada, 486/2010 Errege Dekretuaren arabera, zein da berehala eskatu beharreko jarduera-sekuentzia?

a) Berehalako neurriak hartzea esposizioa muga azpitik jaisteko, arrazoiak ikertzea, berrerortzea saihesteko neurriak zuzentzea eta prebentzio-ordezkariei jakinaraztea.
b) Arrazoiak ikertzea, neurriak zuzentzea berrerortzea saihesteko eta prebentzio-ordezkariei jakinaraztea; jarduera mantentzea eta hurrengo urteko berrikuspenean neurketak errepikatzea.
c) Arrazoiak ikertzea, neurriak zuzentzea berrerortzea saihesteko eta eraginpean dauden langileei borondatezko osasun-azterketa eskaintzea.
d) Arrazoiak ikertzea, neurriak zuzentzea berrerotzea saihesteko, prebentzio-ordezkariei jakinaraztea, arriskuen eta neurrien inguruko prestakuntza berritzea ekipamendua erabiltzen zuen pertsonari, eta intzidentzia ixtea.

470. 3B klaseko laserrerako lanetan (doikuntza/kokapena) eta begietako esposizio aukera dagoenean, zein da aukerarik zuzenena NBEei eta haien kudeaketa prebentiboari dagokionez, 486/2010 Errege Dekretuaren arabera?

a) Edozein eguzkitako betaurreko "ilun" erabiltzea; kontrol nagusia da langileak izpia "ez begiratzea".
b) Beste neurri batzuen artean, laserretarako berariazko begi-babesa aukeratzea, doan ematea, haren erabileran trebatzea/prestatzea, eta neurri teknikoen osagarri gisa erabiltzea.
c) Begi-babesa ez erabiltzea, 3B klasean barreiatutako islak beti seguruak direlako eta arriskua arbuiagarria delako (indarrean dagoen araudi teknikoaren arabera), eta langileak 3B klaseko ekipamenduen arrisku orokorretan trebatzea.
d) "Betaurrekoen erabilera derrigorrezkoa" adierazten duen seinaleztapena ezartzea eta beste informazio-seinale bat "izpia ez begiratu" adierazteko, biak 486/2006 Errege Dekretuaren arabera.

4. KASU PRAKTIKOA

Osakidetzako sareko ospitale batean esleitutako Prebentzio Oinarrizko Unitateko (POU) goi-mailako teknikaria zara. Anatomia Patologikoko Zerbitzuan ohiko lanak egiten dira formolarekin/formalinarekin (formaldehidoaren disoluzio urtsua, normalean %37–50), laginak kontserbatzeko eta zizelkatze makroskopikorako.

Makroskopia-gelan honako funtzionamendu-baldintza hauek behatzen dira:

- **Formalinan kontserbatutako piezak dituzten ontziak irekitzen dira, eta biopsiak/lantzeak egiten dira lan-mahaian.**
- **Edukiera handiagoko merkataritza-ontzietatik eguneroko erabilerarako 1–5 litroko ontzietara aldatzen dira.**
- **Jarduera handieneko uneetan malko-jariatzea, begi eta eztarriko narritadura jakinarazi dira, formaldehidoaren esposizioarekin bateragarriak.**
- **EZ dago azken neurketa higienikoen froga dokumentalik; aireztapena orokorra da, eta EZ da egiaztatu jatorrian kontrolerako egokia den ala EZ.**
- **Ontzi-aldaketa batean ustekabeko isurketa gertatzen da: lan-mahai ondoko zorua bustitzen da, eta maila berean irristatzeko/erortzeko arriskua sortzen da, baita lurrunen aldi baterako igoera posiblea ere.**

471. Zein da eszenatoki honetan formaldehidoaren laneko esposiziorako erreferentziazko arau-esparru espezifiko nagusia?

a) 374/2001 Errege Dekretua, agente kimikoa delako.
b) 665/1997 Errege Dekretua (agente kartzerigenoak/mutagenoak/erreprotoxikoak) eta, osagarri gisa, 374/2001 Errege Dekretua.
c) 665/1997 Errege Dekretua soilik; 374/2001 Errege Dekretua ez da aplikatzen kartzerigeno, mutageno edo erreprotoxikoen presentzian.
d) Bat ere ez; nahikoa da hornitzailearen segurtasun-datuen fitxekin.

472. Formaldehidoaren arriskuaren ebaluazioan, zein faktore multzo EZ da gehien lerrokatzen aplikatzekoak diren araudi-eskaerekin, 374/2001 eta 665/1997 Errege Dekretuak kontuan hartuta?

a) Ezusteko esposizioak.
b) Propietate arriskutsuak.
c) Prebentzio-neurrien eragina.
d) Guztiak zuzenak dira.

473. Kasu honi aplikatzen zaion prebentzio-hierarkiaren arabera, 374/2001 eta 665/1997 Errege Dekretuak kontuan hartuta, zein da "teknikoki posible den neurrian" lehenengo aztertu/ezarri beharreko neurria?

a) Agentea edo prozedura beste ez-arriskutsu edo arrisku txikiagoko batez ordezkatzea.
b) Langile guztiei arnas babeserako ekipamendua ematea.
c) Sarbidea mugatzea soilik seinaleztapenaren bidez, 374/2001 Errege Dekretuaren arabera.
d) Babes kolektiboko neurriak ezartzea, hala nola xurgapen lokalizatua edo aireztapen orokorra.

474. Formalinaz bustitako laginen manipulazioarekin egindako biopsia/lantze makroskopikoko lanei dagokienez, zein da jatorrian kontrolerako neurri tekniko egokiena Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalaren (LSOIN) irizpideen arabera (NTP 248)?

a) Lokalaren aireztapen orokorrean konfiantza izatea, gomendatutako aire-abiadura ~0,7 m/s izanik, ontziak irekita badaude.
b) Lana erauzketa lokalizatuko "beira-kabinaren" pean egitea, lan-leihoan ~0,7 m/s-ko aire-pasabide abiadurarekin.
c) Langilearengana zuzendutako haizagailu bat jartzea, ~0,7 m/s-ko aire-pasabide abiadurarekin.
d) Atea itxita mantentzea, tenperatura murriztea lurrunketa minimizatzeko, eta lokalaren aireztapen orokorra izatea ~0,7 m/s-ko aire-abiadurarekin.

475. Edukiera handiko ontzietatik txikiagoetara aldaketak egitean, zein kontrol tekniko gomendatzen du Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalak (LSOIN) (NTP 248) formaldehidoaren igorpena ingurunera minimizatzeko?

a) Erauzketa lokalizatuaren pean egitea, ontzi-aldaketa puntutik hurbil dagoen zirrikitu bidez, lan-eremuan ~1 m/s inguruko bilketa abiadura gomendatuz.
b) Diluzio bidezko aireztapen orokorra duten lokaletan ontzi-aldaketak egitea, esparruaren bolumenaren arabera orduko hainbat aire-berrikuntza bermatzeko dimentsionatuta dagoena.
c) Edukiera handiko ontzien ordez, tarteko ontzi hermetikoak jartzea, isurketa-eragiketan esposizio-denbora murrizteari lehentasuna emanez.
d) HEPA aire-iragazketa sistemak erabiltzea iragazkiekin lan-ingurunean, lokaleko formaldehidoaren kontzentrazioa murrizteko.

476. Formaldehidoak VLA-EC (epe laburreko esposizioa) du 665/1997 Errege Dekretuan. Zein da neurketa-estrategiarik egokiena makroskopian betetzen dela egiaztatzeko, 374/2001 Errege Dekretuaren eta NTP 555en arabera?

a) Ordu bateko ingurune-neurketa finkoa gelaren erdian, VLA-ECrekin alderatuz.
b) 15 minutuko laginketa pertsonala, esposizio handiena espero den aldian, VLA-ECrekin alderatuz.
c) 8 orduko laginketa pertsonala eta soilik VLA-ECrekin alderatzea.



d) Neurketarik ez egitea erauzketa lokalizatua badago, nahiz eta haren errendimendua egiaztatu ez den.

477. Formaldehidoa bezalako agente kantzerigeno, mutageno edo erreprotoxiko batekin lan egiten den eremuetan, eta ebaluazioak arriskua erakusten duenean, zein antolaketa/segurtasun neurri da derrigorrezkoa 665/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Sarbide librea bermatzea trebatutako osasun-profesional orori, arrisku-eremua mugatzea eta behar bezala seinaleztatzea (erretzea debekatuta barne).
b) Larrialdi-irteera soilik seinaleztatzea, lan-eremua mugatu gabe.
c) Ateak itxita mantentzea, arrisku-eremua mugatzea eta behar bezala seinaleztatzea (erretzea debekatuta barne).
d) Arrisku-eremua mugatzea, behar bezala seinaleztatzea (erretzea debekatuta barne) eta sarbidea beharrezkoa den langileei soilik uztea.

478. Formalinaren onzti-aldaketa batean isurketa gertatu ondoren (zorua bustita eta lurrun-igorpen posiblea), zein da jarduera zuzen eta berehalakoena, 374/2001, 665/1997 eta 486/1997 Errege Dekretuen arabera?

a) Formalinaren ontzia beste eremu batera eramatea lana jarraitzeko eta isurketa geroago kudeatzea, ontzi-aldaketa amaitutan.
b) Eremua seinaleztatu/isolatzea, sarbidea funtsezko langileetara mugatu eta babes egokia eman egoera kontrolatu eta konpondu bitartean.
c) Aireztapen orokorra handitzea ateak eta leihoak irekiz, sortutako lurrunak sakabanatzeko.
d) Isuritako produktua neutralizatzea ur ugari botaz, formalina diluitu eta arriskua murrizteko.

479. Formaldehidoz kutsatuta egon daitekeen laneko arroparekin lotuta, zein jardunbide da bateragarria 665/1997 Errege Dekretuaren eskakizunekin?

a) Langileei bata etxera eramatea eta han garbitzea baimentzea.
b) Debekatuta dago langileak laneko arropa bere etxera eramatea horretarako.
c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
d) Nahikoa da bata armairu komun batean aireztatzea.

480. Osasuna zaindu edo kontrolatu ondoren, egungo neurriak esposizioa kontrolatzeko NAHIKOAK EZ direla egiaztatzen bada, 374/2001 eta 665/1997 Errege Dekretuak kontuan hartuta, zein da jarduera tekniko zuzena?

a) Dauden prebentzio-neurriak mantentzea eta langileei formaldehidoaren arriskuei eta jardunbide egokiei buruzko informazioa eta prestakuntza indartzea.
b) Eraginpean dauden langile guztientzat arnas babeseko ekipamenduaren erabilera derrigorrezkoa ezartzea, arazoaren konponbide nagusi gisa.
c) Instalazioen garbiketa eta mantentze-lanak areagotzea, esposizioa murrizteko lehentasunezko neurri gisa.
d) Arriskuen ebaluazioa berrikustea, prebentzio-neurriak (kolektiboak eta antolakuntzakoak) berrikusi/eguneratzea eta eskatutako dokumentazioa mantentzea

5. KASU PRAKTIKOA

“Edozer” Osasun Zentroa, Osakidetzako ESI batean integratua, ISO 45001 ziurtagirirako trantsizio-fasean dago (Prebentzio Plan korporatiboak ezartzen du Osakidetzak OHSAS 18001etik ISO 45001era igarotzea planifikatzen duela bere erakundeetan).

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO (Segurtasuna eta Higienea) teknikari gisa, ziurtapenaren kanpo-auditoria egin aurreko barne-auditoria batean parte hartzen duzu. Zentroak Osakidetzako LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO Kudeaketa Sistema dauka, arriskuen ebaluaziorako, segurtasun-ikuskapenetarako, kontrol operatiborako, larrialdietarako, barne-auditorietarako eta desadostasunen kudeaketarako prozedura korporatiboekin.

Barne-auditorian honako aurkikuntzak detektatzen dira (laburpena):

1. **Garbiketa-gela (produktuen biltegiratze-eremua)**
    - **Desinfektatzaile oxidatzaile bat (adibidez, hipokloritoa) bereizi gabe batera biltegiratzea ikusten da, desinkrustatzaile azido batekin (garbiketa-produktua), eta ustekabeko nahasketagatik erreakzio arriskutsua izateko arriskua dago (gas narritagarriak/toxikoak isurtzea).**
    - **Erabilera-puntuan EZ dira Segurtasun Datuen Fitxak (SDF) eskuragarri aurkitzen.**
    - **EZ dago froga argirik arriskuen ebaluazioa eguneratu denik produktuen/erabileraren aldaketen ondoren.**
2. **Sendaketa-kontsulta eta hondakinen zirkuitua**
    - **Ziztagarri-ebakitzaileen edukiontziak zirkulazio-eremutik gertu kokatuta daude, eta edukiontzi bat gehienezko mailatik gertu dago (itxi gabe).**
    - **Osasun-hondakinen poltsak atzematen dira sarbide-korridorean, denbora luzez, jasotzeko zain.**
3. **Ebakuazio-bideak eta seinaleztapena**
    - **Ebakuazio-bide gisa seinalatutako korridore batean, gurdi bat eta aldi baterakoa materiala daude, pasabidea estutuz.**
    - **Seinaleztapen osatugabea/eskasa nabaritzen da korridoreen bidegurutze batean (ebakuazio-norabidea gutxi ikusgai).**
4. **Kudeaketa-sistema (ISO 45001)**
    - **Zuzendaritza-taldeak auditoriarako ekintza zuzentzaile “itxien” frogak eskatzen ditu: zer erregistrok erakutsiko dute kudeaketa-sistemarekiko adostasuna (desadostasunak, ekintza zuzentzaileak, eraginkortasunaren egiaztapena, etab.).**

- **Gogoratu ISO 45001ek PHVA (planifikatu, egin, egiaztatu eta zuzendu, euskaraz), ikuspegia eskatzen duela, kontrol operazionala, kontrolen hierarkia, aldaketen kudeaketa, errendimenduaren ebaluazioa, barne-auditoriak eta hobekuntza (intzidentziak/desadostasunak eta ekintza zuzentzaileak barne), dokumentatutako informazioa froga gisa izanik.**

481. Zentroan desinfektatzaile kimikoen erabilera segururako (adib. gainazalak/lanabesak), zein da neurri egokiena Industria Higienearen eta LAP betetzearen ikuspegitik?

a) Erabilera baimentzea "ikusmen bidez identifikatuta" badaude (kolorea/usaina), nahiz eta FDS eskuragarri ez egon.
b) Segurtasun Datuen Fitxa (FDS) eskuragarri eta kontsultagarria dela bermatzea eta etiketatzea egiaztatzea, produktua agente kimikoen arriskuen ebaluazioan eta prestakuntza/jarraibideetan sartuz.
c) Edozein desinfektatzaile ur eta xaboiarekin ordezkatzea beti, eraginkortasun sanitarioa eta arrisku biologikoa aztertu gabe.
d) Arriskua garbiketa-gelan kartel informatibo orokorren bidez soilik kudeatzea.

482. Osasun-hondakinen kudeaketari eta korridoreetatik hurbil dauden ziztadako-ebakitzaileen presentziari dagokionez, zein da jarduerarik zuzenena, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeari buruzko 21/2015 Dekretuaren arabera?

a) Hondakin-poltsak korridoretik edozein ordutan garraiatzea, azkar eginez gero eta manipulazio-denbora laburra bada.
b) Ziztagarri-ebakitzaileen edukiontziak irekita mantentzea erabilera errazteko, edukiontzi handiagoak erabiltzea, eta horrela, erabilera-denboraren arriskua murriztea.
c) Jatorrian eta barne-zirkuitu seguruan bereiztea, ziztagarri-ebakitzaileen edukiontziak behar bezala kokatuta, jarraibideen arabera itxita, eta prestatutako eremuetan aldi baterako biltegiratzea, korridoreetan geratzea saihestuz.
d) Ziztagarriak hondakin orokorren poltsetan sartzea, baldin eta poltsa bikoitzaren barruan badaude eta hauek itxita badaude.

483. Ebakuazio-bidean oztopoak eta seinaleztapen eskasa antzematean, zein da jarduerarik egokiena Lantokietako Segurtasun eta osasunari buruzko 486/1997 Errege Dekretuaren arabera?

a) Gurdiak korridorean uztea, "pasatu badaiteke", eta langileei informazioa indartzea.
b) Oztopoak berehala kentzea eta ebakuazio-seinaleztapen egokia bermatzea, mantentzea eta dokumentazio-kontrola egiaztatuz.
c) Langileei ohartaraztea (Osakidetza/kontratak) eta oztopoa ahal denean kentzea.
d) Prebentzioko Oinarrizko Unitateari ebakuazio-bidea, oztopoak dauden bitartean, aldi baterako aldatzeko eskatzea, Laneko Segurtasun eta osasunari buruzko 485/1997 Errege Dekretuaren arabera seinaleztatuz.

484. ISO 45001 ziurtapen-auditoretzari begira, dokumentatutako zein ebidentzia da sendoena detektatutako DESADOSTASUNAK (kimikoak, hondakinak, ebakuazioa) eraginkortasunez itxi direla frogatzeko?

a) Onartutako ekintza-plana, datekin, arduradunekin eta desadostasunak zuzentzeko aurreikusitako neurriekin.
b) Barne-auditorearen txostena, erakundeak desadostasunei behar bezala heldu diela adierazten duena.
c) Ezarritako ekintza zuzentzaileak erregistratzea, kausa, hartutako neurriak eta horien inplementazioaren ebidentzia objektiboak identifikatuta eta eraginkortasuna egiaztatuta.
d) Eragindako eremuetan egindako hobekuntzen argazkiak (biltegi kimikoak, hondakin-puntuak, ebakuazio-bideak).

485. Auditorian zehar jakinarazten da hornidura arazoak direla eta, ohiko desinfektatzaile baten ordez beste bat jarri dela (erabilera bera, osaera desberdina). Indarrean dagoen araudiaren eta Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentzio eta Prebentzio Sistemaren arabera, zein da jarduera zuzenena modu orokorrean ezarri aurretik?

a) Produktua ordeztea prebentzio-neurri berberak mantenduz, aurreko desinfektatzailearen erabilera bererako erabiltzen denean.
b) Ezarri aurretik aldaketa ebaluatzea: SDFa/etiketa berrikustea, arriskuen eta kontrolen ebaluazioa eguneratzea (biltegiratzeko bateragarritasuna barne), eta eragindako langileei informazioa/prestakuntza ematea.
c) Hornitzaileari desinfektatzaile berriak aplikatu beharreko araudia betetzen duela berresteko eskatzea, erabiltzeko baimena eman aurretik.
d) Produktua behin-behinean ezartzea, ohiko desinfektatzailearen hornidura normalizatu arte.

486. Zentroa kanpoko enpresa batek garbitzen duela egiaztatu da, eta enpresako produktu batzuk eramaten dituela. ISO 45001 eta LAPeko araudiaren arabera, zein da kontrolik egokiena?

a) Ez esku hartzea, erabiltzen dituen produktuen erantzukizuna “kontratak” duelako.
b) Kontrataren prestakuntza-erregistroa soilik eskatzea.
c) Koordinatzea eta kontrolatzea: informazio prebentiboa trukatzea (FDS, jarraibideak), zerbitzurako LSO irizpideak ezartzea eta zentruan aplikatzen dela egiaztatzea.
d) Kontratari edozein produktu kimiko debekatzea eta Osakidetzak homologatutako produktuak eta ura bakarrik erabiltzera behartzea.

487. Zuzendaritza-taldeak “dokumentu bat” eskatu du, zentroak legea (kimikoak, lantokiak, seinaleak, biologikoak) kontrolatzen duela frogatzeko. Zer ebidentzia da Osakidetzaren ISO 45001 eta LAPeko sistemarekin sendoena?

a) Lantokiari aplikatu beharreko laneko arriskuen prebentzioaren arloko lege-araudiaren erregistroa, artxibatuta eta teknikarientzat eskuragarri.

b) Legezko betekizunen eta aplikatzekoak diren beste betekizun batzuen erregistro dokumentatu eta eguneratua, LAParen arloko xedapenak, zentroari aplikatzeko aukera, betetze egoera eta betetze horren aldizkako jarraipena identifikatuko dituena.
c) Segurtasun eta Osasun Batzordearen aktak, arauak betetzearekin lotutako gaiak aldizka berrikusteko.
d) Zentruko zuzendaritzaren erantzukizunpeko adierazpena, laneko arriskuen prebentzioari buruz indarrean dagoen legeria betetzen duela adieraziz.

488. Ikuskapenean, pertsona batek garbiketa-gelan produktu azido bat kloratu batekin ia nahastu (akatsez) duela detektatzen da (garaiz saihesten da). Zein da jarduera zuzena Osakidetzaren ISO 45001 eta LAPKS sistemetan?

a) Ezer ez erregistratzea, gertakari bat besterik ez delako izan eta ez zelako ezer gertatu.
b) Auditorian "desadostasun" gisa bakarrik erregistratzea, aztertzeko eta tratatzeko.
c) Ia-istripua erregistratzea, erroko arrazoiak ikertzea, ekintza zuzentzaileak ezartzea eta eraginkortasuna egiaztatzea.
d) Auditorian "behaketa" gisa soilik erregistratzea, gertaera zuria baita.

489. Ziurtapen-auditoretza prestatzeko, zentroak barne-auditoretza bat planifikatzen du. Ondorengo planteamenduetatik, zein EZ dator bat ISO 45001 arauarekin?

a) Barne auditoretzaren programa/irismena definitzea.
b) Auditore eskudunak, objektiboak eta inpartzialak izendatzea (beren lana ikuskatzea saihestuz).
c) Auditoretzan aurkitutako aurkikuntzak erregistratzea.
d) Kanpoko auditoretzentzako txosten bat egitea, barne-auditoretza balia dezaten.

490. Garbiketa-gelan, produktu kimikoak modu seguruan erabiltzeko jarraibide plastifikatua (barne-prozedura) ikusten da. Osakidetzako ISO 45001 eta LAPZn ezarritakoa betetzen duen egiaztatzean, alderdi hauetako zein EZ da bete beharreko baldintzetako bat?

a) Indarrean dagoen bertsioa dela egiaztatzea.
b) Instrukzioa arriskuen ebaluazioarekin eta indarrean dauden segurtasun-datuen fitxekin koherentea izatea.
c) Instrukzioak langileen aniztasuna kontuan hartzen duela.
d) Gela horretan sartzen diren pertsonek sinatu dutela, irakurtzen eta onartzen dutela agerian utziz.

6. KASU PRAKTIKOA

Osakidetzako zerbitzu-erakunde bat erreferentziako ospitale batek eta zenbait osasun-zentrok osatzen dute.

Prebentzioko Oinarrizko Unitateak zentro horietako biren segurtasun- eta osasun-baldintzak egiaztatu behar ditu.

A zentroa: 300 m²-ko solairu bakarreko eraikina, 80 pertsonaren gehieneko okupazioarekin.

B zentroa: Eraikinak 6 solairu ditu, eta 24 metroko gehieneko ebakuazio-altuera; 3.500 m²-ko azalera du guztira, eta 500 pertsonako gehieneko okupazioa.

491. Autobabes-planei buruzko araudia eta Osakidetzako autobabes- eta larrialdi-planak garatzeko eta ezartzeko prozedura (P-PRL09) kontuan hartuta:

a) Bi zentroek autobabes-plana izan behar dute nahitaez.
b) Ez da beharrezkoa bi zentroetako bakar batek ere autobabes-planik izatea.
c) B zentroak autobabes-plana izan beharko du nahitaez, eta Zerbitzu Erakundeak erabakiko du A zentrorako plana egitea.
d) Zerbitzu-erakundeak erabakiko du, bi kasuetan, autobabes-plana egin edo ez.

492. Larrialdi-egoerei aurre egiteko autobabes-betebeharrei buruzko 277/2010 Dekretuaren arabera, zentroren bat EZ badago behartuta autobabes-plana izatera, aplikagarria al da Osakidetzaren PRL09 P prozedura?

a) Ez, prozedura 277/2010 Dekretuak behartutako zentroei bakarrik aplikatzen zaie.
b) Bai, prozedura Osakidetzako langileek lan egin ohi duten zentro guztietan aplikatu behar delako.
c) Zentroak 100 pertsona baino gehiagoko okupazioa badu bakarrik aplikatzen da.
d) Etengabeko arreta duten ospitale eta zentroetan bakarrik aplikatzen da.

493. Zentroren baterako autobabes-plana egiten bada, nor arduratuko da plana prestatzeaz, Osakidetzako autobabes- eta larrialdi-planak garatzeko eta ezartzeko prozeduraren (P-PRL09) arabera?

a) Dagokion zerbitzu-erakundeko Prebentzioko Oinarrizko Unitateko pertsonalak.
b) Kanpoko pertsonal espezializatu eta behar bezala akreditatuak.
c) Osakidetzako Prebentzioko Zerbitzu Korporatiboko pertsonalak.
d) Dagokion zerbitzu-erakundeko Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritzako pertsonalak.

494. Osakidetzako autobabeserako eta larrialdietarako planak garatzeko eta ezartzeko P PRL09 prozeduraren arabera, nori dagokio B zentroko larrialdi-taldeetako kideak izendatzea?

a) Prebentzioko Oinarrizko Unitateari.
b) Prebentzio Zerbitzu Korporatiboari.
c) Zerbitzu Antolaketako Zuzendaritzari
d) Segurtasun eta Osasun Batzordeari

495. Osasun-zentroetako suteen aurkako babes-sistemen barruan, su-itzalgailuak daude eraikinetan banatuta. «Osasun-zentroetarako kontrol-zerrendaren» arabera, zein da haiei buruzko aukera zuzena?

a) Kontrol-zerrendan alderdi orokorren berrikuspena jasotzen da (seinaleztapena, irisgarritasuna, berrikuspenen erregistroa, egoera orokorra).
b) Ez da inola ere aurreikusten elementu horiek egiaztatzea, enpresa espezializatuek aldizkako berrikuspenak egiten baitituzte.
c) Horien egiaztapen zehatza egiten da, eta erabat ordezka ditzake enpresa espezializatuak egindako berrikuspenak.
d) Ikuskapen-bisitan elementu horiek sartzen dira, baldin eta ikuskapena egiten den osasun- zentroan istripuen jakinarazpenak edo horiekin lotutako aurretiazko prebentzio-kontsultak badaude bakarrik.

496. B zentroaren erabilera sanitarioa kontuan hartuta, zer eskakizun ezartzen du SS ODk sute-aho ekipatuei dagokienez?

a) Arrisku berezi handiko eremuetan bakarrik eska daitezke.
b) Aukerakoak dira, kanpoko sute-ahoak hurbil badaude.
c) Beti dira nahitaezkoak ospitale-erabilerako eraikinetan.
d) Azalera 5.000 m²-tik gorakoa bada bakarrik dira beharrezkoak.

497. B zentroan bi eskailera daude jendeak erabiltzeko, eta hirugarren eskailera bat langileek soilik erabiltzeko. Azken horrek bi aldeak itxita ditu, eta 1,5 metroko zabalera. horretarako, eta lantokietako segurtasunari eta osasunari buruzko 486/1997 Errege Dekretuaren arabera:

a) Eskaileraren bi aldeek eskudelak izan behar dituzte.
b) Alde batean baino ez da eskudela behar, zerbitzuko eskailera bat delako.
c) Ez da beharrezkoa eskudelik izatea bi aldeetako bakar batean ere, zerbitzuko eskailera bat delako.
d) Ez da beharrezkoa eskudelik izatea, jendearentzako beste bi eskailerek bi aldeetan eskudelak edukitzeko baldintza betetzen bada.

498. B zentroko eskailerak, suteen aurkako segurtasunari buruzko araudian ezarritako eskaileren gutxieneko babes-maila kontuan hartuta, SI Suteetarako Segurtasuna, SI - 3 Oinarrizko Dokumentuaren arabera, honelakoak izan behar dira:

a) Irekiak.
b) Babestu gabeak.
c) Babestuak.
d) Bereziki babestuak.



499. B Zentroko Autobabes Plana ezartzean, antolaketan aldaketak gertatzen dira, eta larrialdietako ekipoetan izendatutako langileei eragiten diete. P PRL09 prozeduraren arabera, zein izango litzateke jarduera zuzena?

a) Ez da beharrezkoa aldaketak islatzea, Plana hiru urtean behin formalki berrikusten ez den bitartean.
b) Nahikoa da aldaketak eragindako langileei ahoz jakinaraztea.
c) Planeko izendapenak eguneratu behar dira, eta berrikuspena dokumentu bidez jaso.
d) Eraikinaren egitura aldatzen bada bakarrik da nahitaezkoa informazioa eguneratzea.

500. Larrialdi-egoerei aurre egiteko autobabes-betebeharrei buruzko 277/2010 Dekretuaren II. eranskina kontuan hartuta, plano hauetako zein EZ da beharrezkoa B eraikinaren autobabeserako planaren gutxieneko edukiaren barruan egotea?

a) Kokapen-planoa, hurbilekoa, hirikoa, industriala edo naturala, sarbideak, komunikazioak eta abar jasotzen dituena.
b) Arriskuko elementu edo instalazio guztien kokapen-planoak, solairuka, bai berezkoak, bai ingurukoak.
c) Eremu edo sektore arriskutsuak zatitzeko planoak.
d) Klimatizazio, telekomunikazio, argiztapen eta iturgintzako instalazioen planoak.